



EGAN

5-6

1985

69

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País
Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa
Patrocinio: Excma. Diputación Foral de Guipúzcoa

SUMARIO

Pág.

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEARI GUTUNA: B. Atxaga ...	5
PIARRES LARZABAL, HERRITAR BATEN ARABERA: R. Idiart	7
ARANA JESUITA URIARTEZ MINTZO: T. Knörr	17
PARIS'EN IZAN ZAN BERTSOLARI-SAIAKETAREN AZAL- PENEA - 1958	21
NOR DA Dr. HERNANDORENA?: J. S. M.	47

OLERKIAK

CHRISTMAK: B. Gandiaga	53
LIZARDIREN BIDEAN: Luis M. ^a Mujika	71
BIDEKO LELOA: Luis M. ^a Mujika	72
EGUZKIA: Josu Baez	75
DANTE-REN KOMEDIA, INFERNUA: Dante Alighieri - G. Aresti	79
ZEZEN LARRUA (jarraipena): S. Espriu - Otsalar	85

KONTU KONTARI

GARBIKETA ZERBITZUA: J. L. Zabala Artetxe	93
AMONA RAMONARI, UMILTASUN OSOZ: F. Pelaez Arregi	99
PERO DE AVENDAÑO: F. Krutwig	107
IZANGO DIRA FRUTUAK: Joxean Sagastizabal	119
MARRASKILOEN HERRIAN: Alaine Arsuaga	127
PERPETUA SARAGUETA ANDEREAREN EUSKAL IPUIAK: J. M. Satrustegi	131
ISPILU OKERRA (Gabonetako kontakizuna): Txejov - P. Zabaleta	141

ADABAKIAK

Adabakirik ez duen erabakia: Otsalar	147
Kintana medium: J. S. M.	148
Hondarribia. Izenaren izana: J. S. M.	152
Sant Elmo, itsumustuka Telmo Deuna omen: J. S. M.	154
Sitsa eta zerena, bi gauza dira: J. S. M.	155

LIBURUAK

J. LAKARRA, K. BIGURI, B. URGELL, K. RICO	159
LUIS MITXELENA	163
G. ETXEBERRIA, I. IÑURRIETA	165
ELKAR LANEAN	167
MARIANO OSTOLAIZ	168
P. CHARRITTON	169
LITERATUR GAZETA	171
SENEZ	173

ANTZERKIA

SUEDAKO NEXKATXA: P. Larzabal	179
--------------------------------------	-----

EGAN

EGAN

SANZ-ENEA UDAL LIBURUTEGIA



1018555

891.69 EGA

1985 5-6

M

Comité de Redacción:

ANGEL LERTXUNDI
LUIS MICHELENA
JUAN SAN MARTIN
ARANTXA URRETAVIZCAYA

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEARI GUTUNA

EGAN

Adieridicok:

Abuzurako gure arteko bilera ezana, itzultzaile politika berezi baten premia zela eta, leito hauen bitartez zehaztu nahi nintzete, eta hasieratik bertatik aitortu behar dut, gainera, ideiaaren originaltasua eta xereen, adibide baturako, antzekotasun hartua izan baitzego. Prat de la Riva-ren eskozik, Cezsluvyan, eta hori gerra aurreko garaieran eta ondorio jakinetan: Carlos Riba, poeta eta itzultzaile ospetsua, politika haren «fruituetako» bat bezala jokatzen dute katalandar askok.

Idea aski sinplea da: liru publikos erabilia, Euskal Eru-kondeak abalik eta jende gehien bialdi beharke luke —orde-lindorik, bizpahiru bat urtearako— Europako kapitale kub-nazletara, Erromara, Parisera, Barcelonara, Madrilera, Ber-linera, Estokolmura, etc. bago hizkuntza eta kultura lan-eg-estudiam leza, gero, handik itzuliz edo luzill-gabe, traduktore bihurtzeko — traduktorek frontzeratik, edo italle-eratik edo alemaneratik etc. euskarara, noski.

Espe lizerkeko elkarremanendu dugu, noski, hemen egiten
**SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS**

Dirección: Luis Michelena y Juan San Martín

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación Foral de Gulpúzcoa - SAN SEBASTIAN

II Epoca

Vol. XLIII

Setiembre-Diciembre 1985

EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Director: Luis Michelena y Juan San Martín

ISSN 0422-7328. Título Clave: EGAN

Depósito Legal: S. S. 289 - 1958

Gráficas Echeverría - Easo, 47 - San Sebastián 1985

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEARI GUTUNA

Adiskideok:

Abuztuko gure arteko bileran esana, itzultzaile politika berezi baten premia zela eta, lerro hauen bitartez zehaztu nahi nizuke; eta hasieratik bertatik aitortu behar dut, gainera, ideiarene orijinaltasun eza, zeren, adibide baterako, aintzakotzat hartua izan baitzen, Prat de la Riva-ren esku-tik, Catalunyan, eta hori gerra aurreko garaietan eta ondorio jakinekin: Carles Riba, poeta eta itzultzaile ospetsua, politika haren «fruituetako» bat bezala juzkatzen dute kata-landar askok.

Idea aski sinplea da: Diru publikoa erabiliz, Euskal Era-kundeak ahalik eta jende gehien bidali beharko luke —orda-indurik, bizpahiru bat urtetarako— Europako kapitale kul-turaletara, Erromara, Parisera, Barcelonara, Madrilera, Ber-linera, Estokolmora, etc., hango hizkuntza eta kultura ikas eta estudiatu lezan, gero, handik itzuliz edo itzuli gabe, traduktore bihurtzeko... traduktore frantzeseratik, edo italie-ratik edo alemaneratik etc. euskarara, noski.

Epe luzerako planteamendua dugu, noski, hemen egiten dudana, baina gonparaziorik ere ez duena —Euskal Herria-ren kultura aberastasunaren arabera— gaur egun, itzul-tzaile kontuan, enplegatzen den diruarekin (Udaletxetako itzultzaile hilabetero ordainduak dauzkat gogoan; lan antzua, antzurik bada; urrea hauts bihurtzeko bide zuzenetako bat).

Guk *euskal* adjetiboaz ornitzen dugun *kultura* delakoa beste kultura batzuen satellite hutsa dela konprenitu ez duenak, ez du ideia hau beharrezkoa ikusiko.

Itzulpena literaturan diren jeneroetan zailenetakoa dela konprenitu ez duenak, luze eritziko dio bizpahiru urtetako epeari. Oraintxe bertan argitaratzen ari diren zenbait itzulpen ikusi besterik ez dago arazo honen larritasunaz ohartzeko; bertsozale batek esango lukeen bezala, itzulpena ez da gau erdiko ahuntzaren eztula, eta ona ez den itzulpena, kaltegarria da euskara hizkuntza literarioa bihurtzeko helburuari buruz.

Itzultzaile berezi hauen bitartez, hainbat problema konponduko lirateke; behintzat zuzenki iritsiko ginateke —eta ez gazteleraren bitartez— Europako kultura gehienetara. Gainera, urte batzuren buruan, itzultzaile-sortzaile kopuru bat sortuko litzateke... bertsolari eskoletatik bakarrik ez da bizi gizona, ezta euskalduna ere.

Inoiz ideia hau aurrera joango balitz, bi hitz jendearen hautaketari buruz:

Lehena euskara *oso ondo* dakiena behar duela izan esateko. Bigarrena, literatur zalea behar duela izan esateko. Ez literaturaz informazio asko daukana bakarrik baita idazteko ohitura duena ere, ...azterketak egingo balira, erredaktatzeko gaitasuna asko baloratu beharko litzateke; titulu akademikoak, aldiz, ahalik eta gutxiena («hainbat unibertsitari ikusi ditut nik, bere analfabetismoa ezin disimulaturik», opereta batetan ia ia esaten den bezala).

Barkatu korrika eta presaka egindako lerro hauetan, apika, ixuri zaizkidan oker eta nahaspideak.

Adiorik ez,

Bernardo Atxaga

PIARRES LARZABAL HERRITAR BATEN ARABERA

Roger Idiart

Larrun-go aldaxka

Piarres Larzabal 1915 ean, maiatzaren 7 an sortua da, Larrun mendiaren maxelan, Azkaine Mitxelenean, bordari edo etxetiar familia batean. Maiatzaren 9 an ez zuen Eyherabide erretorak bataiatu bainan bai Castet apezak. Hunek ez zuen kargu berezirik, apezpikutegian, diotenaz, paperak erreak zituelakotz. Senperen sortua, Azkaine Errota-Berrian bizi zen, bere arreba Felix a eta Gabriel koinatarekin. Azkaindarrek ez zuten hanbat maite: hala-hulako tratulari baten fama zaukan. Dena den, Azkaingo elizan meza emaiten zuen eta etxetiar familietako haur zonbeit bataiatzen zuen, hala nola Piarres Larzabal.

Piarres-en aita Aletxandre, Urruñarra zen. Ama, Maria Carrère, Lesakarra Iparretik Hegoalderat ihes egin soldado gai baten alaba. Aletxandre, 14 eko gerlan «gaz»-ek bularretan joa izana zen, bainan gobernuak ez zion hortako kasik deus diru laguntzarik emaiten, kasu berean ziren asko gerlari ohiek pentsione eder bat hunkitzen zutelarik...

Piarres-ek bazituen hiru anaia: Anton, Pantxoa eta Matin, eta bi arreba: Filomena eta Mariana. Gaur Piarres eta Filomena¹ bakarrik galditzen dira. Filomenak dionaz, haurride guziek elgar hainitz maite zuten.

1. Hau idatziz geroztik zendu da Filomena.

Aletxandre, aita, gizon alai zen, pertsulari, muslari eta lagunkina. Ama aldiz emazte goxo eta bihozdua. 1923 an, San-Martineko aldairtan, ohi zen bezala, familia joan zen Mitxelenetik ez urrun, Larrun maxelako Aldagaraian dagon Ixabelenerat.

Haur denbora

Piarres haur-hurretik mutiko ernea agertu zen, zifera, jostakina eta, noizean behin debuz egina: Zimino baten pare, arboletan kafiak biltzen zituen, bardin bere eskuz faltsoak egiten eta sasi zokoetan gordetzen, gero anai-arreberi sinetsarazteko egiazkoak zirela.

Auzoko etxe batean baitziren zazpi alaba, heiekin bakarren jostetak baditu eginak. Behin lau neska jar-arazi zituen zumil edo martin-mullo baten gainean eta bera gidari, parrarra beheiti abiatu. Beharrik lau neskek, ikaraturik, aski goiz jauzi egin baitzuten: tresna Piarres-i nausitu zitzaion eta harroka baten kontra xehekatu!

Beste behin, errota edo eiheratik arto irina bizkarrean heldu zelarik, bere zakua bide bazterrean utzi zuen eta hiru nesken kontra kolpeka hasi. Batek mendekioz, irina ur errekarat bota zion. Etxerat heltzean, Piarres-ek bereak eta asto beltzarenek entzun zituela pentsa errexa da!

Egun batez, beste bi mutiko lagunekin eskola huts edo «mankarrot» egin zuelarik, neska batek salatu zituen... eta dolutu ere: Hiru mutikoek neska hura harrapatu zuten, zaiak altxatu eta ixterrak ausinez torratu!

Apez gai bipila

Garai hartan, Azkainen, ez zagon mutikoentzat parropiako eskolarik eta Piarres herriko eskola publikoan zabilan. Ha-

mar urte hurbil zituelarik, errientak galdegin zion zer ofizio nahi zuen hartu. Piarres-ek: «apezgoa». Haur gaixoak zer trufak ez zituen entzun, baizik eta alfer lan bat hartu nahi zuela. Errientak, berehala kasik baztertu zuen ikasle lagunetarik, eskolako baratzean esku lan batzu egin-araziz: belar ateratze, hosto biltze eta holako...

Aitetamak noizpait oharturik Piarres-ek ez zuela eskolan deus ikasten, Debidart erretorari parte eman zioten. Hunek Hazparne-ko San Josep ikastegian sar-arazi zuen Piarres eta bost-pa-sei urtez, piaia, liburu eta gaineratiko gastuen dirua eman. Etxekoek alabainan, hortarat gabe bazuten lanik aski familiaren hazten.

Piarres bererela trebatu zen bere istudio sail berrian: Lehen sariak airez aire biltzen zituela jakinik, herriko mihi gaizto zonbeit Piarres-en jorratzen hasi ziren, beren haurrak tontoxkoak izaki-eta, etxetiar «mutiko txar» hortaz bekaizti baitziren.

Biziaren hatsa

Piarres, Hazparnetik Uztaritzeko Semenariotipirat iragan zen. Han zuen egin lehen aldiko, hamalau urtetan, Piarres Lafitte irakasleak akulaturik antzerki tipi bat. Han zuen ere, beste ikastegi batzuekilako lan zeingehiagoka batean lehen prima irabazi, ikastegiko buruzagia bera, Clement Mathieu, apezpiku beharra, ez baitzen guti harritu.

Ikaslek orduan bakantza edo opor guti zuten hartzen. Piarres treinez jiten zen Uztaritzetik, Baionan gaindi, Donibane Lohitzunerat eta hortik Azkainerat, pirripita txar baten puntan. Zer loria Ixabelenean, ikusten zutelarik heldu beren Piarres. Bazuen beti zernahi ixtorio kondatzeko, bainan ez zen lotsa edozoin lanetan partehartzeko eta bardin «gauazkoe-tan» (muga ondoan bizi direnek badakite hitz horrek zer erran nahi duen).

Soldado joan aintzin, udan, Piarres-ek zerbitzari lana egin zuen Donibane Lohitzuneko Majestic ostatuan, eta han zer nahi jende mota hurbildik ikusten. Ez da harritzeko, geroago, bere antzerkietan, Piarres-ek biziaren hatsa sendi-arazi badauku.

Propiki ari zen ere pilotan eta soldado gaien zoingehia-goka batean Donibane Lohitzunen, xapeldun atera zen... ige-rika. Bere denboran gehienik pratikatu duen kirola bizkitar-tean izan da... onddoketa ibiltzea.

Profeten arraza

Uztaritzeko eta Baionako semenarioetan Piarres-ek istudio serioesak egin zituen, guziz Lafitte eta Mathieu bi irakasle suhar eta jakintsunen aholkueri jarraikiz. Bainan bi etxe horieri kausitzen zioten komentu hotz eta idor aire bat. Berak, bizia, arralleria, adiskidantza hain maite, barne bide luze hetan Vatikanoko handikeria gehiago senditu bide du, Nazareth-eko ximpletasuna baino!

Gure haur denboran, Azkaineko haurrek biziki maite ginuen, Piarres gidari, Larrungo mendian ibiltzea: gaitzeko ixtorioak kondatzen zauzkigun, ahantzi gabe «Agur Maria!» bat edo bi erraitea elgarrekin.

Apezteko adinerat heldu gabe bururatuak zauzkan Piarres-ek bere istudioak. Horra zergatik zuten igorri, bikario gisa, Josep Chorhy Orzaize-ko erretoraren ganat. Haur «moda xaharreko» apezetarik zen: Gau batez, herriko gazte batzuek, mozkorturik, harrikatu zituzten apezteko leihoak eta erretoraren laidostatze ahopaldi txarrak atera. Piarres erretor xaharraz urrikaldu zen bainan hunek ihardetsi zion: «Ederki! Ederki hola! Biziki kontent nauk: Jesusek ere etsaiak ukan zitian!».

Geroztik Piarres-i frangotan gogoratu zaizko hitz horiek, bereziki berak, abertzale gisa, hil mehatxuak ukan dituelarik.

Alemanian gaindi

1939 an apeztu zen Piarres Larzabal. Hazparne-rat igorri zuten bikario. Han egon beharra zen hamabi urte.

1940 eko «gerla bitxiaren» ondotik preso egon zen Alemanian. Orduan zen ohartu zer basakeriaren heinerat jauts ditazken soldadoak. Egia erran, jadanik zerbait bazakien hortaz, soldadokoa egina baitzuen gerla aintzin eta hor baitzitziaion bokazionea, galtzeko orde, finkatu. Bainan preso denborakotik maiz kondatu izan du nola Alemanek espres lurrerat botatzen zituzten beren zigarreta ondarrak, presonerez trufatzeko: hauek, zakurrak hezur baten inguruan bezala, lotzen ziren, iduri kasik elgar hil behar zutela. Higitzen ez ziren bakarrak, Anglesak! Ideal edo asmo ederrik ez duen jendea zertaraino hel ditaken! Aldiz nork bere burua errespetatzen baitu, harek zer indarra bere baitan!

Piarres harmadako erizaina zen: hortako zuten askatu, «kurutze gorri» batasunaren bitartez. Harparne-rako «Démarcation» deitu muga iragaiteko paper faltsoak egin zituen eta emazte jauntziz beztitu. Hazparne-rat heltzean adiskide bat aurkitzen du. «Ezagutzen nauzu? — Ez!». Egia erran, Piarres-ek ezpainak tintatuak zauzkan, zapel handi bat buruan, emazte soinekoak bai eta oski takoin luzeak. Delako adiskidea ez zen guti harritu, noizpait, mintzotik, Hazparne-ko bikarioa ezagutu zuelarik. Zonbeit urte geroago, «Suedako neskatxa» idaztearekin gertakari hortaz oroitu zen Piarres.

Apez «gorri» eta «sasi gudari»

Behar balitz xeheki kondatu nola Piarresek iragan zituen bere hamabi urteak Hazparne-ko «Bikaritean», liburu eder baten gaia balitake: Langile porrokatua, gazte hainitz arduratu zen, bereziki heien moldatzeaz eta eskolatzeaz, berak egiten ziotela batzutan eskola hori bai frantsesez, bai eta ere euskaraz. Heientzat zen hasi ere aldizkari eta antzezki xume batzuen ateratzen.

Ez zituen horren gatik eri eta zaharrak bazter uzten, baina, baizik eta herek zituela Hazparneko langile eta laborari zindikatak sustatzen, Hazparneko jaun handiek apez «gorri» tzat zaukaten. Piarres-ek ordea dio, ez duela, bere denboran, nausien eginbidez sekuela prediku bakar bat entzun. Aldiz bai frangotan, langilek nausiari zor dioten errespetuaz.

Dena den, Hazparneko jaun batzu bazkaltiar gertatu ziren eta «Lartxabal bikario gorriaren» jorratzen ari ziren batez, Mathieu sendagilea (Akitze-ko apezpikuaren anaia) jazarri zitzaioten: ez zirenez ahalke apez hortaz hola mintzatzeko: «Zuek ez balin badakizue, nik badakit, aski hurbildik ikusirik, bere lanari, eri ta xaharrekin, zoin osoki eta leialki emana den!».

Anartean, Piarres bazoan bere ildotik. Haren kontra ari zirenetan zonbeitek ez zuten kontzientzia hain trankil. «Alemanen denboran» hauien alde agertu izanak ziren. Gerla bururatzearekin mendekio hainitz gertatu zen. Piarres Hazparne inguruko «erresistentziaren» buru izana baitzen, arrisku handitan ibilirik, mendeku horier traba egin zioten. Horra zergatik mehatxuak izan zituen orduan berak, ezker-aldetik. Geroago ukan beharrak zituen eskuin-aldetik, euskal abertzale agertuko zelako.

Aberri «Handitik» «Tipirat»

«Erresistentzia» mota bat baino gehiago egin ukan du Piarres Larzabal-ek bere bizian. Interesgarri zaiku ikustea nola eta zergatik soldado frantses leial izan ondoan euskal abertzale bilakatu zen.

Gazte denboran, Piarres-ek bazuen, bertze askok bezala, «Karlixa» aire bat, Frantziaren ohoretan bere bizia sakrifikatzeke heinean. Emeki emeki ohartu bide zen Hego eta Ipar-aldeko «Aberri Handien» menpean, gure «Aberri Tipia» betikotz galtzerat zoala. Hortaz konturatzeke ez zuen arrazoin eskasik: Ez ditut hemen biga baizik aipatuko. Ene ustez le-

henak Piarres hunki balin badu, bigarrenak askoz barnago jo du, zauritu eta bertzelakatu.

— 1931 an, Piarres-ek hamasei urte hurbil zituelarik, anai zaharrena, Anton, Angoulême-n zagon soldadokoaren egiten. Apirilaren ondarrean, zaldi batek ostikoz aurpegia xehaturik, hil zen, bainan hil berriak ez zuen holakorik salatu: Anton eritasunez hil zela zioten aitzindariak eta hil kutxa ez zela zabaldu behar kutsu arriskuaren gatik. Pentsa etxekoen eta bereziki amaren oinazea! Hunek bere hasarrean aizkora bat hartu omen zuen kutxa ideki nahiz. Angoulême-tik jin aintzindari batek trabaturik, lepotik ttattarra jauzarazi zion eta zernahi erran, bere semearen gorputza ikusterat ez ziolakoan uzten. Gero zuen familiak egia jakin, Xiberotar soldado lagun batek erranik: Ontsalaz gisa hortan ixtripuz hiltzen diren soldadoen etxekoek diru laguntza zerbait ukaiten dute. Anton-en familiak ez zuen deus ukan, harmadak ixtripuaren berria gorde zuenaz gain.

— 1945 ean, otsailaren 19 an, Piarres-en beste anaia bat, Pantxoa, 34 urte, haur baten aita eta emaztea beste haur baten beharretan, «maquisard» delako frantses sasi gudari batek tiroz kolpatu zuen, Larrungo mendian, Zizkoitze-menttako bidean. Bera Bidasoan izana zen lagun batekin jostunaren etxean ezta arropa neurrien hartzen. Etxerakoan biek kontrabanda piska bat ekartzen zuten. «Maquisard» delakoak ikustearekin, ihesari eman ziren bainan Pantxoa tiroz sabelean hunkia izan zen. Iturri-ederretarat bizkarrean ekarri zuten eta Larrungo lahatz-treinean jautsi Santiñazioko geltokirat. Hortik ereman zuten Donibane Lohitzuneko klinikarat. Operatu aintzin oraino mintzo zen, bainan odolusten ari. Loakar-arazi zuten, bainan ez zen iratzarri.

Euskaldun, eta kitto!

Garai hartan, Fraye izeneko nausi bat zen Azkaingo herriko-etxean buru. Bere harrobiko langileak izigarri gaizki pagatzen zituen, bainan bera «Framazona» zen. Harek zion le-

henago Elizaren kontrako liburu bat helarazi Piarres-i, ustez eta Ixabeleneko apez gaiak «bokazioea galduko zuen».

Gerlan ibili baten ehorzketa egiten zelarik, delako Fraye horrek bandera gorri bat ateratzen zuen. Pantxoaren ehorzketa bezperan alargunak eta Piarres-ek Fraye deitu zuten erraiteko zergatik ez zuten bandera gorririk nahi. Fraye ez zen agertu, eta geroztik ez zen gehiago ausart izan bandera haren agertzeko. Pantxoa ehortzi zuten beraz bandera gorririk gabe, eta nago Piarres Larzabal-ek ez ote zuen ber denboran ehortzi «Aberri Handiarekilan» zaukan lokarria.

Handik laster, Azkaine Xurio-ko plazan, Frantses «erresistentziak» zeremonia bat plantatu zuen Alemanen kontrako sasi gudian partehartu zutenen saristatzeko. Bertzeak bertze, medaila bedera errezebitu beharra zuten Aspirot Azkaingo auzapez berriak, Carrère herriko jaun bikarioak eta Piarres Larzabal-ek Hunek, behin betikotz eza eman zioten xingola eta medaila guzieri.

Noizpait jakin zen Pantxoa-ren tirokatzailea nor zen: Azkaindar baten seme bastarta, herritik urrun hazia, geroago bere nausi etxekandereak tiroz garbiturik sekulako galeretarat kondenatua. Herriko familia baten omenari kalterik ez egi-tea gatik, Piarres ixilik egon zen.

Apezetan ere badela orotarik

Hazparden hamar hameka urte bikario egon ondoan, uste gabeko lekurat erretor joaiteko mementoa etorri zitzaion Piarres-i. Gogokoa ez zuten Hazpandar jauntto batzuek, apez-pikutegitik ardietsi zuten «bikario gorri txar» horren Santa Grazia-rat erretor igortzea. Egundainotik Xiberoan sakatu izan dituzte «Manex»eko apez bihurriak. Baina gure jaunttoek lasterregi agertu zuten beren bozkarioa: Mirande, Hazparne-ko erretor zaharra, bera Zalgize-ko Xiberotar leiala, erne zagon. Ixilean norbait igorri zion apezpikuari, gutun batekin, erranez ez zezakela memento hortan onets izendapen hori; merezitu gabeko gaztigu bat iduriko zuela eta beharrez,

erretor xaharra bera joanen zitziola apezpikuari argitasun guzien emaitera. Hortan apezpikuak desegin zuen izendapena eta Piarres Hazparden gelditu orainokoa.

Gisa guziz eraikitzele

Ondoko urtean ordea, jaun apezpikuak eskaini zion beste lan neke bat Piarres Larzabal-i. Aitortu ere zion bertze askok eza emana ziotela ordukotz. Zortzi egun galdatu zituen Piarres-ek gogoeten egiteko eta zortzi egunen buruan bere baietza eman. Hola baita Piarres Larzabal izan Zoko-ko lehen erretor, 1951 tik 1979 arte. Horko oroitzenetaz badu berak liburu bat osoa eginik. Agian noizpait argitaratuko da.

Nihaur oroit naiz nola apezgai lagun zonbeit ari izan ginen, pala, pikotx eta orgatxoekin Zoko-ko eliza berriaren zimenduen ateratzen. Piarres orduan, ahal bezala bizi zen, prestatua zioten sala txar batean, hango belar eta sugeak bazterturik! Gela, bulego, salun, apain-leku denak han zauzkan. Geroztik egin izan du, bere gustuz, elizaren ondotik apezetxe pollita, bainan orduko, bere atea zabalik zaukan nornahiri, eta bereziki gose, egarri edo iheska zabiltzan guzieri...

Parropiako lanaz bestalde, badu Piarres-ek asko lan ibilirik Zokotik, arrantzalien, ijitoen edo industrilarien apez laguntzaile bezala, bai eta ere antzerki idazle edo kazetalarri gisa. Algeria-ko gerla denboran «Herria» astekarian argitaratu artikulu zombaiten gatik auzitegirat deitua ere izan zen, Piarres Lafitte adiskide buruzagiarekin batean.

1963 an bada Euskaltzaindian sartu zen Piarres Larzabal. Urte berean Michel Labéguerie, Ximun Haran, Jacky Abeberry, Michel Burucoa, Jean Louis Davant eta Michel Eppherre-kin sortu zuten «Enbata» mugimendua, berak idazten zuela maizenik, izen bereko astekariaren euskal editoriala.

Geroxago, euskaldun iheslarien sustengatzeko, Telesforo Monzon adiskidearekin antolatu zuten «Anaiarte» deitu elkartea, etabar... etabar...

Matalas

1967 an idatzi zuen Piarres Larzabal-ek «Matalas» antzerkia eta urrian bururatu. Ondoko udaberrian apailatu ginuen Monzon eta biok eta Baiona-ko teatro nausian eman.

Salaren alokatzerat joan nintzalarik, horko buruzagiak trufa aire batekin errezebitu ninduen: jadanik ba omen zuen lanik aski Frantses antzerki batekin ikusliarren biltzen. Pentsa orduan Euskal antzerki batekin!

Lehen emanaldian sala mukurru bete zen eta hiru ehun presuna kanpoan gelditu ziren, ezin sartuz. Biharamunean teatroko buruzagiak bere salun ederrean errezebitu gintuen: «Jar zaizte, Jaunak! Aitor dut ez nuela uste barda holako jendeketa bilduko zela».

Baiona-ko jaun apezpikuari salatu zioten antzerki hortan apezpikua emazte galdu baten adiskide bezala presentatu ginuela. Gezurra zen, bainan beste gezurrik ere entzun bide zuken Gobernadoreen karrikan bizi den gure jaun kargudunak: ondoko udazkenean Xiberoko Zalgizerat igorri ninduen, Matalas-en sorlekutik ez urrun. Geroztik hor nago, burua espalden ganean, Piarres Larzabal nere herritarra maiz gogoan, bihotz-altxagarri.

Urte askotan

Gaurko egunean osagarriak ez du hanbat laguntzen Piarres Larzabal. Parropiako kargua utzia gatik, Zoko ko apezetxean bizi da² Hegoaldeko Exteban, Belen eta beren lau haurrekin. Hauek «aitatxi» deitzen dute. Beste asko Euskaldunen «aitatxi» dugu Piarres, agian hainitz urtez!

Zalgizen, 1984-VI-2

2. Geroztik apezetxea ondoan Exteban eta Belen-ek egin etxe berria egin dute aldaira.

ARANA JESUITA URIARTEZ MINTZO

E. Knörr

Euskal-Erria aldizkarian, 21. alean, 1889 urteari dagokionean, 474-475 orrialdeetan, José Ignacio Aranak Uriarteren gorazarrez egindako poematxoa argitaratu zen, euskaraz eta erdaraz. Poematxo hori ia hogeitun urte lehenago idatzia zuen jesuitak, D'Abbadieren gutundegian ikus daitekeenez¹. Izan ere, Otsailak 23, 1869, Aranak D'Abbadieri honako gutun bat igorri zion Zarauztik (idazkera deusetan aldatu gabe ematen dugu):

«...moi je ne peu pas passé sans vous communiquer une des plus triste nouvelle, celle de la mort de notre illustre et savant et tres vertueux religieux Franciscain Joseph Antoine Uriarte. Ill avait reçu etant malade il i ha 12 ó 15 jours une visite de parte du prince Napoleon Lucien, et nous ne croyeons encore qu'il s'etai si grave: mais le vendredi passé 19 il hau une nouvelle attaque appoplectique et il se fournit avec bocou de tranquillité des Saintes Sacrements de l'Eglise. Je vous metre ici quelques petits vers en Basque et en Spagnol sur lui et sa morte le 20, Samedi à ouit heurre de soir».

1. Parisko Bibliothèque Nationale, Manuscrits, Correspondance d'Antoine d'Abbadie, *Nouvelles Acquisitions Françaises* 21746-48.

Jarraian, *Euskal-Errian* argitaraturiko poematxoak, baina Aranak erabiltzen ohi zuen ortografian, eta bazterrean distiko hau: «(Ἐπιτάφιον) Cantabricā princeps linguā et virtute refulgens / Ordinis hic Seraphim laus Uriarte jacet».

Beraz, Aranak Uriarte hil eta hiru egunetara eman zion berria D'Abbadieri. Ez dakigu, ordea, Uriarteren hilobia non den eta ea Aranak ezarritako hilartitza (Oihenartek bezala esateko) gordetzen duen. Gutunean aipatzen den ikustaldia Otaegirena da, Ruiz de Larrinagak argitaratu Bonaparteren gutundegian ageri den bezala².

Bestalde, Patxi Altuna adiskideari esker, Aranak bere *Egunari Jaincozcoan* Uriartez dioena ezagutu dut. Hona:

«20 Febrero, Sab. ...Santa muerte a las 8 de la noche del ilustre y santo Religioso Franciscano P. Fr. José Ant.º de Uriarte, 1er vascófilo contemporáneo de España, eminente por su virtud y sabiduría, después de recibir con mucha devoción todos los Sacramentos propios para el tránsito a la la Dichosa Eternidad.

21 Dom. II de Cuaresma. ...*De profundis* al ilustre finado Fr. José Ant. Uriarte de cuerpo presente en su celda, do entregó su alma grande y hermosa al Señor à noche a las 8 (La celda es la de arriba o 1.º piso ángulo del convento, con ventanas à la huerta). Era el finado natural de Arrigorriaga de Bizcaya. Ha fallecido à los 55 ó 56 años sucumbido por sus trabajos mentales; gran misionero, 1.º vascófilo de España y santo Religioso. Su bula *Ineffabilis* en Bascuence de Bizcaya, la vemos en la celda del finado con el P. Epelde. Id. el *Diccionario analítico* del Bascuence o lengua bascongada por Salcedo Novia, manuscrito en 4 tomos.

22, Lunes. ...Entierro solemne del V. Fr. José A.º Uriarte (Q.E.P.D.).

2. *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, 14 (1958), 439. orr. eta darr.

23, Martes. ...Pequeña poesía vasco-castellana à Uriarte (Q.E.P.D.)».

Altunaren beraren berrien arauera, Arana Zarautzen bizi izan zen 1869 urte hasieratik 1870 urteko Abuztuaren 9 arte, Aita Txomin Landarekin eta anaia laguntzaile batekin. Herriko umeei Gramatika irakasten zien. Hara bizitzera joan eta hilabete eta erdi baten buruan gertatu zen Uriarteren heriotzea. *Egunari* horretan, ordea, ez da lehen aipaturiko poematxoa ageri. *Ineffabilis* bulda, Uriartek Markinako euskara itzulia, moldiztegian dugu, nota labur hau idazten ari garen unean, La Lagunan, Juan Régulo Pérez-en gorazarre-liburuan («La Bula *Ineffabilis* en vizcaino por Uriarte (1864)»).

Lenengo «benda» eta xamar degu, zoko galdu da. Arri
man dala emen dijon).

..... bakoitza bina bertan bostku ditu.

Urtegide: Ara zertan lau eman dituen
Lenex neokata goguan,
Benda zer eman puzatuko
Toki txarretan neoguan.
Euskaldun asko ezbagerade
Zabaldurken munduan,
Banaka batzuk juntatu yera
Gaur, azar, «karreri» oaduan,
Bada eztabait urrutinetko
mota zuek zer diti.

I. Ixas argitaratu zuen txapelaren zerikuz J. Zuriaga zaren
argitaratzen aurreratik eta Euzkaltzandiarren Arriko Bibliotekan, eta hie
argari eta zela idazten balizuek hura berain eguzen barielaketa
«Euzkaltzandiarren» argari.

21. Martes. ... Pedregal de los castillos de Urdice
(O.E.P.D.)

Almuerzo de la tarde en el convento de San Juan de los Rios. El almuerzo se hizo en el convento de San Juan de los Rios, en el que se halla el sepulcro de don Juan de los Rios, conde de Urdice, fallecido en 1770. El almuerzo se hizo en el convento de San Juan de los Rios, en el que se halla el sepulcro de don Juan de los Rios, conde de Urdice, fallecido en 1770.

22. Martes. ... Sab. ...

Almuerzo de la tarde en el convento de San Juan de los Rios. El almuerzo se hizo en el convento de San Juan de los Rios, en el que se halla el sepulcro de don Juan de los Rios, conde de Urdice, fallecido en 1770.

21. Dom. II de Cuaresma. ... De protocolo al huerto de San Juan de los Rios. El protocolo al huerto de San Juan de los Rios, en el que se halla el sepulcro de don Juan de los Rios, conde de Urdice, fallecido en 1770.

22. Lunes. ... Batierro de los Rios de V. Fr. José A. Urdice (O.E.P.D.)

1. Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Ciencias del País, 18 (1878), 439. arr. etc. darr.

PARIS'EN IZAN ZAN
BERTSOLARI-SAIAKETAREN AZALPENA

1958¹

Lenengo «banda» uts xamar degu; asko galdu da. Artu izan dana emen dijoa).

..... bakoitzak bina bertso botako ditu.

Uztapide: Ara zertxo lan eman didaten
Lenez neukana goguan;
Bestela zer esan pentsatzeko
Toki txarrean nenguan.
Euskaldun asko ezbagerade
Zabaldurikan munduan,
Banaka batzuk juntatu gera
Gaur, emen, alkarren onduan,
Baño eztakit urrutineko
anaia zeñek nun duan.

* * *

1. Inoiz argitaratu ez den txapelketaren agiriok J. Zaitegi zenaren paperetan aurkituak dira Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan, eta historiari zor zaiola iduritu zaigunez hara hemen *Egan*-en orrialdeetan (*Argitaratzaileen oharra*).

Nagusi batek agindu zian
Nik kendu biar txapela;
Badakit orren aurka
Itzik ezin egiñ ditekela.
Euskaldunak txit gutxi gerade,
Len ere esan det onela,
Danak banatzen gerade berriz
Ardi galduak bezela;
Danak batera juntatu arren,
Pixkat indar gaitzela.

Basarri: Peris'ko euskaldun jende jatorra,
Ara ementxe batuta,
Anai-arreba pranko badegu
Gaur onuntz inguratua;
Ameriketan zenbat dabillen...
Etxetik urrutiratua:
Egun onetan aiekin degu
Gorputza eta gogua.
Jaunari esker egin baitegu
Emen biltzeko modua;
Era ontako alkartasunez
Alaitzen da mundua,
Berriz ere autatu zagan
Onelakoxe lekua:
Irrintzi eta zantzo egiteko,
Iritxi baita ordua.
Bertsolariak ager gaur goitik,
Bertsoa eta kantua,
Eman eta zabaldu dezagun
Mundu guzian frutuba.

* * *

Arrantzaliak boga ta boga
Beti itxaso aundian,
Artzai mutilla txistu ta kanta
Or ikusten da mendian.
Nekazariak beren lurretan
Ari baitira lanian,
Igande egunez gu euskaldunok
Ementxen aldamenian,
Bein biar eta gure erria
Dago umore onean,
Eguzkiare dizdiratsu
Goizetik zeru gainean,
Auxen da poza kabitu eziña
Edertasun au ikustian.
Zar eta gazte aundi ta txiki
Guziok alkartian,
Maitetasunez bildu bai gera
Gaur festa eder batean...
Anai arrebak ezta bildurrik
Ola gabiltzen artian.

Mattin: Bertsu lanari asi bear dut,
Zabal dituzte atea,
Eta ni ere bortxatua naiz
Dakizkidanak erraiteak.
Eskualdun seme ta alabak zaitze
Batzuek eta besteak,
Eskual-Erriko amodioa
Biotzak ongi beteak,
Nere partetik agurtzen zautzet
Anai arreba maiteak.

* * *

Bakar batzuek emen bagira
Eta Urruñe'n bertzeak,
Denak batian bagine emen
Ezleizke gure kalteak.
Ameriketan zenbait baditu
Gure anaien parteak,
Nere biotzak kasik lertzen du
Ez emen izaiteak...
Radioan bidez agurtzen ditut
Batzuek ala bertzeak.

Xalbador: Gaur emen eman bear nituzke
Kanta batzu bereziak.
Dudan ahala tipitzen dean
Nondik ezin aziak.
Aldakit ere aste-astetik
Guzieri gorantziak.
Agurtzen ditut emengo euskaldun
Eta etxian utziak,
Batere berex ere eman gabe
Munduan dauden guziak.

* * *

Ene biotza zabal baneza
Artuko nuke atsegin;
Erabez nago urturik
Eta nahi dizuet egun ezin.
Oi eskualdunak egin dezagun
Gure botu edo gaurtzi,
Ez du inporta bat emen eta
Bertzia an bizi dedin,
Biotzez bederen alkartu
Eskuara bat egin dadin.

Jaun-andreak: Biotz-miñez astera niyoakizue bigarren saioa zuei presentatzera. Biotz-min ori aundiagotu zait Dasanz jauna emen ikusita. Urterik urte eta txapelketaz txapelketa, gaur ohoratzen degun gizona, apeza, eta Dasanz jauna beti alkarrekin baiziran. Dasanz jauna emen ikusirik etzait iruditzen Oxobi jauna bazterren batean ikusi bear ez dedanik. Bañan zoritxarrez ala da. Otoitz egin degu goizean bere ohorez eta orain bertsolariak eskeñiko diote beren omena.

Bertsolariei itza utzi aurretik bertso batzuek irakurri nai ditut; Oxobi zanak bere adixkide Monseñor Saint Pierre ill zanean onen oroitzapenez idatzi zitun bertsuak. Oxobi jauna ezagutzen zenutenok ikusiko dezute beriala olerki au entzutian, bera emen balitz bezala dela: ezbaita beste iñor Oxobi'k bezala idazten zuanik Gaur goizean Txarritton jaunak erraiten zigun Arrangoitzera joaten danean eta ango xantrea entzun beti berdin iruditzen zaiola: «To, Oxobi emen dek». Olako olerki bat irakurtzen dezutenean bai erran daitekela: Au Oxobi da, beste iñork ezin dezake ola idatzi. Entzun Oxobi jaunak, Oxobi zanak, Monseñor Saint Pierreri eskeñi zion otoitza; eta itz beroiek artuta Oxobi'ri eskeñiko dizkiogu. (Ernandorena'k itz oien ondoren olerkia irakurri du. Ez det artu, berak izango baitu).

(Olerkia irakurri ondoren beste itzok esaten ditu Ernandorena'k).

Orain irakurriko ditut beste bertsoño batzuk. Oxobi ill zanean Larreko izenpetzen duanak eskeñi zizkionak.

(Larreko'ren olerkia).

(Emen bukatzen da lenengo «banda»).

(Lenengo «banda» eta bigarrenaren artean Uztapide'n jarduna falta da; Oxobi'tzazkoa alegia. Basarri'renarekin asten da bigarrena).

Basarri: Oxobi jaunak idazten zuben
Oso xamur eta erraz,
Alegi edo ipui batzuek
Emanaz egi tankeraz.
Itz guziak ondo josiak,
Aparta baizan joskeraz;
Gaiak erabiltzen zitun
Nai zuen aukeraz,
Euskaldun danok arenganako
Zorretan gaude gaur beraz;
Illa zala jakin-ta
Guziok gelditu bai giñan penaz.
Zer galera guk beste mundura
Gizonaren irteeraz:
Arek baizuan almen bizi bat,
Izana beti bere eraz,
Lafontaine eta Samaniego
Bizkor baiziran erderaz,
Baño Oxobi añakorikan,
Izan al degu euskeraz?

* * *

Luto edo doluz gelditu ziran
Basuak eta mendiak,
Negar egintzun artzai mutillak,
Ta negar arrantzaliak,
Askoz geiago liburutatik
Dauden gizon ikasiak...
Oxobi zein zan bear bezala
Eztaki mundu guziak.
Tristetu giñan zarrak eta
Tristetu giñan gazteak.
Gizon ura beste mundura
Zijoala ikusteak
Zartada aundi bat eman baizigun
Oxobi'n illen berriak...
Geuk ez dakigu zer gizon
Galdu digun Euskalerriak.

Mattin:

Oxobi zertzen nik eztut segur
Irakurtu liburuan,
Ameka aldiz gertatu bainaiz
Apezaren inguruan.
Ori ikusita gaiztoa al zela
Ya askotan nindagoan,
Baño segurki probatua du
Ongi ikusi onduan,
Biotz obeko gizonik ba nik,
Eztut uste munduan.

* * *

Jinkoak emanik gizon bakotxak,
Baitu bere alderdiak,
Partikularrak izandu ditu
Gure Oxobi aundiak.
Eskuara maite zuela dakit,
Eta maite bertsolariak;
Ortaz oroitzuz orain emen,
Bustitzen zaizkit begiak.
Etzazula, otoi, iltzeraz utzi,
Eman diguzun argiak.

Xalbador:

Oxobi zena maiz ikusi dut
Ezbagin edo lilletan,
Bertsuak ere egin izan dut
Berarek eman-gaietan.
Arren erranak kunplitu ditut
Beti danik leietan,
Aren soinua oraino ez da
deuseztu belarrietan.
Zure itzala ez da joanen
Oroitx Eskualerrietan.

* * *

Lehen-lehenik zure aurrean
Nintzan bertsutan ni ari,
Eta oroi naiz zer gai zuk ere
Zinez dautazun ezarri.
Zu ikusteko so egin bear
Dugu orai zeruari.
Orainik ere zure laguntza
Gainetik bedi etorri:
Zaude zerutik Oxobi zena
Gure urratsen gidari.

Kopa au Euskal-Kulturaren Alde deritzan batzordeak emana dezute. Bi eman zituan. Bat Urruñ'a'n jokatu zan eta Basarri'k irabazi zun. Beraz, gaurko saio ontan, Basarri'k leiaz kanpora kantatuko du, baño nai izan du kopa ori utzi, beste iruak irabaz dezaten: onena izaten denak. Au izango dute gaia: Zer egin leitekean euskeraren galtze izugarri onetan, eta zer egin leitekean olako itxura txarretik goratzeko, altxatzeko, edo berpizteko. Beraz, Uztapide asiko da eta besteak segituko dute, baino Basarri'k kantatuko du, esan bezela, konkurretik kanpo... Gaia ez baitute ondo ulertu: Euskera, dagon larritasun aldi ontatik altxatzeko edo goratzeko zer egin liteken. Bina bertso.

Uztapide: Ara nundikan egin diraten
Berriro ere imurtzi,
Badakizute, iuian esanik,
Ezin egin gabe utzi.
Gaur desgraziz, bai,
Itzegiten da euskeraz
Denen txit gutxi.
Orla bagoaz izkuntza galdu
Bear da biar edo etzi;
Geuk dakiguna egiten jarri
Eta dakiguna erakutsi.

* * *

Ia argitzen degun ba denok
Gure memori ariña,
Euskera bizirik eukitzeko
Badaukagu zer egiña.
Eta siñistu zein dan be'a
Bezin garbi ta berdiña,
Seaskan giñan artean gure
Amak goxo itzegiña.
Orreri eusten saia gindezke
Seme jatorrak bagiña.

Basarri:

Pamilietan egin bear da
Izkuntza asko ugaldtu,
Umetxoari ere erakutsi
Sekula ez dedin galdu.
Eriotzatik laxter atera,
Eskola asko zabaldu,
Gure euskerak iraut ezkeru
Orixen egin bear du.

* * *

Etxeko gauza utsakin gabiltz
Ta badegu milla neke,
Beste izkuntza bat
Ola non dagon
Nik ori jakin nai nuke.
Prantzezez eta inglez ez
Laguntzik ez balitzake,
Gure euskera dagon bezin
Gaxo egongo lirake.

Mattin:

Pena aundia eman lezaken
Eskuara onen galtzeak,
Ontan ari nai zaituztet
Oroi guraso maiteak.
Kargatzen zautzet
Eskualdun gixa
Unen irakusteak,
Lenik eskuara trebe zazute
Otoitzen aur maiteak.

* * *

Nik ere ondo konprenditu dut
Basarri unen errana,
Bainan eskuara nere gustoko
Lehenik gurasoen lana.
Gaurko eskolak bertze lekutan
Izpiritua be ama,
Lengo aietan erran leitake
Oin goxoki «oi ama».

Xalbador:

Prantzezez mintzo entzunetanik
Ezin naiteke konsola.
Bai, eskuara salba ditake,
Erranen daitzuet nola.
Aurak eskuaraz mintza daitezen
Beren seaskan daudela;
Gure penian beti aisiago
Legatzen baita arbola.

* * *

Oi eskuara gauza ederra,
Nola baitzire gurea,
Gaur erazoak datzal bateko
Ezetz ilerik batea.
Zuri urbildik jarrai dabillen
Jinko Jaunaren legea,
Bai eskuara galdu litake
Lagun ezbalu berea.

Aski degu eta gai serioetatik par pitin bat egiten asi bear degu. Onuzkero zaletuta baizaudetzte. Asiko zaizkizue Basarri eta Mattin. Alaba oso moñoña daukan gizon bat da Basarri. Mattin berriz gizon gazte bat dezute, artakua, eta Basarri'ren alaba moñoña ori nai luke bereganatu. Beraz, Mattin asiko da eta bere moñoñaren aitari presentatuko zaio.

Mattin: Bertso bat preparatu dut nik zure galdetzat, Asko eta egiak baitira ametsak.
Una orain zer dion, Gaur ene biotzak,
Emanen nauzun alaba zuk otoi andretzat?

Basarri: Ixilikan ez degu luzaro iraungo,
Ai, nere alabatxoa ain moñoña dago,
Au atzetikan zebillen gaur baño lenago,
Alperrikan zabiltza, ez dizut emango.

Mattin: Zuk ola erran arren, ez du ez inportik,
Galdia egina nazu ni nere partetik.
Alabak maite bainau biotz-biotzetik,
Noizpait konponduko gira gu aitarengatik?

Basarri: Aspaldi somatzen dut alaba atian,
Egunez ezta atrebitzen baño arratsian.
Metro ta laurden ezta izango luzian;
Olako sua zertako det ba nik etxian?

Mattin: Okasio untaz bez baliatu,
Enaiz kalkulik egin gabe, aita, abiatu,
Izpirituzko gauza baitut nik miatu,
Bertzela ezin dezaket kaltza kanbiatu.

Basarri: Sarritan ditu onek ertera trebiak,
Edozer esaten baitu lotsikan gabiak.
Arrosarenak daduzka arek koloriak,
Sobrere badauzka zuk baño obiak.

Mattin: Beti gaizki artzen nau galdea emanda
Alere Basarri ezta eina obea antza;
Alaba alde daukat baina kontra daukat aita,
Erran ezdaki, zuretzat zertan dutan nik falta?

Basarri: Batzutan txarrian eta beste batzutan on
Munduan bagera onelako amaika gizon,
Lenago ni onekin bromaz asarre negon,
Berakin konpondu zaite nigatiz or konpon!

Mattin: Ezkontz ori bear diogu oraingoak utzi,
Ni zure mutil bainaiz, zu berriz nausi.
Alkarri karraxutarra bear dugu utzi,
Ni suitzat izan eta pakean biak bizi.

Basarri: Aspaldin ezdut eduki onelako plantik,
Gure artian ezta paltatuko kantik,
Aitak lagunduko dio emen edo ortik,
Bera portatzen bada neri ezdit inportik.

Oraingo izango dira Xalbador donado edo multil-zar eta
Uztapide gizon ezkontdua:

Uztapide: Emandako suietarik ezin emen kendu,
Ta Ernandorena jaunak auxe esaten du:
Ni nintzala gaur baño lenago ezkontdu;
Onek egitekotan garaia omen du.

Xalbador: Ezkontu oien berri ikasi dut beti,
Baño gorrotorikan ez diotet atxiki,
Au ikusita ola postura egoki,
Zu etzira bizitzen ni baño obeki.

Uztapide: Ezkontzen saiatu zaite zu egiñalean,
Nola akabazko tratu ortan estalian,
Mutil-zar asko gaizki mundu zabalian,
Amarretik seik lo egin oi dute kalian.

- Xalbador:* Bañon alegre azaldu lo egin da gero,
Ostian ongi izatia ezpaitu espero.
Mamurrez bizi zerate ezkonduak oro,
Nik eztut nai korbatikan naiago dut libre.
- Uztapide:* Berriz ere erantzun bear dizut bereala,
Ezkondu obe dezula nola edo ala.
Gaur bizkor egon arren zartzera makala,
Atzen orduan izango dezu ospitala.
- Xalbador:* Zu ezkontzean arritu izan zen mundua,
Laguna artu zinuben egin gabe ordua.
Xalbador prantxarik gabe beti aintzina dua,
Naiko zentzun artzazu zeaturen burua.
- Uztapide:* Lagun gera-ta, itzegin bear dizut suabe,
Gero zartzian izan ez dezazun naigabe.
Ezkondata ezta egiten milloiairen jabe,
Baño ez leike ondo bizi emakume gabe.
- Xalbador:* Gazterik artu zenuben lepotikan soka,
Alta begiratzeko ariz nintzaizun otoizka.
Tabernan edan eta zerbeza edo kopa
Etxerakoan segur dezu andriaren mokoka.
- Uztapide:* Zuk ere esanda ezdauzkat oiek ikasiak,
Eztira ezkondata ongi bizitzen guziak,
Batzuk daude matrimonio ziara ausiak
Baño errieta oiek dira ongi mereziak.
- Xalbador:* Barnatago Uztapide nai nuke sartu
Ni donado zarra naiz geiau nai dut sartu,
Etzazula gero gaizki enegatik sortu,
Pakiaz nai duenak ez andrerikan artu,
- Uztapide:* Nik urrutitik ditu gauzak ikusitzen
Eta zure asi zaite nigan ikasitzen,
Laxter asten ez bazera semiak azitzen,
Lan txarra da zartzian itxuran ibiltzen.

Xalbador: Donadotako gogoia deraukat nik sano,
Pakean edanen dut zenbait baso arno,
Ezkontzerik ez dut pentsa iñoiz egin bano,
Donado obe da gaizki ezkondurik baino.

Lenengo partia bukatuko degu oraingo saiaketa onekin.
Lauak jardungo dira errezkaran, batek asi eta bestiak segi,
bertsu bukatu arte. Beste seien bat saio egingo dituzte. Lau-
na puntu.

Uztapide: Orain bertsuari eman danek puntu bana,
Basarri: Orrela egingo degu komeni dan lana,
Mattin: Nik ere segitu bear lagunek errana,
Xalbador: Biziri dadin pixka bat jana ta edana.

Basarri: Guk zerbait esan-eta jende dana irriz,
Mattin: Gu ere etorriko gaituk leku unta berriz,
Xalbador: Nik ere ez dut arantiko ixta bat ezbaiz,
Uztapide: Bai ibilli baziñan oraingo ontan neurriz.

Mattin: Xalbador ez alda ba neurriz ibillia?

Xalbador: Eztaukat errukutirik gaurko itzulia.

Uztapide: Atzo bazun eraririk ezin estalia,

Basarri: Jaunari esker urruti daukat familia.

Xalbador: Zubek ere or ziñaten Xalbador bezala,

Uztapide: Ez det uste ni zu bezela jarri nintzala,

Basarri: Gauerako pentsatu xelebretu zala,

Mattin: Muxurtzen bai gu sarri nola edo ala.

Uztapide: Ori zerbait baldin bada gu bere lagunak,

Basarri: Noiznai eztira izaten olako egunak,

Mattin: Serioz ibiltzeko ez kai etorri aguna,

Xalbador: Ni txarra naizela baino auek ere ez unak.

- Basarri:* Moko beraka zioz or dagon txoria,
Mattin: Ori ere emateko da jaun aun etorria,
Xalbador: Orren kolorea zer da beltz edo oria?
Uztapide: Ez egiz tiroak emanda orrela eroria.
- Mattin:* Xalbador'ek ez aldaki tiroa tiratzen?
Xalbador: Uxoeri beintzat ez dut bertzerik bilatzen.
Uztapide: Nora tira bear zaion ez du begiratzen.
Basarri: Punteri ona daukanik nik ez dut pentsatzen.
- Xalbador:* Zuek tiratzen duzute naiko astiro
Uztapide: Nik ondo jotzia naita eman iten tiro
Basarri: Paris-era ez omen dator berriro
Mattin: Olako lagun artean ezta beti giro.
- Uztapide:* Beraz lagun tarte untan ez dago atsegin
Basarri: Olakoakin obe da batere ez itzegin
Mattin: Untsa mintza baño errexo baita emen utsegin
Xalbador: Kanta dezagun laster ta gero alde egin.
- Basarri:* Radiatua ote da gaurko saioa
Mattin: Nork estimatu bear dik onen balioa
Xalbador: Toki ontan bero bada zabaldu leioa.
Uztapide: Au kanpotik entzuteko ez da serioa.
- Mattin:* Denek ongi algaituzte emen konprenditzen?
Uztapide: Egiten bagaituzte ere ez gera arritzen
Xalbador: Gure aldak eta lanak ezta errez biltzen
Basarri: Bertsolariak nagusi dira gaur Paris'en.

Jaun andreak: orain saiaketa au ebakiko degu amar minutu inguru. Bainan motz aintzinetik, Etxaun jaunak nai ditu bertsoño batzuk zuzendu Oxobi zanaren omenez. Berak ez-paititu leno kantatu:

(Etxuan'en bertsorik ez dut ezertxo artu)

Irugarren «bobina».

Bigarren saiaketari asiera ematera goaz. Banan kantatuko dituzte bina bertso gai onetzaz: Euskal-Erritik kanpo beren etxea utzirik, Paris'era edo Ameriketara dijoan seme bateri zer konseillu eman lezaizkioken. Beste lerro ortatik asiko gera eta lehen-lehen Xalbador asiko zaizue.

Xalbador: Etxeko naiz bildutzen baina
Uste zaitut azkenian,
Oi seme, zure amentsak dire
Aspalditik urrunean.
Ez duzu egon nai izandu
Geiago Euskal-lurrean,
Zapi txikidun atzen au gabian
Utzi duzun leku berian

Ene semia tristatzen naizu
Erraiten dautzut egia,
Eta nondikan atera diken
Oroitu beti ahala.
Amets ederrik eginen duzu
Lotan zaudelarik gabaz
An ondo bizi eta
Oroitu beti Eskual-Erriaz.

Mattin: Aita batentzat lasa ditake
Seme baten partiria.
Len asko dan lekuan
Gizon batek egin dezake bizia,
Bainan goguan artu semia
Aitak erakutsia:
Biotzan barna atxi dezala
Gurasoak eta etxia.

Seme bat partitzen delarik
Aita dago penetan.
Ezdula ikusiko ixtan bateko egunetan
Bainan agur egiten dio
Nigarra begietan:
Eskualdun zintzo ibilli adi
Leku guzietan.

Basarri:

Amerikara zoaz seme beriala
Eta siñistu zazu
Miña artzen detala.
Ogia jango dezu nola edo ala
Betiko goguan izan
Gu emen gaudela
Eta etzazula aztu
Euskaldun zerala.

Uzten dezu basua,
Berbertan mendia,
Eta bakar bakarrik
Zure aita maitia.
Egin bedi Jainkoak
Dun borondatia
Seme atxiki gogor
Euskaldun legia
Eta ez beintzat utzi
Zere jatorrizko fedia.

Uztapide: Seme euskaldun bat doa
kanpora etxetik,
Ta aitak zertxo pena
Duen biotzetik.
Bere izena eman
baizion sortzetik,
Bere abenda ona
Ez galtziagatik,
Aren bidean segi
bedio geroztik.

Dirua irabazten da
Kanpoko langintzan
Bañan ez seme aztu
Utsaren perkisan;
Seme on bat bezela
Sar zaitetz eleizan,
Lagunakin portatu
Euskaldunen gisan,
Ta gurasoak ere
Ez aztuak izan.

Jaun andreak: Iduri zait bertsolariak erabili duten gai au garrantzi edo inportantzi aundikoa dela. Beraz, berriro, gai erabili aziko diet, baina beste modu batean. Aitak kon-sellua ematean bere ondoan izango du semea erantzuteko. Eta bestalde, amak bere ondoan izango du alaba. Bertsolarien gogua guztiz azkarra baita, iduri zait; mementu batez ama izateko edo alaba izateko ez dute eragozpenik izango. Bainan suieta ez baita berdiña, nik emen bateri eman diot numeroz bata, bestiari bia; emango ditut binazka Basarri eta Mattin, Uztapide eta Xalbador.

Basarri da aita eta Mattin semia. Etxeko jaun da Basarri eta semea, Mattin, urruti partitzen zaio etxea utzita.

Basarri: Beti izandu zaitut
Semerik maitena
Orain zu joatiak
Ematen dit pena
Lutoan geldituko
Zaigu etxe dena,
Badakit urrutira
Laxter zoazena;
Etzazula zikindu
Aitaren izena.

Mattin: Iri ibilliko nauzu
Zuk eman bidian,
Bañan gu ezin bizi
Gaur erri berian.
Ni beti ametsak
Nabilka aidian,
Gauzak ikusi nai
Kanpoko aldi
Nola bizi den jendia
Mundu zabalian.

Basarri: Sarritan joan zaite
Eliza bidera,
Zure aita zarra joaten
Zan oitura bera.
Oroitzapena luza
Andikan onera,
Biar edo etzi aita
Egiten bazera,
Zure aur maitieri
Erakutsi euskera.

Mattin: Ya abiatua naiz
Mundu untan barna
Konplitu nai baitut
Goguan dedana,
Gu gerta bagintzazke
Aita eta ama,
Eskuara irakustiak
Badu sobra lana,
Semia igorriko dut
Aitatxirengana.

Basarri: Bear bada izanen
Duzu milla neke,
Bizimodua iñun
Gaur eztago merke,
Zu gizon ibiltzia
Orixe nai nuke,
Arrixku asko dago
Ta begiak erne
Besarkatutzen zaitut
Eta agur seme.

Mattin: Orai ba bertziaren
Uztera goazan,
Munduan urte batzuk
Nai nituzke pasan,
Beti aita leiala
Zu izandua za
Baldin nolakoa naizen
Oroitutzen ba'za
Semian izan beti konpiantza.

Uztapide ama eta Xalbador alaba:

Uztapide: Zu sortu ziñanetik
Ni naiz zure ama,
Lenbiziko asnasakin
Nintzan zuregana.
Jaiotzatik doaia
Ustez nun emana,
Orain kanpotan egin
Bear dezu lana,
Goguan artu zazu
Gaur amak esana.

Xalbador: Gure Jaunak zerutik
Urrika gaitzala,
Saia gaiten ortara
Guk egin ahala.
Badakizu betitik
Zurea naizela,
Nauzuke arkitu
Semean itzala
Nik etzaitut utziko
Semiak bezala.

Ez dute ene iritziz ondo konprenditu. Uztapide da etxian gelditzen dan ama eta Xalbador urrutira dijoan alaba. Kantatu duten bertsuak ez dute balio eta berriro asten dira:

Uztapide: Lenak balio ezpadu
Asiko naiz berriz,
Alaba, oraingo au,
izango da egiz.
Zugan bustitzen nago
malkoz ta izerdiz,
Beti gogora zaitez
Begirapen aundiz,
Len esan dizudana
Makiñabat aldiz.

Xalbador: Eztu balio ama
Astia negarrez.
Beti izandu zira
Aundia indarrez.
Atzotan idukia
Kontu eta parrez
Etxian bizi ginen
Bizimodu txarrez,
Nola daukazun karga
Arindu bearrez.

Uztapide: Etxeko pekatu-rik
Ezleike estali,
Erantzun txarra alaba
Ez dezu biali.
Bai, ez gendun egitan
Egunero bijilik,
Egonduagatikan
Sei zazpi pamili.
Zu an bear badezu ere
Itxuran ibilli.

Xalbador: Joaiteko itzaia
Lengoan dut artu,
Itzultzen naizeneko
Ez otoitza aztu,
Zuen karga nai nuen
Parte bat nik artu,
Ezin bizia baizen
Etxian maiz aitu,
Gaurtik goiti alabak
Lagunduko zaitu.

Uztapide: Bizi bearrak ditu
Milla eginkizun
Badakit alaba nik
Zer esan diazun.
Kanpoan ere izan
Zazula osasun,
Badakizu zer pena
Ematen didazun,
Goguan izan bularra
Zeñek eman zizun.

Xalbador: Ez da txista ematen
Ez dun elorririk,
Kasik urriki izan naiz
Mundura etorririk,
Ama etzinuen zuk
Penaren bearrik
Nai etzaizut egingo
Egitate txarrik,
Maitatuko zaitut-ta
Ez egin negarrik.

Uztapide: Nik eman dizut zuri
Munduan argia,
Badakizu alaba
Au dala egia.
Zuk joan bearrak nauka
Negarrez jarria,
Ez izan beintzat mutil
Zarraren nobia,
Bestela galdu da ama
Ta Euskal-Erria.

Xalbador: Ezkontzaren berriak
Indaizke onduan,
Beintzat egun eztaukat
Olakoik goguan.
Artaz ere leiaren
Beartzerakuan,
Balia zaizkit ama
Aitaren onduan
Nola Ama Birjiña
Eiten den zeruan.

Aski orain gai seriosoekin. Berriro par pixka bat egiten asi bear degu. Bada gai bat Urruñe'n erabilli zutena; etzait atsegin gai bera berriro ematea, bainan Urruñe'n gai ori erabilli zutenak Basarri eta Mattin izan ziran. Beraz ongi da egun gai ori Uztapide'ri eta Xalbadorreri ematea. Badakizute emazteak izaten dutela batzuetan gona luziaren moda eta bes-tetan izaten dutela gona motxarena; berak jakingo dute zergatik. Uztapide'k kantatuko du gona luziaren alde eta Xalbador'ek gona motzaren alde. Eta oar bat egin nai nizuteke. Ikusi duzute nolako gai seriosoa erabilli duten aistian bertsolariak; gai berri onek erakutsiko dizute noraño irixten dan bertsolariaren doaia, zeñen errazki pasatzen dan suieta batetik bestera. Lenago biotza samurtu digute; orain irriz lertu eraziko gaituzte. Badakizute danok gona zer dan prantsesez: *jupe*. Beraz Uztapide'k erabilliko du itz au: gona, ezbaitu beste itzik ezagutzen. Kontu artuko dezute ba: Uztapide gona erraten badu erran nai du zaia.

Uztapide: Len serio giñan
Baño orain datoz bromak,
Aztu dirade emengo
Izketa sakonak.
Xalbador'i gustatzen zaizka
Motzak gonak,
Baño oiek negurako
Ez dirade onak.

Xalbador: Nola neska gaztiak
Ezpaitauke otzik,
Eta bere edertasunak
Gorde ezin atzik.
Gonak ezditzala gorde
Pantorrillak baizik,
Gaiñekoak ez dira
Trabatzeke baizik.

Uztapide: Euskaldunentzako izan
Leike beti lotsa,
Soñian jantzitzia
Oso gona motza.
Bildurrez jartzen zait
Neroni biotza,
Sartuko zaizutela
Ilbeltzeko otza .

Xalbador: Ez pentsa gona motzekin
Nabillela merkez,
Politago izateko
Nabil nere ustez.
Luzeak diranean
Korritzen da nekez
Ta orrek andria zartzen du
Ogeitabat urtez.

Uztapide: Gazte ez dira urte
Askoan biziak
Nik era askotakoak
Ditut ikusiak
Gona luziak dirala
Jaunari graziak
Orrek tapatzen ditu
Gauza itxusiak.

Xalbador: Nik eztut erabilliko
Oin luzeko gonik,
Orrela ez dut billatu
Espero gizonik.
Ez egin jaun Uztapide
Orrengatik penik,
Zuk zango itxusia duzu
Nik ez dut obenik.

Uztapide: Ara gonaren kontuan
Nolako naspillak,
Nik bezela ikusten du
Neska au millak,
Erakusten baditu
bere pantorrillak
Izutu eta igesi
Joango ia mutillak.

Xalbador: Gaur gai asko erostia
Ez da berriketa,
Ni gona motzakin nabil
Ez ortaz kinketa,
Gona luziak asko
Oial bear du eta,
Nik artarik egiten dut
Gona ta txaketa.

Uztapide: Azkenekoa dijoa ta
Igesi esperoan,
Gona motza da
Denbora beroan,
Baño otzak iltzen beti
Ilbetz-Abenduan,
Ola ibilli ta gañera
Sartu ezin zeruan.

(Sail ontan bada Xalbador'en beste bertso bat, azkenekoa, artu ezifiekoko izan zait. Eta saiaketaren bukaera dator, baño azken «bobina» mutu atera da.)

NOR DA DR. HERNANDORENA?

Paris-en 1958an Bertsolari Txapelketa eratu zuen Dr. Hernandorena, larogeta zazpi urte beterik, oraindik bizkor bizi da Hondarribiako Higer faroaren inguruan. Hark argi egitekoa baldin bada, jarrai dezala luzaroan. Izatez, gorputzez ez handia, argala baina gihartsua, azalez beltzarana, buru galbarra baina argia, ongi jantzia eta bizia. Elkarrizketarako gizon atsegina benetan.

Euskaltzale paregabeari zahartzaro egokia etorri zaio. 1982an, Tauer osasunez ahuldurik zegoela jakiteaz Praga-raino joan zen euskaragatik hainbeste egin zuen atzerritar hura pertsonalki ezagutzearren. Igaz, 1984aren udaran, Tokio-ra eta han Suzuko Tamura-rekin izan zuen bazkalondoko ihardunaldia bere bizitzako oroitzapenik hoberenetakotzat gordezten du.

Zizurkilen jaio zen eta Zarautzen, 1920.aren inguruan, batxillerra egin ondorean abertzaletu, baina Zaragozan medikuntza ikasketak egiten ari zela jabetu zen gure kultura bereziaz. 25 urtekin Billabonan mediku izan ondorean Madrid-en bi urtez aritu zen dentista espezialitatea egiten, 1930ean Donostian kokatzeko. Errepublikan etorreran (1931) abertzale alderdian bazkidetzea erabaki zuen. Handik laster, pare bat urterako, Eusko Gaztediko buru izendatu eta hortik 1933an Gipuzkoa Buru Batzarreko izatea.

1934an egin zen Aberri Egunez oinarriturik Euskal Herriari buruzko erreportaia filmatu zuen: hitzaldi, batzar, folklore

eta beste zenbait gaiez. Ordu erdiko filmaketa, garai hartarako hots handia atera zuena. Baina, euskaraz egin ezaren damua izan du geroztik. Roca-ren bidez katalanekin harremanetan jarri zen, hemengo kultura kanpora begira eman nahirik eta Paris-era eta Dublin-era joan zen pelotariek.

Ez zen geldirik egoteko jaioa, ez eta ere ekintza tipiekin konformatzekoa, eta ondorean, 3.000 metroko pelikula egin nahi zuen: toki berezi, monumentu, industria eta abar lehenagoko ohitura zaharretako folklore gaiari gehituz (historiaz eta musikaz zekitenei galdeak egin ondorean). Hori aurrera eramateko, 5.000 pezetako 12 letra ordaindu zituen bere boltsikotik. Emaitzak, Donostiako Kursaal eta Bilboko Buenos Aires-en ikusi ziren, arratsaldez eta gauaz jendez beterik bietan, hiriburu bakoitzean hiru egunez irauaraziz. Enpresariei irabaziaren ehunetik berrogetahamarra proposatuz gainditu zituen bere zorrak. Gero, Tolosa, Bergara, Hernani,... Frantziar nazionalak Donostian sartzean hartu eta erre zuten filma hura.

Hernandorenaren ustez, Euskal Herriaz lehenbiziko filmea zelako izan zuen hain harrera ona.

Garai batean euskaltzaletasuna pizteko itzaldiak ere eman zituen, besteak beste Bergara eta Azpeitian. Lehenak erderaz izan ziren, baina ihardunak berak erakutsi omen zion euskaldunei euskaraz hobe zela. Aurrerantzen beti euskaraz egiteko erabakia hartu zuen, bai etxean edo saloian, nahiz kalean.

Gerrak herbestaturik ere, holako ekintza gizona ezin geldirik egon eta hara non bildu zituen mugazandiko bertsolaririk gehienak eta hemendiko hoberenak Bertsolari Txapelketa antolatzeko. 1957a iristean Ezpeleta eta Donibane Garañin hasitako eliminatoriak 1958an burutu zituen Urruñan eta Paris-en.

Paris-en, handikiro, Kolegioak eta Sorbona-ko Unibertsitatea komitatuaz. Horien ordezkariak eta han ziren elkarte euskadunenak zein bertan bizi ziren edo errefugiaturik zeuden euskaldunekin baliatuz berebiziko jaialdia prestatu zuen

mundu zabalari begira. Mundu zabalari begira diot, zeren egun horretan, aurrez zabaldu zuen propagandaren eraginez, komunikabiderik gehienak konprometiturik zeuden, bai egunkari eta bai irrati, eta hare gehiago, historian lehen aldiz agertu ziren bertsolariak telebistan. Saio hartako partaideak Basarri, Xalbador, Uztapide eta Mattin izan ziren.

Esan beharrik ere ez, suieta haren oihartzunak eragina ekarri bazuen, neurri batean hari esker mugazemendiko txapelketa antolaketak etorri ziren Euskaltzaindiaren izenean A. Irigoyenek eratuz.

Gaur egun, lau bertsolari haietatik txapeldun irten zen Basarri bakarrik bizi zaigu, Zarauzko Udalak eta Gipuzkoako Diputazioak, aurten bertan merezimenduz omendua.

Han orduan zintaz grabatu ahal izan zena hotsaldi haren agiritzat jasotzen dugu aurreko orrialdeetan. Izango da oharrak egin beharrik, osorik jaso ez zelako eta jaso bera ere ongi transkribatu ote zenaren zalantzak ditugunez. Adibidez, ez bai dugu uste, Xalbadorrek bertso batean «artu» hitzarekin bi aldiz potu egin zezakeanik.

Dena dela, gure kezka ta guzi ere, historiarako lekuko dena hor dugu. Eta gure eskerrik beroenak agertu nahi dizkiegu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako arduradunei argitaratzeko utzi digutelako eta Dr. Hernandorena adiskide minari eman dizkigun argitasun guziegatik.

J. S. M.

mundu xabalarit beizta Mundu xabalarit beizta diot, xerren
egun hartzen, aurretik xabalarit zuten proposabaren eraginez
komunikabideak egiteak koordinatzen ziren, bai erun
kan eta bai tirari eta hare begiako historiari lehen aldiz
agertu ziren portuolaiek telebista. Saio parteko partaiek
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.

Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.

Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.

Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.

Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.

Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.
Baserrit Xabador, Urtabide eta Martin izan ziren.

CHRISTMAS

Mariano Guallega

XV

OLERKIAK

Eguberrira
begira gaude
begiradarik
zaharrenez,
haren argia
dugu eskari
mendez-mandeko
arrenez,
hain opagarri
dugu eguna,
hain da zabala
garienez,
hartan geroke
guztizko pona
atsegin denen
barnenez.

Jesu Kristoren
jeloteguna
bit ospakizun
sala,
hartantxe hasi
bait zen munduan
salbazuzko
garaia
Kristoak ongi
estimotzen du
hain gertatzen
arria,
behin ta berriro,
Belengo askan
aguruz Jainko
--diridaria.

OLERKIAK

CHRISTMAK¹

Bitoriano Gandiaga

XV



Eguberrira
begira gaude
begiradarik
zaharrenez,
harèn argia
dugu eskari
mendez-mendeko
arrenez;
hain opagarri
dugu eguna,
hain da zabala
gardenez,
hartan genuke
gutzizko poza
atsegin denen
barnenez.

Jesukristoren
jaioteguna
bai ospakizun
alaia,
hartantxe hasi
bait zen munduan
salbaziozko
garaia.
Kristauak ongi
estimatzen du
hain gertakizun
arraia,
behin ta berriro
Belengo askan
agurtuz Jainko
—dirdaia.

1. Pello Zabalaren doinuak.

Oi, Eguberri,
esperantza ta
itsas uhinen

pareko,
etorriango
etorpen zara,
etorkizuna

beteko:

Ez zaitetz, arren
luzatu, jada,
aski da dago

—eneko,
bete betean
opa zaitugu
behingoan era—
—bateko.

Plazetan zuhaitz
argiz jantziak
inoizko pozen

jendea;
etxeak apain,
festa-giroa,
zorion-mezuz

kalea;

zein gozoa den
herririk herri
ari den gabon

—airea,
oi, Eguberri,
onets ezazu
munduak dizun
fedea.

1980

ARGITARATZAILEEN ZUZENKETA OHARRA: Aurrekoan, Egan 1984 (5-6 zenb.), Pello Zabala jarri beharrez Zabaleta jarri genuen. Beraz, irakurleak kontutan har beza gure hutsa.


Bestalde, CHRISTMAK, XIII. sailean, bi lerroen hutsegitea zetorren, errepika kontutan hartu gabe, bigarren bertsoan azken lerroa falta zen eta bosgarrenaren laua. Zuzen osatzeko honela behar du izan, bigarren bertsoan (83. orrialdean):

*Gabonak datozela-ta
zelofan, papel de plata;
gastatu dugu soldata;
nahiz epetan, nahiz zorretan,
kapritxorik ez da falta.*

Eta, bosgarrenean (84. orrialdean):

*Gabonak zetoze-la-ta
zelofan papel de plata,
tontakeria galanta:
ogi ta gatzetarako
behar dena ere janda!*


XVI



Behin eta berriz, Berri pozgarriz,
inoizko Berri onena;
Gabonez-Gabon, albiste berriz,
Gabon-jaien zoramena,
aldiz-aldi da berri Gabona,
bakoitzean da behinena;
ongietorri, oi, Gabon berri,
Berri On betikoz dena!

Eguzkiaren ama, Gabon gau,
sua erditzen duzuna,
iguzu berriz gaboneroko
Su berriaren iharduna;
argi berrituz goza ezazu
begien gandu zurruna;
ikusmen berriz ikus dezagun /
berriz dakarzun eguna.

Zuri, mendien gailurrez gailur
negu-mugakougarra;
zuri lastargi, ilenti, zuzi,
zuhandor zarten pindarra;
Eguberriak hain du merezi
abegi bero suharra,
haren sorrera-pozari diot
opa lamada zangarra.



Gabonerako mukur eiharrak
bildu ohi zituen aitak;
laratz azpian oroitzen ditut
su biziaren txinpartak;
errosarioz zituen amak
ontzen gisatu ta saltsak;
oi, lurretik hain gertu ginenon
Gabon bero ta aratzak.

Haize, lur eta ur-suok ospa
dezagun beila ernaia,
gaua gainbehera hasi da jada,
jo bai du goren sapaia;
argia dugu etor-bidean,
heldu da haren garaia,
natur-gaiekin egin nahi dut jai
zelatatuz goiz arraia.











Izakiokin Gaboni oihu
esperantzadun bihotzez,
argi-gehitzea uste bai dugu
lurbiraz Gabon bakoitzez;
bizitz-indarra bizi ari da
Historia barru-barnez,
lorkizunaren arazo-lagun
Jainkoa bera dugunez.

Zeru eta lur berrietarantz
bai dugu abiadura,
gizateria osoagaz bat
agurtzen zaitut natura;
elkarrekila bizi dugunez
salbamenaren bentura,
bizkor dezagun berrikunderantz
dei daragigun lilura.

Jantzi gaitezen jaiegunekoz
 izaki eta gizaki,
 ospatzen ari garen Gabonak
 Eguberria dakarki;
 ez dugu ilun luzerik jada,
 oilaritea da aurki,
 hurbilagozten ari den goiza
 aupa dezagun goraki.

Hel zakizkigu, oi, Eguberri,
 zugar bai dugu uste on,
 zure Eguzki beti berria
 nagusi bedi edonon;
 giro argitan bizi nahi dugu,
 ez bedi ilunik inon,
 pozetan lora dadin elkarri
 opa diogun zorion.

1981



ZABAL IZKIGUZUTE,
 ZABALDU ATEAK;
 ENTZUN BERRI ONAREN
 BERRION AIREAK:
 UME BAT JAIO ZAIGU,
 HAU DIO UMEAK:
 NEUK APURTUKO DITUT
 GAITZAREN KATEAK.
 ENTZUN BERRI ONAREN
 BERRION AIREAK.

Gabon dugu albiste
 eta Eguberri;
 Gizon eginak gaitu
 egin Jainko-Herri.
 Haren jaiotza dugu
 urteroko berri.
 Gagozkion pozez hain
 mandatu ederri.
 Gizon eginak gaitu
 egin Jainko-Herri.
 ZABAL IZKIGUZUTE...

Pobreza dizu arma,
 indarra pobreza;
 pobreza dizu Bere
 Jainkozko enpresa:
 pobreei zinpetu die
 zorion-promesa;
 lureko pobreen alde
 bota du trabesa.
 Pobreza dizu Bere
 Jainkozko enpresa.
 ZABAL IZKIGUZUTE...

Lautatik bat bizi da
bizi diotena,
lautatik hirua da
gaizki direnena;
kontzientzia gaiten
diogu hau dena:
hirugarren mundua
dugu lotsamena.
Lautatik hirua da
gaizki direnena.

ZABAL IZKIGUZUTE...


Prentsa ta telebistaz
sari datorkigu,
diogun miseria
entzunez dakigu.
Nolabait behar dugu
pobreza sentidu,
pobreza sentidu ta
ogia partidu.
Diogun miseria
entzunez dakigu.

ZABAL IZKIGUZUTE...

Casaldaliga eta
bai Camilo Torres
Angelelli, Romero
zertan esanik ez,
pobreen alde azaldu
dira su ta garrez,
Ebanjelioari
erantzun beharrez.
Angelelli, Romero,
bai Camilo Torres.

ZABAL IZKIGUZUTE...

XVIII



EZER GUTXI ZARA,
 HALA DA GIZONA;
 BETI DA DEUS GUTXI.
 ALFERRIK GABONA.

Ez da giro, baina
 haatik behar bada,
 gizonen amorez
 gizon egin zara.

EZER GUTXI...

Gizonak gizona
 ez du haintzat hartzen.
 Zu, ostera, Jainko,
 gizon zara jazten.

EZER GUTXI...

Hainbestean zara
 gizon jantzi, Jainko,
 non ez den fijatzen
 Zugan inor asko.


EZER GUTXI...

Alferrik Gabona,
 ene Jaun hain ona,
 ez da gizonentzat
 deus asko gizona.

EZER GUTXI...

Azaroak 25

XIX



AGUR, MARIA BELENGO,
JESUS HAURRAREKIN;
AGUR, GRAZIAZ BETEA,
JAUNA DA ZUREKIN

Jauna ta Jesus da zure
sabeleko fruitu;
andre guztien artean
bedeinkatua zu.

AGUR, MARIA...

Ama-Semeak han daude
hain apal, hain xume:
Ama, Andre Maria da,
Jaungoikoa ume.

AGUR, MARIA...

Santa Maria Birjina,
Jainkoaren Ama,
erregutu gure alde,
zaude guregana.

AGUR, MARIA...

Zeure beharrean gaude,
Ama, betiere;
heriotzako orduan
betikbatez ere.

AGUR, MARIA...

Azaroak 27





Gabonak kristandadean
bitara dira ospatzen
Gabonak kristandadean:
aberatsak ugarian,
pobreak pobre-legean;
Gabonak kristandadean.
Gabonak kristandadean.

Gabonak kristandadean
aberatsak ugarian
Gabonak kristandadean:
handia da pobreen saila
pobreen pobreza-legean.
Gabonak kristandadean.
Gabonak kristandadean.

Gabonak kristandadean,
handia da pobreen saila,
Gabonak kristandadean:
aberatsak ugarian,
pobreak pobre-legean;
Gabonak kristandadean.
Gabonak kristandadean.

Bitara dira ospatzen
Gabonak kristandadean
bitara dira ospatzen:
aberatsak ugarian,
pobreak pobre, Gabonak
bitara dira ospatzen
aiene, kristandadean.

XXI



1 Gizonak: Bidez bide datoz
Gabon-jai santuak,
Belengo jaiotza
dio Abenduak.

2 Gizonak: Gabon-jai santuak!
Aintzinatik datoz
aldi bakoitzera
gizona gero-ta
gizonagotzera.

1 Gizonak: Hurbil dira jada
aingeru-kantuak
Berriona dezan
berriro munduak.

2 Gizonak: Aingeru-kantuak!
Geroz hurbilago
ditugu gaur jaiak!
Gabon ospatzeko
prest ditzagun gaiak.

1 Gizonak: Bakea da hitza
Gabonak diona:
haintzat har dezala
gizonak gizona.

2 Gizonak: Gabonak diona
Gabonen helburu
Jaungoikoa bada,
Gabonen arrazoi
gizona bera da.


1 Gizonak: Bakoitza dadila
zintzoa ta ona.
Elkartasunera
deja da Gabona.

2 Gizonak: Zintzoa ta ona!
Elkartasuna da
Gabon-mezu eder:
elkar maitatzeko
ez gaitezen alfer.

1 Gizonak: Elkartasuna da
Gabonen jomuga
gu baino lehenago
Jainkoa heldu da.

Abenduak 2

XXII



Berrionaren berri emaile,
agur, zuri, Abendua;
esperantzaren atari zara,
iraupen luzez ondua;
betiraunera begira jartzen
diguzu adimendua
kunplitu zaren hortan bai zara
kunplikizun-agindua.
Berrionaren berri emaile,
agur, zuri, Abendua!



Salbamenaren egun alaiak
jadanik erneta dagoz;
behingoz erabat osatzeko den
erreinuaren zain gagoz:
behar zuena etorria da
baina ez etortze osoz,
etorri zena etorkizun da
esperantzaren itsasoz.
Salbamenaren egun alaiak
jadanik erneta dagoz.

Negu gorritik udaberria
atera ohi den antzera
halaxe goaz geldi ta nekez
aro berrian sartzera
itxuraldatuz, eraberrituz;
justiziaren kolpera
jende ta mundu egokituko
gara Jaunaren xedera.
Negu gorritik udaberria
atera ohi den antzera.

Etengabeko Abendu baten,
halaxetan bizi gara
Jaungoikoaren erreinua noiz
osotuko den hartara;
espero eta nahi genuena
jadanik etorri bada,
Bere legamiz mundu guztia
ondu behar du ta para.
Etengabeko Abendu baten,
halaxetan bizi gara.

Abenduak 4

XXIII



Zorion, zorion, zorion,
zorion dantzugu edonon;
zorion diogu Gabonez,
zorion-agurtuz edonor.

XABOIZKO PUNPUILEN EGIA
GABONGO AGURREN ERDIA:
HAIZEZKO MAMIA BARRUKO,
KANPOKO ENBUSTEKERIA.

Oi Gabon, oi Gabon-zorion,
ohitura besterik ez da hor.
txepela, epela, memela,
gabongo agurra hitz-oskol.

XABOIZKO...

Aurrezka milaka zorion,
atzezka nork egin jaramon?

«Hoa bai, heuk ikus, hor konpon! »

Ordea agurra nengion.

XABOIZKO...

Hain hutsal, hain geza, hain agor,
Gabongo agurrak putz-borbor;
lapiko tentelak eltzagor,
hitzontzi arinak atanbor.

XABOIZKO...



Oi Gabon, oi Gabon-zorion,
agurrak faltsia zerion.

Oi zori, oi txori-zorion,
axola ez eta hitzak on!

XABOIZKO...

Abenduak 5

VXX
XXIV



BEHEAN SIMAURRA ETA
GOIAN AMERAUNAK,
POBRE PASA ZITUZTEN
BELENEN GABONAK.
BADU ASKI ZER-PENTSA
PENTSA NAHI DUENAK.
POBRE PASA ZITUZTEN
BELENEN GABONAK.

Jose eta Maria,
Maria ta Jose,
zenbat hotz eta ezin
eta zenbat gose!
Hango haien pobreza
bai etzala pose!

Abegirik inon ez,
aterperik ozta,
jaio zaien haurtxoa
han da negar-hoska;
beharrik beharrenean
falta dute koska.

Ordu hain minbera ta
hain sentikorretan
ez dute nork lagundu
larri ta lorretan.
Asko sufritu zuten
pobreza horretan.

Alferrik aingeruak,
alferrik artzainak,
aterpea koba da,
handiak preminak.
Zer jasan zuten Jose
Haurra ta Birjinak!

XXV

Soinu2 ----- Ta-

-lan, talan kanpaiak; telen telen, Belen; tilin, tilin kriskitin; tolon, tulun Gabon! Ta-

-lan telen tilin tolon tulun Biba Jesus! Ta-sus! Taku kanpaiak, telen Belen; ti-

-lin kriskitin, tolon Gabon; tulun Gabonak oporegun kanpaiak belen kriskitin Gabonak opor.

kanpaiak belen kriskitin Gabonak opor. Soinu2 ----- Ta-

-lan telen tilin tolon tulun Biba Jesus! Ta-sus!

Talan, talan kanpaiak;
telen, telen Belen;
tilin, tilin kriskitin,
tolon, tulun Gabon!

Talan kanpaiak;
telen Belen;
tilin kriskitin;
tolon Gabon;
tulun Gabonak
opor-egun!

Talan
telen
tilin
tolon
tulun,
Biba
Jesus!

Kanpaiak
Belen
kriskitin
Gabonak
opor.

Talan
telen
tilin
tolon,
Biba
Jesus!

LIZARDI-REN BIDEAN*Luis Mari Mujika*

Pinudiaren lo gaitzak
 susmo ilunak afari,
 udazkenaren damuak
 fagoen zehar nagi,
 garoak gorri-giroa...
 (ote dut ongi igarri?),
 haritz larrutuen loak
 orbelen sofrikari,
 eza ta ezintasuna
 bihotzean ostari,
 ezmezean barrunbeak
 kezka izuen lokarri
 (aldapa honen gainbeheraz
 zergatik ni hain adi?),
 Lizardi-ren negutea
 barnean zigorkari,
 adar beltzen azkazalek
 garraisia goiari
 (nolatan zaitut hain hurbil,
 adiskide Lizardi?),
 sagastiaren gorputza
 orbel-lotsetan larri,
 orduen pena mamitzen
 gabiltz Lizardi ta ni,
 udazkenaren gainbeheraz,
 bi poetok txit adi...!

BIDEKO LELOA

*Belenera, Belenera,
Maria ta Jose gera.*

Bihotzak poztura eta
ezpain gorriak kantu,
aldaparen orraziaz
astotxoak nekatu,
hilargi hitsa gazta bailitz
muino gainean altu
(aih, Joxepe, aih, Maria,
jaiorik al da Jesus?),
limoiaren mami latza
azukre on gertatu,

Joxepe-k

—«goazen, goazen arin
Euskal Herritik zalu,
euskaldunak bakearen
ondasuna baitu ahaztu»,

Maria-k

—«ez Joxepe, ez Joxepe,
etzazu horren kontu,
Euskal Herrian jadanik
fusilek dute damu»,
zoko batean fusila
herdoilduraz hondatu,
sugearen mihia bihur
hautxoaren jostailu,
aingeruek eta artzaiek
Euskal Herrian kantu...!

*Belenera, Belenera,
Maria ta Jose gera.*

INAZIO, GARBI DAGO...

José Barx

Inazio, garbi dago,
euskalduna zara zu,
euskaldunen izatea
nahimenean kaskailu,
errezoz Jainkoa gogoz
zureganatzen duzu,
borroka, ekinaz, lehiaz
zure ekintza tormentu,
gizonaren eragina
Loiola-koak mailu...!

beti bezala,
trauskor,
nagusí,
nure haspartua argitzen

Zure onkari,
eguzki nagusi,
huleiak,
etxerak izanarroz,
teritza eta sendo.

EGUZKIA

Josu Baez

**Nañarri atzetik,
harro eta jaun,
dotore,
apain,
indartsu,
egunsenti zoragarri.**

**Egun bat gehiago,
zure egun bat,
beti bezala,
iraunkor,
nagusi,
zure hesparrua argitzen.**

**Zeru oskarbi,
eguzki nagusi,
hodeiak,
etsaiak izanarren,
tentte eta sendo.**

Eguzki eta ifar haize,
osasun emale,
gizaki sendotasun,
lur aberats,
jaki gozo.

Eguzki eta laino,
tartean txinpartak,
luzatuaz,
agertuaz,
barrutiaren nagusia.

Lehio zirriztutatik,
gizonari egunon.
Begi erdi ertsiak,
norbait ba al da?
zure agurra.

Egunon jainko eguzki,
egunon,
abere,
ume,
denon ezaugarri.

Egunon jaun eguzki,
egunon,
han,
hemen,
non ez ageri?

Egunon,
erakusle,
egunargi eta
ilunaren,
nabarmentzaile.

Egunon,
epaikari,
egun eta ilun arteko,
borroka eta auziaren,
erabakitzaile.

Nañarri haitzak
neretzat,
beste eskualde,
besterentzat,
baina bakarra denontzat.

Ortze osoa,
goi oroa,
behea,
lurra,
elikatzen dituzuna.

Izartegiko bat,
zein dagokigu?
Zu!
Eguzki!
eguzki neurtzailea.

Neurri zehatza,
zure inguruan,
gabiltzanoi,
ondo eta aske,
zaintzen gaituzuna.

Zure inguruko gizartea,
zure alboko natura.
Eguzki mantenatzailea.

Egunkia zati eta ikuzte
epaizari, eizama unaso
egun eta hantzeko ikuzte
bortoka eta sustantza lur
erabatzaile. -ozog ikaj

Magari baltak eta ikuzte
netzat, netzat netzat
beste esanide, zantzu
bestentzat, zantzu
baina baktia bantzat.

Orxe osoa, gizonari eguzte
got oroa, baktia bantzat
beha, ab la ba bantzat
luta, arruga eyu
elkizen bantzat.

Egunen oroa, netzat
zantzeko bat, netzat
zein baktia, netzat
Zul, netzat
Eguzki, netzat
eguzki netzat.

ikuzte netzat, netzat
Netri zehata, netzat
zue inguruan, netzat
gabizantoi, netzat
ondo eta eske, netzat
zaintzen zantzat.

netzat, netzat
Zue inguruko zantza,
zue alboko netza,
Eguzki mantzantza,
netzat, netzat

DANTERen KOMEDIA INFERNUA

(Lehenbiziko kantua)

G. Arestik euskaratua

Dante-ren *Infernua* komediaren lehenbiziko kanta hau G. Aresti zenak bere eskuizkribuz J. Zaitegi zenari igorri zion *Euzko-gogo*-rako, aldizkari honen azken aldian, P. Lafitte zenaren eskuz honako ohartxo batekin: «Huna beste aldetik huna zuretzat hel-arazi lan eder bat. Piarres Lafitte apheza-k. Jauna baithan agur». Zaitegiren agiritegia Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekara ekartzean paper artean agertua da.

Orain, «Gabriel Arestik beste hizkuntzetatik egin zituen poesi itzulpenak» sailari (ikus *Euskera*, 1985-2 zenb.) gehitu beharrezkoa dugu.

(J. S. M.)

DANTEren KOMEDIA
INFERNUA
LEHENBIZIKO KANTUA

Gure bizitzaren bide erdian¹, oihan ilun baten aurkitu nintzen, eta han zuzeneko bidea eznuen ikusten. Ene, pentsamentuan bildurra berriztatzen duen baso basati lakar eta gogor hau zein zen esatea gauza gaitza da benetan. Hain mingotsa denez gero, heriotza bera dirudi; baina han ediren nuen ongiaren gainean mintzatzeagatik, gainerako beste gauza guztiak azalduko ditut.

Nola sartu nintzen han esaten eztakit, loak hainbesteragino hartu baininduen, zer egiazko bidetik aldaratu nintzen, baina bihotza ikaraz bete zidan haran hura amaitzen zen murura heldu nintzenean, gora begiratu nuen, eta bide guztietatik artez garamazkien planetaren² printzekin jantzirik, bere gailurra ikusi nuen.

Hain nekez pasatu nuen gauean bihotzaren aintziran egin zitzaidan izua niregandik joan zen apur baten, eta burrukaldi gogorraren ondoan itsasoko bazterrera irten duenak arriskuz beteriko uretara begiratzen duen bezala, oraindik ihesi zebilan nire kemena ere atzera itzuli zen, inoiz inok bizirik aienatu ezten lekua bir-ikustera.

Gorputz nekatuak atsedena hartuta gero, plaia bakartitik abiatu nintzen, eta zapaltzen nuen oina harean sartzen zitzaidan. Eta ondartzatik irtetear nengonean, lehopardo³ arin larden larru-nabar bat agertu zitzaidan: aurretik etzizaidan inola kentzen, eta hainbeste ostopo iminten zidan bidean, zer au-

DANTEREN KOMEDIA


INFERNUA

LEHENBIZIKO KANTUA

GURE BIZITZAREN BIDE ERDIAN,¹ OIHAN ILUN BATEAN
AURKITU NINTZEN, ETA HAN ZUZENEKO BIDEA EZNUEN KUS-
TEN. ENE, PENTSAMENTUAN BILDURRA BERRITATZEN DUEN
BASO BASATI LAKAR ETA, GOGUR HAU ZEN ZEN ESATEA GAUR
GAITZA DA BEHETAN. HAN HINGOTSA BENEZ GERO, HERRIOZA
BERA DIRUDI; BAINA HAN EAIKEN NUEN ONGIAREN BAINERAN
MINTZATZENGATIK, BAINERAKO BESTE GAURAZ GUTIAK AZALDUKO
DITU.

HOLA SARTU NINTZEN HAN ESATEAN EZTAKIT, LOAK HAINBES-
TERAGINO HARTU BAININDUEN, ZER EGIALKO BIDETIK ALDARA-
TU NINTZEN, BAINA BIHOTZA IKARRAZ BETE ZIDAN HARRAN HURA
AMAITZEN ZEN MURURA HELDU NINTZENEAN, GORA BEGIRATU
NUEN, ETA BIDE GUTTIETATIK ARTEZ BARRAZKIEK PLANETAREN²
PANTZEKIN JANTZIRIK, BERE GAILURRA IKUSI NUEN.

HAIN NEKEZ PASATU NUEN GAUEAN BIHOTZAREN AINTZIRAN
EBAN ZITZAIODAN IZUA NIREBANDIK JOAN ZEN APUR BATEAN. ETA
BURRUKALAI GOGORAREN OYDARAN ITSASOKO BAZTEKKEKA IRTEAN
DUENAK ARAISKUZ BETERIKO URETARA BEGIRATZEN DUEN BEZALA,
ORAINDIK INESI ZEBILAN NIKE KEMENEA ORE ATZERA ITZULI ZEN,
HONZ INOK BIZIRIK AIGIATU EZTEN LEKUA BIR-IKUSTERA.



rrera egiten nuen bakoitzean atzera egin behar izan nuen.

Goizaldea hasi-berria zegoen, eta jainkoaren amorioak gauza eder guzti haik egin zituenean berekin zeuden izarrekin igoten zen eguzkia; pisti larru-nabar haren aintzinean itxadon behar nion beraz egun berriaren giro ederrari; baina ez agertu zitzaidan lehoi⁴ batek bildurra eragin gabe.

Honek zirudien nireganantza zetorrela kopet-altu eta izugarriro gose, eta aireak berak zirudien haren bildur. Eta lupu bat⁵, bere argaltasunean grina oroz beterik, jente askoren hondamendia erakarri zuena.

Eta haren itxuraren izuak eman zidan tristurak goiko esperantzak galdu arazi zizkidan. Eta aberastasunaren alaitasuna ahantzirik, bere ondasunak galtzen dituenak negar eta zinkurina egiten duen bezala, honela egiten zidan animalia gupida-gabe harek, nire kontra etorten, eguzkia, argitzen ezten lekurantza⁶ eramaten ninduela.

Leizerantza hamiltzen nintzen artean, bat⁷ agertu zitzaidan, bere isiltasun lezeagatik mutu zirudiena. Ere mu haundian ikusi nuenean.

«Erruki hadi nitzaz».

Garraisi egin nion.

«Zer-nahi haizen, itzal edo gizon gertua».

Erantzun zidan:

«Gizona eznaiz, behin izan banintzen ere, eta nire gurasoak izan ziren lonbarditarrak, biak mantuataarrak. Berandu izan arren Julio-pean⁸ jaio nintzen, eta jainko faltsu eta atzipagarrien denboran Augusto onaren azpian bizi izan nintzen Erroman. Poeta izan nintzen, eta Iliion harroa erre ondoren

Troiatik etorri zen Ankisen seme justo hura⁹ kanta-
tu nuen. Baina hi, zergatik bihurtzen haiz neke haun-
di hontara? Alaitasun guztien hasiera eta amaia den
mendira, zergatik ezaiz igoten?».

«Orduan haiz hi Virjilio, mintzairazko hain hi-
bai haundia sortzen den iturria?», erantzun nion
nik, kopet-apal. «Oh, beste poeta guztien ohore
eta argia, hire idaz-lanak gozatu arazi zizkidaten
ikaskuntza luzeak eta maitasun haundia balia be-
kizkit! Hi haiz maisu eta autore nirea; ohoratu
nauen idaz-tankera hiregandik hartu nian nik. Ihes
egiten diedan animalia ikus ezak. Haregandik libra
hezak, zainak eta poltsua ikaratu arazten baitizkit».

«Hiri», esan zidan negar egiten ikusi ninduenez
gero, «leku basati hontatik ihes egin nahi baduk
beste bide bat komeni zaik. Kexatzen haizen abere
honek eztiraukok inori bere albotik pasatzen uzten,
eta eragozteagatik hiltzen gaitik. Bere jenio gaixto
eta zikoitzarekin ezтик egundo bere grina hamorra-
tua asetzen, eta zenbatenaz gehiago jaten duen, han-
batenaz-eta goseago duk. Biltzen den animaliak asko
dituk. Eta dolorez hilgo duen artzan-ora etorri arte
are gehiago izango dituk. Azken hau eztuk ez onda-
sunez ez urrez elikatuko, baizik-eta jakituriaz, amo-
rioz eta birtutez, eta bere aberria egongo duk hu-
mildadean. Italia apalaren osagarri eta kontsola-
mentu izango duk, hargatik eman baitzuen bizitza
Kamila dontzellak¹⁰, eta zaurituak izan baitziren
Eurialo, Turno eta Niso¹¹. Herriz herri jarraituko
dik, eta azkenean infernura egotziko dik, handik
atera baitzuen behin inbidiak. Horregatik pentsa-
tuta eta erabakita zeukat hik niri jarraitzea eta ni
hire gidaria izatea: hemendik joango gaituk espe-
rantza-gabeko deiadarrak entzungo dituan leku eter-
naletara, bigarren heriotzagatik negar egiten duten
jente zaharren espiritu oinazeztatuak ikusiko dituk;

baita ere sutan pozik daudenak, bere garaiz jente dohatsuagana joatearen esperuan baitaude. Haiengana joan nahi baduk neu baino beste arima presuago bat¹² topatuko duk: joaten naizenean harekin lagako haut, han goian errege den jaunak, haren legeen kontra ibili nintzelako, neugandik ez-paitu bere hirira heltzerik. Leku guztietako jaunak handik gobernatzen dik. Han zegok bere hiria eta bere tronu haltua. Hautatzen dituenak dohatsuak dituk! ».

Nik hari:

«Poeta, ezagutu ezuen jainkoagatik, nire gaitzetatik eskapatzea eskatzen derauat, esan duan to-kira eraman nezakan, San Pedroren atea¹³ eta hain samindurik daudenak ere ikus ditzadan».

Harek bideari ekin zion eta ni haren atzean abiatu nintzen.

OHARRAK:

1. Hogetamabost urtekin: 1265gnean jaio zen Dante. Orain bada, 1300 gnean gaude.
2. Danteren denboran eguzkia planeta bat bezala konsideratzen zen.
3. Linburreria; lehengo loa bekatuzko kontzientzia-gabekeria da, eguzkia argitzen den murua birtutea, eta itzultzen ezten lekua bekatu itsua.
4. Harrotasuna.
5. Diru-zalekeria, zekenkeria.
6. Hau da, atzera oihan ilunera.
7. Virjilio.
8. Julio Zesar.
9. Eneas.
10. Guerra-emakumea, volskotarren errege Metaboren alaba.
11. Eurialo eta Niso troiatarrak izan ziren. Turno, errutulotarren errege Datinbren semea.
12. Beatrize.
13. Purgatorioko atea.

EUZKO-GOGOAN ARGITARATZEKO ESKARIAREKIN. INFERNUKO BIGARREN KANTUA, DATORREN ASTEAN BIDALI IZANGO ZAITZU.

G. Aresti

ZEZEN LARRUA

(Jarraipena)

*(S. Espriu-ren La Pell de brau
Otsalarrek euskaratua).*

XXXVI

Hondarrean jauzika gara,

sudurretik katigaturik:

dantzatuz

Nikolas artzarekin.

Lapur eta alproja,

errege Sepharad-en,

gurekin elkaturik

irudi eta jauziak

makilatzen gaituzte

bizkar eta buru.

Herioa begiraka

Sinera-ko

kanpantorretik eta oihuka

asko maitatzen nauela.

Esku larrutuak

konpasa eramanaz,

parrez ikaritzen

hesi bizi hau.

Ez esan dohainik

jaten dudala, zeren
dantzaren izerdiz
beti ordainduaz nihoan,
saldatik postreak arte,
gose janaria.
Odei beltzak
bapatean egunaren
argia estaltzen
eta eramango dute
uzta pobrea
alor lehorretatik.
Hegaz enarak
arranblak igurtziz.
Mahatsa heltzen da
itsas bazterrean.

XXXVII

Mahatsa heltzen da, eta orain aurrez-aurre
jaikitzen udararen bare zabala,
harresi bat bezala, eta derrigortu
itzultze harrigari hau, begiak barna,
eta ikus urrutiratuz argiak ibiltari.
Hara hemen mahastiak, eta zuhaitzak, eta itsasoa,
eta gu, oraindik, Sepharad-eko zerupean.
Azken izen bat jarriko diogu gauza bakoitzari,
oroitza zaharrak jadanik sorkunde berria egiteaz.
Ondo dakizu haruntzago ez dagoela ezer, baizik
gelditasun, hotz, bakartasun, ilun
argia, mailak eta argi putzuak, hitzak
Itzaltzen diren lekuan eta isilaren bizkarretan galduz.
Harrapalada hotsa, oso urrutian, harrapalada
ur belzdun gauetzko karrika luzeak zehar,
eta uste zaigarik lehenetasuna beldurrean.

XXXVIII

XIXXX

Ez da komeni izenik esatea
gure beldurra baino haruntzagotik uste denarena.
Itsuka elkar jotzen badugu
itsu harrigarri horrekin
eta beti sentitzen geralarik behatuak
itsuaren begirada zuriz,
non, baizik hutsean eta ezerrezean,
oinarritu genezake gure bizia?
Ahaleginduko gara hondarrean eraikitzen
gure ametsen jauregi arriskutsua
eta ikas genezake lezio humil hau
nekearen denbora luze guztian,
zeren horrela bakarrik gara borrokarako libre
izuaren gaintetik azken garaipenerako.
Entzun, Sepharad: gizonak ezin dira izan
libreak ez badira.
Jakin beza Sepharad inoiz ezingo garala izan
libreak ez bagara.
Eta oiuhu herri guziaren abotzak: «Amen».

XXXIX

Begiak zain egotearen oinazeari amor eman ziotelako
eta kandelgailuaren zazpi argiak
denbora luzez erreaz,
behar bada ohartzen gara gaua bukatzen dela.
Ikas dezagun orain izarrak izango direnez
gizonen handitasunaren zerbitzura emanak:
hauek dira diktatzen dituen hitz berriak
herioaren azken parredun ahoak.
Orduan gizona izando da
libre eta zoriontsu, Sepharad-en ere.
Baina gu bakarti ezeritzen ginen
leihoaren aurrean, itsuaren neskato
zurien aurrean, igarle bitxi,
eta ez ditugu ahazten aintzinako legearen aginduak:
«Gezurrik ez esatea, ez lapurtzea, inor ez hiltzea...»,
betiko agindu horiek
non-nahi baliozko, Israel-en eta Golah-en,
ia konkistatu den izarren erresuman
eta baitare, egunen batean, Sepharad-en.
Besterik ezean, judizio egunean
Sepharad-en.

XL

Baina zu parrezka:
uste duzu armiarmak
beti izango duela haria.

Legenez bihurtzen nauzu
eta usteltzera uzten
simaurrez inguraturik.

Eta dohainik saltzen diozu
piltzarkariari jaurtikiz
zezen larrutik.

Zakurra, zure goseak
karraskatu nahiko zituen
orpahezurreraino?

Dakus asetuari
matrail zaharrak
zeharo zurrupatuak.

Bete-betea lehertzen zara
geroagota meheago
bihurtzen garan artean

Hainbeste aharrausiz,
ohartuz tontoak
jokoa aurkitzen.

Kez inguraturik,
begiak itxiten dituzu
eta mundurik ez ikusten.

Aldiz, iratzartzean,
ezpainetako parrea
geldituko zaizu.

GARRIKETA ZERBITZUA

Juan Luis Zabala Arizte

«Gogon izan gauza bakoitzak bere lekua duela. Ez bedu leku hori aurkitzen eta hor zehar uzten hasizu zure gainera jauzi egingo du eta zangaitzea egingo du; edota horz koskosa kolpatuko mingeriki, ukondokadak enango jizkitu arrosa ura-
hauko zure bidea ortopatuko. Mair gauza horien
tasit zehar ontzia de baina gehienetan okerrak»

KONTU KONTARI

(William S. Burroughs)

Ereun sabala heizatzeko bide nehar batek zeharkatua. Bi-
daren eritasen atzetako beste tsiki zaharkitua. Leino bakarra
du eta berari tsiki. Bixetik hainabosten bat inbrotara ko-
mun-etxola hize eta esota; hui are zuriz egina.

Barnen giza multzoa eta gisa gutxietako gauzak sakaba-
narririk zola gaineng. Gidaren erdian mahai handi eta beltz
buz, ogi apur, jaranja tsal, sagar eta udare pitxitakia eta olio
otakar apribindua eta plater; ontzi eta bestalako mahai

1. «Gurbioren zerbitea» uscko izan denek VI. Burroughs Hiza
zabalketan abent koxa tsalari roen.

GARBIKETA ZERBITZUA ¹

Juan Luis Zabala Artetxe

«Gogoan izan gauza bakoitzak bere lekua duela. Ez badu leku hori aurkitzen eta hor zehar uzten baduzu zeure gainera jauzi egingo du ala zangartekoa egingo dizu edota hotz koskoak kolpatuko mingarriki. Ukondokadak emango dizkizu arropa tratatuko zure bidea oztopatuko. Maiz gauza horien tokia zabor ontzia da baina gehienetan okerreko lekuan daude besterik gabe.»

(William S. Burroughs)

Eremu zabala hautsezko bide mehar batek zeharkatua. Bidearen ertzean zurezko etxe txiki zaharkitua. Leiho bakarra du eta berau itxita. Etxetik hamabosten bat metrotara komun-etxola luze eta estua, hau ere zurez egina.

Barnean giza multzoa eta gisa guztietako gauzak sakabaturik zolu gainean. Gelaren erdian mahai handi eta beltz bat, ogi apur, laranja azal, sagar eta udare mutxikin eta olio zetakaz zipriztindua eta plater, ontzi eta bestelako mahai-

1. «Garbiketa zerbitzua» izeneko ipuin honek VI. Erretereria Hiria lehiaketan lehen saria irabazi zuen.

tresna zikinez batea. Mahai azpian, eta oro bar gelako zolu guztian barreiatuak, arropa zahar zarpailduak, paper puska zimurrak, sagar eta udare mutxikin eta laranja azalak, hortzore hodi bihurri batean orea, olio pote erori bati darion olioak, konpresa odoldu batzu. Halaber, hautsez eta zikinez betetako zenbait tresna eta gauza zahar hala nola irrataparatu hondatua, aulki hautsiak, josteko makina izorratua, masta okerra duen gitarra zaharra, bizikleta baten gurpil okerra, erabat apurtutako idazmakina, garbigailu baten zenbait pieza zaharkitu eta herdoilduak.

Mahaiaren inguruan, zoluan, paretaren kontra eserita batzu, etzanda besteak, gizon eta emakumeak. Bazter batetan, aulki zahar batzuren eta josteko makina izorratuaren atzean, besteengandik ezkutatu nahirik bezala, bikote gazte bat larrugorritan. Haiengandik gertu, mutil gazte bat haur bat esan liteke, paretaren kontra eserita, bere sabel biluziaren gainean mamutzar izugarriak marrazten. Mamutzar haeturiko batek betaurrekoak ditu eta pixontzi baten gainean kaka egiten du zigarro bat erreaz. Beste bi mutil gazte ere badira, umea baino zaharragoak. Bata begi galduaren gainean txaplata beltz handi bat duen betoker bizarduna; bestea besobakarra, soineko berde luze batez jantzia, bibote handi batez apaindua eta adasduna. Bazter batetan etzanda, loak harturik, neskato bat zeharo biluzik paper puska soil batzuren azpian. Neskaren aldamenen hiru agure zahar, bizar zuridunak, arropa zarpailez jantziak baina hirurak hutsik gabeko gorbata garbiz apaindurik, zolu zikinaren gainean etzanda elkarren arteko txutxu-mutxuan. Gelaren leiho bakarraren parean begi handi-handiak eta ia hortzik gabeko aho okerra duen atso zahar bat. Ilea erabat nahasia eta azpiko gona zuri handi batez jantzia.

Geldiune orokorra leihoaren parean eseritako atso honek hausten du. Masta okerra duen gitarra zaharra hartu eskuetan eta jotzen hasten da. Soilik lau soka dituen hautsez betetako gitarraren soinu traketsak loak harturik zegoen neskato biluzia iratzartzen dute. Neskatoak gorputz gaineko paper puska zimurrak astintzen ditu eta jarrera eroso bat aurkitu

ondoren begiak hersten ditu berriro. Betokerra zolutik jaiki eta mahai gainekoak jaso eta sukaltarrirantz eramaten hasten da zambuluka eta higidura urduriz. Atso zaharra gitarraren soinu traketsaren laguntzaz kantatzen hasten da.

«Daj madaj,
daj madaj,
nominbrade
lero kiero,
daj madaj».

Betokerrak behaztopo egiten du eta ontzi eta guzti erortzen da agure zahar baten gainera.

—Oj nombrix! Te mendrekina pajno, baj —esaten dio agureak gehiegizko haserrerik gabe.

Betokerrak hasperen egiten du, bere inguruko ontziak pixka bat aldendu eta paretaren kontra eserita geratzen da. Bitartean, josteko makina izorratuaren atzeko bikotea larrua jotzen hasten da. Atsoak gitarra jotzea utzi eta kantatze soilean dihardu.

«Noniomorna
daromi
noniomorna
daromi
destraplazo
karkabi».

Besobakarra mahai gainera igo eta gimnasia ariketa bihurri eta harrigarriak egiten hasten da. Plater eta edalontzi batzu zapaldu eta hautsi ondoren zolura erortzen da. Gorputzaren eskuin aldetik erortzen denez, ez du bere beso bakarra —ezkerra— kolpea leuntzeko erabiltzerik, eta izugarrizko burukada hartzen du. Lurrean herrestatzen da pixka

bat, ezkerreko eskuarekin min hartutako lekua igurtzitzen duen bitartean, paretaren kontra esertzen den arte. Atso zaharrak, pixkanaka, kantatzea ere utzi du bitartean, eta eskuarekin bere ile nahasia astintzen hasten da, burua batetik bestera higitzen du, gero eta azkarrago, gero eta biziago, harik eta alde batetara erortzen den arte. Zolu gainean etzanda, berriro ere kantatzeari ekiten dio, orain ixil-ixilean, ia hasperen batean.

«Nominbrade

lero kiero,

daj madaj,

daj madaj...».

Agure zaharretariko bat zolutik altxatzen da, bere gorbeta gorri txukuna zuzendu, eta aterantz zuzentzen da.

—Daj madaj, daj madaj... Agoj ko katremer, nen konpia darnele —esaten du atsoari begira, baina gelako guztiek entzuteko moduan, eta kanpora ateratzen da.

Josteko makina izorratuaren atzeko bikotea bere atseginarene gorenera heldu da bitartean, eta neska-mutil gazte biek beren gorputz biluziak banandu egiten dituzte.

Agurea etxe atariko komun-etxolara sartzen da. Tenore honetan hautsezko bidetik furgoneta bat azaltzen da eta etxearen aurrean geratzen. «GARBIKETA ZERBITZUA» erro-tulo eskerga du aldamenetan letra handi eta argietan. Uniforme beltzez jantzitako bi gizon jaisten dira furgonetatik. Beren bisera eta mahuketan ere «Garbiketa zerbitzua» irakurri ahal da. Gerrikoan pistola bana dute. Furgonetaren atzeko atea ireki eta barnean dagoen kartoizko kaxa pilotik bat hartu eta ateratzen dute bion artean. Furgonetako atea itxi eta deitu gabe sartzen dira etxean. Batak kartoizko kaxatik teleaparatu handi bat atera, mahaiaren punta batetan jarri eta piztu bitartean, besteak etxearen gela bakarraren nahas-mahasa gainbegiratzen du eta ondoren lagunari hitz egiten dio.

—Bazegok, bai, gure beharra.

—Bai, motel, bai... —erantzuten dio lagunak.

Kartoizko kaxa hutsa hartu eta kanpora ateratzen dira. Orduantxe bertan gorbata gorridun agure zaharra ikusten dute komun-exolatik atera eta baldarki ibiltzen. Gerrikotik pistola atera eta bi tiro ematen dizkio bietariko batek. Besteak kartoizko haxa hutsa utzi eta laguna heltzen du besoetatik.

—Zer egiten duk, hi? Ez huen hori egin beharrik.

—Tira, beharrik ez, baina, zer arraio? Hori ez duk ezer.

—Ez zekiat, ez zekiat, motel, hi ez hago burutik sano.

—Lasaitu hadi, lagun, lasaitu, ez dik inolako axolarik...

—Ez, egia esan, ez dik alde handirik.

—Horixe ba! Tira, pentsa gaur ostirala dela eta beste zer-bitzu pare bat edo hiru egin eta astelehenera arte jai dugula... Orain hemendik laster alde egin beharra zegok, ze bes-tela, badakik...

Bizkarretik heltzen dio agurea hil duenak besteari eta biak furgonetan sartu eta hautsezko bidean zehar urruntzen dira.

Etxe barruan guztiak teleaparatu eskergaren aurrean pilatu dira bitarte honetan, adi-adi eta ixil-ixilik, gizon heldu, txukun eta dotore baten hitzak entzuten.

«Jaun-andreok, hemen nauzue zuekin, eta oso pozik nauzue gainera, gure herriaren arazoek konponbiderako beharrezko bait deritzot, eta oraingo honetan bereziki, herria eta agintarion arteko harreman ahalik eta estuenari. Badakizue, hain zuzen ere, zein den gure lana: gure herriaren aurrerapen, ongitasun eta, oro har, zorientasunaren alde ahalegin guztiak egitea inongo aitzakirik gabe. Eta horixe dela eta nauzue oraintxe bertan ere zuekin. Oraingo honetan gure herriari dagokion arazo benetan garrantzitsu bati irtenbidea bilatu nahian natorkizue. Gure herriaren aurrerabideak, gero

esanen dizuedanez, zuei berebiziko mesedea eskatzen dizue gaur egun. Kontutan izan ezazue, arren, orain arte egin dugun lana ezin dezakegula orain alferrik gal. Herri basati, trakets eta zikina benetako herri aurreratu, moderno eta ordenatua bihurtzea lortu dugu, eta bide horri jarraitzeko behar historiko ukaezina dugu. Lan gaitza izan da orain artekoa guretzat, baina halaber herritar guztiok agintarioi laguntzeko beti erakutsi izan duzuen gogoia funtsezkoa izan zaigu eta eskertu beharra dizuegu nahitaez. Beraz, agintarion lana ezezik, herri guztiaren lana goraiatu behar izango du Historiak gure herriak bizi izan duen bilakaera hain positibo honetaz arduratzerakoan. Oraingo honetan ere ziur gaude gure herriaren aldeko etengabeko lan honetan inolako aitzakirik gabe lagunduko gaituzuenaz buru-bihotzez.

«Hurbil nadin, bada, mezu garrantzitsu honen harira, alferrikako betarik galdu gabe, guztiok ezagutzen bait dugu denborak gure herriarentzako —eta aurrerapenarentzako orokorki— duen balio neurrigabea. Lehen aipatu bezala, oraingo honetan mesede larri bat eskatu beharrean gaituzue, ez, noski, gure on pertsonalerako, gure herriaren osotasunari dagokion on beharrez baino. Gure herriaren osotasun hori izan behar bait dugu beti kontutan herritar guztiok —eta agintariok batik bat— geure etekin pertsonala baino lehen.

«Eta gaur, hain zuzen ere, eskakizun gogorra egin behar dizuet oso, garratza benetan, gure herriarekiko ardura larri horri erantzuteko: zuen heriotza komeni zaio gaur gure herriari, are gehiago: nahitanahiezkoa zaio bere aurrerabideari jarraitu ahal izateko. Benetan, gure erabaki garratz honen azpiko arrazoien sendotasuna eta sakontasuna ulertzen jakingo duzuelakoan gaude. Hemendik hiru segundu barru teleaparatu honen barneko lehergailuak eztanda egingo du. Besterik gabe, mila esker eta agur t'erdi: hiru, bi, bat.»

Leher eztanda izugarria, zurezko etxe txikia airean zehar mila puskatan sakabanaturik, ikaragarritzko sua, eta kea, ke mardul eta beltza, dena errauts bihurtu arte.

AMONA RAMONARI, UMILTASUN OSOZ ¹

Feliciano Peláez Arregi.

Ba, beste asko bezalako neguko goiz lainotsua zen. Beno, iratzargailurik gabe ohituraz klasetara joateko orduan jeiki nintzen ohetik. Gurasoak ez zeuden bere ohean, arraroa zen. Arrebari galdetu nion eta hiru hitz soil erantzun zizkidan:

—Amona hil da.

Bihotzak leporaino salto egin zidan eta taupaden mar-txa azkarrago hasi. Burua bihotzeraino makurtu zitzaidan, aurpegia tristatu, baina begietan ez zen negar malkorik ageri.

Amona gogoratu nuen. Oroitzapen gozoak etortzen zitzaiz-kidan burura.

Bere esku hezurtsua, bere azal zuri lasai fin garden heze beroa. Eta inoiz ez zaizkit bada ahaztuko kartetara ibiltzen gineneko momentu zoriontsuak, lasaigarriak.

Eta nola esaten zuen berak!; «cero a la izquierda» zela!

Orduan zenbait segundutan inorrek ez zuen ezer esaten, ez zion inorrek erantzuten hanka sartzeko beldurrez.

Mutil gazte batengaitik bizia emango zuela esaten zue-nean bezela. Bere etorkizuna hiltzea zela esaten zuenean be-zela...

1. Irunen gaztetxoan Lehiaketan Lehen saria hartu zuen 1984an.

Lehenengo: iragana, bere ile zurizko buru bigun eta gogorrea huts infinito bilakatu zen. Amonaren zerebruak «To begun again» egin behar izan zuen. Lapur zikinen batek adimena, gogorapen guztiak lapurtu zizkion. Eta gero, hara!, kitto!, bukatu da!; txoriño bat bezala gelditu zen betiko edo eta dirudienezko lotan, lotan. Patxadan goxo-goxo.

Amorru ikaragarri batek erretzen, karruskatzen dizkit erraiak, arima. Ah! Zein nerekoia nintzen. Zein berekoia zen nere arima. Amona gaixoak azkenik lortu zuen pakea eta pake espirituala. Hara, han goian salbamena zero urdinean, gauzez beltza eta itxaropen argitsuz betea.

(Kendu nahi dizkiot, «salbamena», aurreko esaldian erabiltzen dudana hitzari, nahiz eta amona bizitzan pertsona nahiko erlijioso izan, konnotazio erlijioso kristau katoliko guztiak. -ala!). (Nere ustez denok lortzen baitugu delako salbamen hori. «*To er mundo e güeno*»).

Eta ni, zein nerekoia naizen!, neregatik izango balitz amona bizira bueltatuko nuke. Baina ni ez naiz inor. Barkapena eskatzen dut.

Baina nor izan zen salbamena ekarri zion hori?, nor leku berrira, leku hobeagora bialdu zuen hori?, nor adimena kendu eta hil zuen lapur hori?

Destinoak?, gizaki bakoitzak idatzia daukan patuak? —Bai, seguraski errudunik ez bilatzea izango zen erantzun zuzena...

Baina horrek ez dit balio. Errudun bat aurkitu behar dut aiherkundea non botatzeko, norbait, zerbait madarikatzeke.

Hara gizakion sinua! Zelako txorakeria! Ez ahal gaituk inoiz gaudituko, zibilizatuko (Honako honi ez badiogu zibilizazio deitzen eta hitzaren beste esanahiean)... Baina hori orain ez zait batere komeni. Ez pentsatu eta jarrai aurrera.

Katu beltz itsusia ikusi nuen erabat pozik eta lasai niri begira. Hara, gosez edo miauka.—Zurekoi alena.—Zein ondo bizi zaren hemen patxada osoan egun guztian ezer egin gabe, janaria bilatu beharrik ez, muturrean duzu miau eginaz; hara amatxoren ume txiki maitagarria bezala, benetan bizitza erraza. Inungo arazorik gabe, zurea eta zuretzat bakarrik den lurraldean errege. Benetan abere praktikoa eta berekoia katua, hitzok dakarzkiten esanahi guztiarekin.

Abere anker lapur eta basatia katua...

Eta hain ase, hain pozik, hain lasai, hain jakintsu ikusi nuen, orduan konturatu nintzela; —Bai jauna. Hi haiz lapurra. Hi haiz hiltzailea. Hi haiz salbatzailea. Eta amona gai-xoa eta zorionsua, bai, hi haiz erruduna.

Ah! katu beltzitsusiankerlapurzurekoi basatinazkagarrimadarikatua!...

Katu beltzak, katu beltz itsusiak bere begi urdin txikiez egin zidan erakarri. Hipnosia miresgarritz. Koxkorrena zozoenazintzoena zen, zen.

Eta ondoren etxera ekarri nuen. Denetatik, hura hautatu nuen.

Eta abuztuan. Abuztu hasieran katu txiki zikinak...

Orduan bai egoten zen loo, loo. Aktiboki loo.

Eta ni, eta ni berriz orri tekladun zuri beltzetan murgildurik.

Eta ni, eta ni berriz orri tekladun zuri beltzetan murgildurik, m u r g i l d u r i k.

Katua abere misteriotsua; bere basoko arbaso basatien ekintzez, instintoz eramana, etxean bizia guztiz mugatua espetxe batetan bezela beldur zegoen: eta kanpoan zer aurkituko, eta itxaropen ezak eta askatasun ezak mendekua ekarri zuen, katu beltz itsusiaren mendekua;

Bere begi urdin txiki sakonak inpernuko eguzkiaren isladatzaile bihurtu ziren, margoa zen sakona, ispiluaren margoaren sakontasuna, gezurretazko hirugarren edo laugarren dimentsioan edo egitazko... baina bai sinistaezinezkoa (Hitzak dakarren esanahi motzenarekin). Orduan irten zen amonarengan argi izpia bat, margo bat bezala:

Margo dirdiratsua baina ezkutua, urrezko eguzkiaren olio izurtzearen izkutaleku beltz, marroi sarkorretik, eraztun jangarri edo erakargarriz.

Inguratutako tximista zuzen dardarakor biraka eta apetitoso luze-luze paralelo batek mozten du, banatzen du denbora kontaezina; baina ez dario lur isurkitik ke lasairik... (Unetxoa). ...Baizik eta plastiko txundigarri errearen deskonposatu teatralaren lamina txiki beltzok urrezko argi izpi ingrabitorio eta mikroskopikoekin milaka bikote dirudienez perfektoetan bilduta denboratik at dagoen dantza ixil mugikor jira-biran asti guztiei iseka eginaz astiro-astiro goruntz-goruntz haizearen aldaketa leunengan gidatuak izaten utziaz, zoriontsu zindoazten.

Eta amona, han, nahiko pasiboki, amonatxo umil doi geniotsu hari, hark egin zion erregali, opari eman zizkion bere biziko bereizitasun jakin jakintasan, ontasun etorkor elbarritz, hura izan zen bere, bere sari.

Eta amona, han, bakarrik, laugarren adinean. Bururik gabeko mamu txuri, eme ezezagun bilakatu zen. Sufrimendu eta beirazko kaiola zuri hotz-bero, hotz konpartituan.

Eta katua, hemen, lotan, aktiboki lotan, besaulkian anai-arrebaren magalean. Askatasun ezak, itxaropen ezak, gogaitasunak, beldurrak, espetxean zegoela kontzientziak egiten zion tristatu eta batera gaiztatu, amonaren ontasun haundiagoa lapurtu. Eta bere begiak, bere begiak gauez izugarriak eta maitagarriak, baina lasaigarri, liluragarri, jakingarri eta deskribaezinak.

Hasieran begi urdinezko zen katu txiki zikina bitartean egin zen haundituu haundituu. Begi izugarrizko monstreu

beltz itsusi beldurgarri baina babeskabeko bihurtu zen. Lehengo katu bizia, ezinegonaz betetako katu unduria kristoren pantera beltz hundia, lasaia, beti lotan dagoen arra bilakatu zen oraindik ere anai-arreben eskuetan, besoetan, magalean lotan.

Animalia, guztiz sobatua, egun guztia inungo irtenbiderik gabe egundaino eta betirako... Amonaren arimaz egin zen hornitu. Amonaren adimenaz, bere gogoez egin zen jakintsu; egin zitzaion burua haunditu eta belarriak eta begiak. Baina ez zitzaion bada jakintasun hori ezertako balio, ezin bait zuen zabaldu, bera ere ezin zen aprobetxa; bere garaun haundituen leku ezkutuenean, iraganezinezkoenean, katu berak esna ezin zezakeen garaunen txokoan zegoen gordeta. Katuak beste zerebro miragarritsu baten menpean egin zuen lan guztia gogorik gabeko beste esklabu automata, robota bezala. Hura zen bada bere funtzioa, bere egin-beharra bete zuen manakorki. Behar bada amona Ramonak bazekien. Behar bada bere garaunen txoko ezkutuenean amonak unibertsoaren sekretu komunikazina, zabal-ezina zeukan. Edo eta nik uste denok daukagula sekretu hori gure garaunen txokotxo iraganezinezkoenean beste zenbait ahalmen bereziki batera leku iragangarriagoetan; baina ez dakizkigu nola erabili, nola kanporatu gure jakituria guztia. Amonak beharbada jakituria hori kanporatu eta zabaltzeko metodoa aurkitu zuen bere bizitzako egun eta urteen esperientziaren bitartez.

Egunero-egunero zerbait gehiago ikasten. Egunero-egunero jakintsuago izaten azkenik amona Ramona heldu zen gailur infinitora. Eta orduan katuak bere lan bikaina egin zuen inungo frogarik utzi gabe.

Beharbada. Bai jauna, beharbada. Ez daukat inungo frogarik katuak halako gauza egin zezakeenik. Baina ezin dezaket egin ez zuenik ere esan.

Agian, ez da batere logikoa amona eta katuaren arteko istorio hau. Baina logika bada, berez ez da existitzen. Irudimenaren fruitu bakarrik da ipui delako hau. Eta hortarako balio izan du ipui delako honek; nere irudimena askatzeko eta kezka, gorroto, uste, pentsakizun, askatu behar-beharrezko nituen gauza guztiak askatzeko aurrean kontraesanean zizukeen inor gabe. Erabat asaskatzen zara orriaren gainean, hizketan bat batean ez zaizula hain polit ateratzen. Nik ez bait dut, oraindik behintzat (Iluso — dio ondokoak), zuentzat, irakurleentzat idazten, neretzat baizik. Neretzat idazten dut bada, baina horrek ez du esan nahi idazlanak neretzat bakarrik gordeko ditudanik. Atsegin zait eta agian beharrezkoa dut jende gehiagok irakur dezatela ni aurrean ez nagoenean eta gero bere eritzia eman nazatela.

Eman ta zabal zazu. (Eta ondokoak berriz ere: —ilusoo). Nahiz eta nik pentsatu eta den-denak dira nere pentsakizun..., dena hasieratik prestatua zegoela. Hura zen bere funtzioa; nik halako ipui delakoa idatz nazan.

Eta azkenik amona hil zen. Guztiz bilutsik, han, kaiola zuri hotzean bukatu zuen bere bizia. Txoriño bat bezala gelditu zen; abia zuen betiko pakera. Txoriño bat bezala, katu beltz itsusiaren lehen eta azken biktima. Txori txiki-txikia ixil-ixilik umiltasunaren sinbolo bezala; bere arima ikusezina errugabea alhadura eta kontzientziarik gabeko berez ona dena egan goruntz-goruntz doa zurtasun garbi garbi garbi batek inguratzen duela (Orain bada, neretzat, ikusezin den guztia txuria da), eta bere gorphila basakeriaren ontasunaren kurdeltasunaren eta pena ematen digun aztarna hilgaitz bezala agertzen da halako lurralde ematez sorgor eta zentzuzkoan.

Katuek egan ez dakitelako jelsiaz barrendik erreta txori txiki errugabeak hiltzen dituzte. Eta katu beltz itsusiak ere amona hil zuen jelsiaz beteta amona beretzat nahi bait zuen,

urrutitik erabat maite zuen, bere andregai zen eta bere jakituria ere irrikitzen zuen, bekaizten zuen oso. Eta zelako komeria! ezin ziren juntatu, eziren bada ezagutu. Orduan katu gaiztoak urrezko arrautzeen oiloa hil zuen, unibertsoaren gaiztakeria guztia bihotzean kolpatu zitzaiola amona espiritualki erabat biluztu eta agonia luzea ondoren hil zuen.

Noski, bera ez zen konturatzen baina azpilian deaburen batek kontrolatzen zuen. Baina horregatik ez zaio errurik kendu behar. Lapur anker gaizto orri!... baina utz iezaiozue bizia, katu maite begi hori beltzari, utz iezaiozue bizi. Azpian oso ona zara, ezta hala? (Ondoan daukat, hemen azpian eta bere begi haundiekin munduko inozentzia guztiaz gora begiratzen dit).

Eta hiletetan; Doinu miresgarri bat irtetzen zen amonaren zerraldotik eta abots sendo baju boteretsu batek zenbait hitz askatzen zituen aidera, nik gutxienez aditzen nituen, ez dakit inor gehiagok adituko ote zituenik, ezta batere axola ere...;

Amona Ramonak, amona Ramonak
min du, min du. Ez zuen katua ezagutu.
Katua ezagutu izan balu,
egingo zuen bizian zerbait kontatu,
egingo zen bizian poeta bilakatu.

Amona Ramonak, amona Romonak
min du, min du. Ez zuen katua ezagutu.
O katu zozo oilo zaluo tokolo-go.
A amona zuri, hau da zure zaindari.
Har ezazu da munduaren opari. Zuri, amonatxo zuri,
zuri.

Baina orain horrek ez du batere ajola, amona zoriontsu da leku berrian. Eta berriz hastera doa roilo berria iragana ahaztuta.

Eta hiletetan; etxeko erregeak, ezer ez dago gaizki egirik etxeko bijilante ernearentzat, ez zion kokarik egingo. Ez zuen bere azal lasai fin zuri heze beroa urratuko. Ez bait da urra ezinezko. Bait da urra ezinezko majestate errugabearen azal gozo beltz lehor beroa. Bero-beroa.

Deskribapen mingots ezti, deskribapen ezti mingotsa.

Izugarria, nazkagarria — «*Kumple i te bas.*» — dio.

Nazkagarria, izugarria — «*Si te bas kumple.*» — ihardetsi.

Eta han, dirudienezko, protagonista parrez lehertzen, parrez lehertzen, farrez lehertzen.

AMAIERA

Amonak sarritan kontatzen zizkigun halako esaerak eta orain amak sarriagotan:

—Bi ahizpa ziren, eta batak besteari:

—Zer zare pentsatzen ta pentsatzen?

—Ba... Ni hiltzen naizenean, Don Pedro abadea jungo dala nere aurretikan kantata ta mandata. Eta ni nola parriari eutsiko diodan nago pentsatzen ta pentsatzen.

PERO DE AVENDAÑO

Federiko Krutwig Sagredo

Nire aitonaren izena' Martin Avendaño ko zen. Hura oso zaharra zenean, eta ni oso gaztea, ezagutu ukhan nuen, baina gure aitak' aitonari buruzko ixtorioa kontatu zeraukun. Nire aitona' urthe hauietan eta gaztea zela' Genuara eta Amalfira joan zen, eta hemen oso ongi nauegatzen ikasi zuen. Askotan Bilbora ta Bermeiora ethorten zen, baina egun batetan desagerita ez zen itzuli oso zaharra zen baino lehen. Gure aitari kontatu zeraukonez genuar batzuekin mundua ikhustera joan zen, zeren-eta orduan erraiten hasi ziren bezala' mundua borobila zateken, eta nire aitonak' zoriontsuen uharteak ikhusi nahi bait zuen. Orduan huni buruz' Genuan gauza mirarigarriak entzun zituen, eta huntara Fiorentzara joan zen. Hemen nire aitonak ikasi zitazkenek' mundu berri bati buruz verba egiten zuten. Fiorentzan gubernuan Collucio Salutati zegoen eta edonundik jakitun handiak ethorriak ziren, batez ere Konstantinupolitik, hauietan Emmanuel Khrysoloras.

Egun batetan horrela nire aitonak' genuar, pisatar eta bizkaitar batzuekin nao handi batetan, eta Fiorentzako jaunek emanikako laguntza bati esker, Kalperen Haitzaren aurrean pasatuaz' Itsaso Beltz handian sartu ziren. Nire aitonak' aitari kontatzen zeraukonez' Itxaso Beltz hortan egun batetan ekhaitz handi-handi batzuen ostean' ontzia galdu zitzaizen eta bera uharte ez-ezagunaren ezpondetan atzarri

zen. Horko genteak' zuriak ziren, baina behar bada gu baino handixeago... eta nire aitonari haren ondoan bildu ziren uhartetar batzu hizkuntza ezagutu batez mintzatu zitzaizkion. Erran dudan bezala nire aitona bizkaitarra zen, eta bere aburuz horko uharte haien gizon primitivuen hizkuntza ia-ia euskara bezalakoa zen. Herri huntako gizonek eta emaztekiek ez zeduzkaten gure janzkiak bezalakorik, baizik eta ardi larruez jantzita zegoen.

Huna hemen uharte huni buruz nire aitonak kontatu zeraukuna: Uharte huntan zakhur eta orak zituzten, eta jateko okela bezala ardiak eta ahuntzak. Batez ere ahuntzak edonun zegoen, eta hunela jakin zuen nola uharte huni askotan AHUNTZ-UHARTE izena emaiten zioten, baina bertze batzuetan ere *Mahatserri* edo ta *Titerogaitza*. Nire aitona heldu zenean, oso bakhetsu zen herri hau' errege eta erregina baten gubernu baten menpean bizi ziren. Errege hunen izena Zontzamatzen zen, eta Erreginarena' Fayna. Erregeak eta erreginak Martin de Avendaño, nire aitona, beren etxerat eraman zuten, horko janzki berriak eman zerauzkioten, zeren eta nire aitonak' berenak ia galdu bait zituen, eta errege ta erreginarekin heien etxean bizi zen. Hemen etxeak' harriez eginak dira harpeak bai liren, baina nola eguraldia oso ona bait da, perilorik gabe dagotza. Zontzamatzek jadanik seme bat eduki ukhan zuen' Fayna erreginarekin. Uharte huntan ekhandu estrainioak dagotza' huntara gauzak guztiok' heien artean guztiak partekatzen dituzte. Huntara ere nola nire aitona' erregearen etxean bizi bait zen, erreginarekin ere amodioa eduki zuen, eta Zontzamatzek oso pozik ikhusi zuen nola nire aitonak Fayna erregina maithatzen zuen. Hunela nire aitonak eta Faynak' alhaba bat eduki zuten, eta huni orduan Iko izena eman zioten. Zontzamatzen erregeak kontatu zeraukon bezala, Iko eta bere neba Tiguafaia elkharrekin ezkonduko ziren, zeren eta hau errege eta gizon handien familetan ohitura zen.

Gure aitonak Ahuntzuharteko gendeei gauzarik asko irakatsi zerauen... hortara' egun batetan uharte huntan nao handi bat ageri zenean, eta nire aitona berriro, Bizkaira itzultzen

zenean' uhartetar guztiok nigar egiten zuten, batez ere Fayna ederrak, bere besoetan orduan Iko zedukalarik.

Neuk' hau guztia jakin nuenean, nire aitona bizi izan zen Zoriontsuen Uharte hortara joaiteko nahia nuen. Gaztela ta Bizkaiko iraultzeak' Enriko II hil zenetik, eta haren postuan Iban II eta Katalin Lakasterkoa gubernura ethorten zirelarik, nire herria utzi nuen, eta Frantziaren Erregearen menpean zegoen Doniban-Lohitzunera joan nintzen. Hiri huntan adiskidetu nintzen Johannes de Bethancurt jaunarekin, eta nik neure aitonari buruz nekitzan gauzak kontatu nerauzkion. Jaun hori Larrozelekoa zen, eta orduan uharte hauietara joaiteko gerthurik zegoen, Halakotz Gaztelara joan zen, errege Iban ezagutzen bait zuen, eta heianganik diru lort zitekela uste bait zuen, hunelako expedizione handi baten egiteko.

Johannes de Bethencortek' expediziona aphailatu zuen, eta harekin nitaz bertzalde Gadifer de la Salle ere ethorten zen, halaber gudarien talde bat, eta Jaunaren erleginoa infidelen artean zabaltzekotz, Fray Pedro Bontier eta On Iban Le Verrier.

Uharte huntara heldu ginen 1417 A.D. delakoan. Urthe huntan uharte hunen erregearen izena Guadarfea zen. Nola errege hunek nire aitona ezagutu ukhan zuen eta hari buruz hospea uhartean oso ona bait zen, halatan berehala bere erresuma Gaztelako Erregearen zainpean eman zuen. Bethencortek uharte hunen izena aldatu nahi zuen eta Ahuntzuharte izenaren orde' Lanzarote izena eman zion, Lancelot heroiairen baithan pentsatzen zuela. Uharte hunen genteak gure adiskideak bilhakatu ziren, bainan gauzak ziguratzekotz Bethencortek egoitza berri bat iraikei zuen' gatzelu bat bai lizen, eta lehen hiri huni Rubikon izena eman zeraukon.

Uharte osoa ikhuskatu genuenean eta jakin nola uharte huntatik hurbil bertze uharte bat, hadiagoa zegoen. Eta haren izena ERBENA zela ikasi genuen. Huntara egun batetan Gadifer de la Salle eta Ramon de Lenedan kapitaineekin hara joan ginen. Bainan uharte hau oso zabala izanarren, ez ge-

nuen personarik ikhusten, guztiok gure aurrean ihes egin zutela iruditzen zitzaikun. Berhain geu Erbenaren menperatzeraz joan ginen bitartean Johannes de Bethankort tropa eta gizon berrien bilha Izpailira joan zen. Bainan gurekin ethorri ziren tropetan gizon gaizto bat ere ba zegoen, eta hura Bertin de Berenbal zen, eta geu kanpoan gegozen bitartean, hark pentsatu zuen nola uhartearen errege bilhaka ziteken. Huntara egun batetan eta engainoaz' Ahuntzuhartearen genteak Alde-Handian izeneko herrian bildu zituen, eta bazkaltzen zirela lothu zituen gatheetz, Izpailiarat katibuak bezala esklaboen merkatuan saltzeko asmoaz. Bainan nola uharte huntan gizon indartsu batzu bait zegoen, hortara Aguako gizon indartsu batek ihes egin zezaken, bai eta geroagoz Guadarfeak ere. Uharteko gizonak bildu ziren eta Rubikon gaztelua etsi zuten. Benerbalek berarekin katibu hartu zituen gizon eta emazteekin ihes egin zezaken, eta Izpailira heldu zen, non eta berarekin ekharten zituen personak eskalboak legez saldu zituen. Bainan orduan' Izpailian ere Bethankourt ba zegoen eta Gaztelako Erregeari eskatu zeraukon Uhartearak konkistatzeko agintza eman ziezola. Bethankurt berriro Ahuntzuhartera itzuli zen, bainan orain' uhartetarrak albaratu ziren Guadarfearen aginduarenpean. Gathazka handiak gaztelarrek egin zituzten. Bainan bethi herri guztietan traidoreak egoiten dira, eta huntara Atxa izeneko persona bat ageri zen Gadiferen kanpamenduan eta giristino bilhakatu nahi zuela erran, bai eta jakin zerauen zein lekhotan Guadarfea eta bere lagunak zegoen. Hauk' Akatife herriaren inguruenatn Zontzamatzek iraikei gaztelu batean zegoen... Horra heldu baino lehen gathazka handi bat izan zen, non eta gaztelauek gudaririk asko galdu zuten, bainan Atxari esker gaztelarrak Akatifen sartu ziren, eta Ahuntzuharteko gudari guztiak kaptibatu zituzten. Rubikon gaztelura eramaiten zituela' gathazka handi izan zen lekhotik pasatu ziren, eta nola orduan ere eroritako gaztelau gudariak ehortzi gabe bait zegoen, Gadifer hasarratu zen, eta Guadarfearen loktenenta zen Albi, hor bertan mendeku gisa hil nahi zuen. Guadarfeak hau jakin zuenean Gadifer garna joan zen, eta Albiren postuan bere burua eskaini zeraukon, zeren eta erraiten zeraukonez, Albi bere loktenenta bai-

zik izanik ez zen. Hau Gadiferek entzun zuenean' hunelako gogo handiaren aurrean biok barkhatu zituen eta gaztigatu gabe utzi zituen.

Rubikonen gatibu zegozelarik' heingana ethorri zen Atxa, eta giristino bilhakatu behar zutela erran zerauen, bainan Gaudarfeak erran zeraukon: «*Hora tronkegabe!*» (hau bait da gure hizkuntzan: *hora (zakhurra) ahalkegabea!*) Guadarfeak berriro bere gatheak aphurtu zituen eta itzuri egin zen. Hunela Ahuntzuhartekoek berriro beren printzea zendukaten, eta hola egun batetan Atxa atxilothu zuten. Hura orduan hil zuten eta erre. Berhain gaztelarren botherea handiegi zen, eta huntara ere egun batetan guztiok giristino bilhakatu ziren, eta uharte huntan jarkitza hamaitu zen.

Bainan hemen jakin genuen nola hurbilago edo urrunxeari bertzeharte batzu bait zegoen: hauietan dudaraik gabe *Guantxen-Etxea* izeneztatzen zutena, gero bertze uharte handi baten izena: *Tamaran* zen. Bainan ba zegoen bertze hirur uharte ttipiagok: *Gomera*, *Hezero* ta *Benagora*.

Orduan neuk deliberatu nuen Izpailira joaiten Gaztelako Erregearekin mintzatzekotz, zeren eta bitartean gaztelar geizto batzu gugana ethorri bait ziren, eta neuk nolabait nire izeba Ikoren gentea jagon behar bait nuen. Horrela Erregearen orden batekin Gomerara joan nintzen.

Urthe huntan jadanik Gomeran ba zegoen jaun eta tynran-noa bai lizen Peraza. Eta hau baino gehiago bertze uhartetatik ethorri ziren kapitain batzu ere eho zituen. Gaztelarrak uharte huntara ethorri baino lehen laur zathitan banandurik zegoen, hau da, laur herrialde beren buruzagiekin. Herrialde hauiek izen hok zituzten *Agona*, *Mulagua*, *Ipharlan* eta *Arona*, eta buruzagiek: *Aguahabirehe*, *Abergekeia*, *Aguahal* eta *Unihepe*. Uharte hunen genteak oso indartsu eta handiak ziren, bertze uharteetan ere baino indartsuago, heien hizkuntza ia ia Bizkaikoa zen, eta ba zuten mintzatzeko forma bat, xorien arauetara, txistu egiten mintzaten bait ziren. Uharte hunen nativuek' Peraza baino lehen' heldu ziren gaztelar kapitainen kontra gathazka handiak eduki zituzten, eta gehie-

netan buruzagitu ziren. Ba zituzten heien artean azti hospetsu batzu, hauietan batez ere Eiutxe izeneko bat. Hunek ere nolabaiteko erlegino bat irakatsi zerauen, erraiten ezen Zeruan Jaun bat zegoela, zeinen izena *Orahan* bait zen, hau da *Ortze-jaun*. Hau' bere aburuz gizonen egiazko jainkoa ta adiskidea zen, Herriak hala-ere askotan adoratzten zuen *Hirguan* izeneko jinko bat, eta hura Asten-Eheitan bizi zela zioiten, Hau da: *Hir-guan* = *Firu gizona*, ardi batek bezala hilez bethea bait zegoen, eta hoiien hizkuntzan *guan*, gizona bait da. Asten Eheita Gomeran lekhu baten izena zen, hau da bizkaiaraz: *Haitzen Iffernu*.

Uharte hunen aztiak ere' eresi batzu egin zituzten, zeinetan ere gaztelarren kontrako gathazkei buruz mintzo bait ziren; hauietan ezagutuena zen hauxe:

Aika, maraga ait-itu, aguak hal maika geré

Dema atsi hani, neiga haru bizi ale-malai.

Hau da bizkaiaraz

Jaiki! ongiethorri ait-zintez, hauzoek hil (dute) ama gurea,

Dela atxi (bildu garen) hani (ordua), neba gura (dot) bizi, galdu (garelakotz).

Uharte huntako gizonak ere ardi-larruzko janzkiak zituzten, eta gerriko gorri batetaz finkatzen. Hede gorriak' *tainaste* (hau da: *tain-atze*) delakoaren erroetatik atheratzen zituzten kara batetaz karaztatzen zituzten, eta gure zamarrak bezalako janzkiak ere batzuetan zituzten, zeinen izena *tamarko* bait zen.

Hernán Peraza uharte huntan' Ena Betriz de Bobadilla bere emaztearekin bizi zen. Nahiz eta Ena Beatriz oso ederra ta polita zen; German Fernandezek namoratuta zen gomera tar nekatila batetan, eta hauxe bere amorantea zen. Gomera tar neskatila hunen izena *Ibaia* zen, eta Guahedun izeneko harpe batetan bizi. Nola Peraza tyranno bat bait zen, Gomerako gizonak hura hil nahi zuten, eta huntara Hupalupu ize-

neko buruzagi baten agintzapean bildu ziren Mulahuako genteak. Guztiok ba zekiten nola egun batetan Hernan Peraza bakharrik, ezkutaria batekin eta paie batekin ethorten zen. Gomeratarretan batez ere kapitain ona zen Huatakopertxe izeneko gudularia... Haukiek' Peraza zegoen harpea inguratu zuten. Orduan Ibaiak' hau ikhusi bait zituen, bere maithaleari emaztekin janzkiak eman ziozkan ihes egin zezantzat, bainan itzurten zenean Gomerako emazteki zahar bat ezagutu zuen, eta orduan dioitenez Ibaiak erran zeraukon amoran-teari bere hizkuntzaz:

Ahe ihes ohake, haben tamarez. Hau Bizkaiko hizkuntzaz bait da: *Oha ihes, ohake! hemen dathortza* Gaztelarrak hola ihes egin zezaken, eta geroz gomerarren kontra mendeku egitera bidali zuen Pedro de Vera, nafar buruzagi bat. Hunek batez ere gomeratarren kontrako gorrotoa erakhutsi zuen, Bere osteaz atakatu zuen Garagonatxe, non eta gomertarrak ihesik bait zegoen. Beratarrak' genteari amnistia ta barkhamendua eskaini zeraukion, bainan gomeratarrak hartu zituenean guztiok eho zituen. Bainan ez bakharrik albaratu zirenak, geroago *Agaña* izeneko herrira joan zen, eta hemen bizi ziren persona guztiak atxilothu zituen eta San Sebastian izeneko gaztelarren hirira heldu baino lehen' bidean kanariar guztiak hil zituen. Huntara errurik ez zituzten personarik asko eho zituen, eta bertze batzu atxilothu eta esklaboak bezala sal zitzatentzat Izpailirat bidali zituen, edo ta batzuetan gerthatu zen bezala Alonso de Cotarekin triskantza handiak egin zituen. Hunek berarekin atxilothu gomeratarren eramaiten zuen esklabogaien kargamendua, Ahuntzuhartera heldu baino lehen guztiak uretara bota zituen. Hau Gomeran gerthatzen zela, hor ba zegoen oso persona noble bat, On Juan de Frias izeneko Apezpikua. Hura jaiki zen Peraza eta batez ere Beratarraren kontra erraiten zerauela, errubakoen ehotza debekaturik zegoela, eta ezin egin zezaketela, huntaz gainera persona hauk jadanik giristino zirela, eta ezin bidal zitezkelanehora ere esklaboak bai liren saltzekotz. Perazak orduan Friasi hil nahi zuela erran zeraukon. Mementu huntan neu Friasekin Izpailira joan nintzen eta Perazaren eta Beratarraren kondukta geiztoa salhatu generaukon Erregeri. Erregeak'

gomeratarrak gizon libroak zirela jakin-arazi zeraukun eta Peraza ta Beratarra uhartetik ekhendu zituen eta Izpailirat preso eramán. Hemen gatheaz kargaturik gartzelan sartu zicen, eta gartzelan urtherik asko egonaz geroz Peraza legenardun hil zen. Erregek' Izpailian zegozen gomeratarrak libratu zituen, eta beren uhartera atzera itzul zitezela utzi zituen. Bainan bitartean... gartzelar geizto hauiek uharte huntan personarik asko eho zituzten.

Uharte nabusiak menperatu baino lehen, hau da Tamaran, Benagora ta Guantxen-Etxea menperatu baino lehen urtherik asko pasatu ziren. Uharte ttipietan dudarik gabe ttipiena' Hezero izenekoa da. Gartzelarrek Batzuetan Herro ta Fierro izenak emaiten zerauzkioten, berhain urharte huntan nehun ere ez dago burdinarik... bai eta erran genezake urarik ere ez dagoela. Nola ithurbururik ez bait zegoen' gartzelarrek beren buruari galde egiten zioten, nondik hezerotarrek behar zuten ura atheratzen zuten. Hezero huntan zuhaitze mirakuilutsu bat dago zeinen izena GAROA bait da, Ez da haritz bat bezala, zeren eta haren adarrak eta orstoak ia ia sustraiak bezalakoak bait dira, oso handia da ezki bat bai lizen. *Garo* hunen azpian sortzen da ithurburu bat. Zuhaitze hunek' gabetan haren inguruan aërean dagoen hezetasuna biltzen du bere adarretan, bere erro-besoetan, eta azpian hunela artzen duen ur guztia biltzen du tegi batetan. Hunela Hezerotarrek Garoa izeneko zuhaitze sainduari esker ura dute, nahi duten bezainbertze.

Hezerotarrek ba dute erlegino bat, eta haren jainkoari *Eraorahan* izena demote, eta ba dute jainkosa bat' *Moneiba* izenekoa. Bi jainko hauk' beren aburuz uharte hunen Arkhaitzen thini gorenentan bizi diratezke, bainan heien debruak zerrri baten aspektua izanez, *Haitzen-Eheita* batetan bizi dela dioite. Uharte hunen ohidurak ere eso bikainak dira: hemen gizon batbederak nahi dituen emazteki guztiekin ezkontzen da, eta halaber emaztekiek, nahi ditucen gizon guztiekin; arrebak nebekin ere bai. Ba dute uharte huntan ere gaizkileak sartzeko gartzela bat, lurpean, zeinaren izena *bensiaharea* den. Oso koldarrak ziren uharte hunen genteak, eta

ohoin ba arrapatzen dutenean, lehen aldiz begi bat khentzen diote, eta bigarren aldian bertzea hunela itsu izanki ez lezake ebats.

Uharte hau' askotan gure munduaren azken thokia dela erran dugu, neuk Amalfin eta Genuan entzun dudan bezala ez dago holakorik. Uharte hauietako genteak gauzarik askotan bere orhoitzapena galdu dute, eta orain ere ez dakite, ontziak egiten uharte batetik bertzera joaiteko, bainan Hezeron egon nintzanean gauza miragarri batzu entzun nituen. Berhain uharte huntan Ione izeneko azti bat egonik zen, zeinek hil baino lehen prophetizatu bai zuen ezen bere gorputza hautsa bilhaka ledin egunean, itxasoaren gainean urrunetik *Eranoran* (hau da: *herri guztien jauna*) izena duen jainkoa adoratzen luen herria ethorriko zela, jainko hau adoratu ta goretsi behar zutela. Hunela hil zenean heien ohiduraren arauera, harpe batetan sartu zuten. Eta huna nola bere gorputha erhaustu zenean... hilabete batzu pasatuaz' geroz gaztelarrak beren untziez ageri ziren. Hezerotarrek. prophe-teia huntan sinhisten zutela' ez zuten ezein ere jarkitza egin, eta gaztelarrak egiazko jaunaren apostoloak bai liren agurtu zituzten.

Uharte huntan ere ba zuten eresi bat, niri kontatu zerautaten. Hunen arauera kantatzen dute nola neskatila bat Agarfu izeneko muthil bateran maithemindua zuen eta bere maithalea gauza guztiak baino gehiago nahi zuen. Huna hemen eresi hau:

Mi mera haná, zinu zinhuhá?

ahemen, aten, haran

Ba ze Agarfuk be nere naza.

Hau bait da Bizkaiko hizkuntzan:

Ni naroa huna? Zertara zenuke?

Esnea, ura, ogia (huruna)?

Ba ze Agarfuk beha nahi naza

(Agarfuk behatu nahi ez ba naza).

Ba ziren orain dano uharte nabusiak beren egiazko jaun-
nen eskuetan... Batzuek erraiten zutenez, urrengoa menpera-
tzekotz Tamaran izan ziteken... Neu' bitartean, hemen nire
Iko izebaren herrietara berriro itzuli nintzela, neure lana
egin ba nuela pentsatzen nuen, eta Bizkaira itzuli nahi ez
bait nuen, bethi bezala gure herrian, gauza tipien kausaz per-
sonak elkhar ehotzen bait zituten, batzu ganbotarrak bait
ziren eta bertzeak oinaztarrak. Holakotz Pisara ta Fiorentza-
ra itzuli behar nukela nire buruari erran neraukon hor bizi
ziren gizon eta poeta handiei neuk' herrialde hauietan ikhu-
si nuena kontatzekotz. A.D. 1450.

Huntara' Hezeroko Aztiak erran zerautanaren ekhinzaz
joan nintzen Fiorentziara Hiri hau' zinez heiek erran zerau-
taten «loren hiria» bait da, eta ethorri nintzenetik berhala
enthelagtu nuen, nola hiri huntan batez ere dagozen lore ede-
rrenak' hor bizi diren gizon hospetsuak diren. Hiri huntan
ez da gerthatzen Uaskoen herriko semeetan ohia denez, nora
ta Itsas Belatzenaren erdian zegozen hiriak desageri direne-
tik, bakharrik kainensemeak ethorriak diren, non eta bakha-
rrik Kainen leinukoak ez direnak' Iliona ausiabartu zutenean'
ethorriko Hektoren semeen leinu ttipi-ttipi batzu diren.
Fiorentzan gizon jakintsunak maithe dituzte, eta ez dagotza
uaskoak bezala inartsiak betherik, eta hok baino gehixegoa
direnak hil nahi ez dituzte. Hortakotz Fiorentza da gizon no-
bleen eta izpiritu nobledunen herria, eta ez Euskalherria;
zeren eta hemen' egiazko Hektoren semeak talde ttipi-ttipi
bat baizik ez bait dira.

Fiorentzan' hunela oso gizon famatsu bat ezagutu ukhan
nuen, Argyropulos izenekoa; haren izenak erraiten duenez,
gizon hunek ba zedukan bere gorputzean egiazko zilharrez-
ko bihotz bat. Huntara egun batetan erran zerautan: «Ethor
zaitez nerekin, ethorkizunean gizon handi handi bat izanen
den haur jaioberriaren ikhustera». Biok joan ginen Piero di
Cosimoren ikhustera, zeinen emazteak, Urtharrilaren lehe-
nean seme bat eduki bait zuen. Eta Pierok' haur ttipia era-
khutsi zeraukun, eta Argyropulori: erran zeraukon: «Semetto
hau' zure ikaslea izanen da. Eta hari irakatsi behar derauko-

zu, bai zure hizkuntzaz, bai eta zure herrian gizon zaharrek eta hospe handikoek irakatsi zutena, nire semetto haur, gure hiriarentzat eta mundu fidel osoarentzat Iguzki berri bat bezalako bilhaka ledin». Neuk ere Lukretia Tournabonin semea ikhusi nuenean ba nekien, Hezeroko Aztiek niri erranikako Asturua hasten zela. Orduan Argyropulok erran zerautanez Byzantio hiriaren ikhusterat joan nintzen, zeren eta mementu hauietan basamortutik ethorri ziren barbaro odol-zaleek hiri ospetsu hau, jainkoren thronoa, setiatzen bait zuten. Barbaro odolzale eta infidel hauk' Zeltxukoak ziren... eta huntara ere Hezeroko Aztiek niri erranikako bertze propheetiaren parthe bat hulertzen nuen. Bai joan izan behar nukkeen eta ba nekien hunela' hiri haur infidelen eskuetan eta menpean erortzekoa zela... bainan haur baino gehiago Hezeroko Aztiek erran zerautaten ezen, hiri hau' Zeltxuko barbaroen menpean izan dadino, bethiere zoritzarra gure europar herrietan izanen zela. Barbaro Zeltxuko hauk' mementu huntan Mahometoren adoratzaileak ziren, bainan hau baino gehiago Belzebuthen semeak zirelaketz, munduari soilik triskatzen ekhartzen dakite.

Berriro Fiorentzara itzuli nintzen, eta hemen berriro bertze gizon handios bat ezagutu ukhan nuen. Haren izena Messer Leon Baptista Albertena zen. Libururik asko iratzi zuen, eta hauietan oso ona zena: De re aedificatoria.

Alberti, ethorkiz fiorentzara zen bainan Genuan jaioa. Hunela kontatu nerauen nola Gaztelarrak' Zeltxukoak bezala uharte hauietarat heldu ziren, eta hor zegozen gauza guztiak triskatzen zituzten. Orduan Hezeroko Aztiek erran zerautaten: «zuok ere uaskoek' zuen artean kainen odoleko genterik asko duzue, gaztelauak ere' baino tzarragoak; bainan bakharririk zuen artean gizonen talde ttipi, oso ttipi-ttipia ba duzue, Hektor heroi noblearen semeak direnak. Zu Avendaño hori, hauietarikoa bait zara; beraz ez zaitetz itzul kainsemeak gana, gorrotetsiko bait zaituzte, izterbegiak direlako kainseme guztiak bezalakoak. Joan zaitetz Antenoren eta Ainearen semeak gana, eta hor konta iezezu guk zuri kontatuko derautzugun guztia, ezen: Itsaso Belatzenaren erdinan zegoen hiri

hospetsu hura desageri zenean, hor bizi ziren Belatz-Semeak, batzu Borthuetara joan zirela, eta bertze batzu, Arratsaren Herrira: Hemen hiri ormekoak iraike zituzten, eta ber heiekin eraman zuten jainko handiaren irudia berriro jainkoen baitha batetan iphini zuten: jainko hunen izena *Gezalkoa* den, zeren eta Itxas Uren jainkoa bait zen. Egun batetan horra joan behar duzue, eta hara joaiteko Gezalkoak' itxasoaren gainean bide batzu finkatu ditu, bata gure Hezero huntan hasten da». Hau guzti hau' neuk orduan Albertiri eta bertze genuar jakintsu batzuei kontatu nerauen, A.M.D.G., harat joan litezentzat. Bai bada, halakotz hulertu nuen zergatik Konstantinopoliaren templo handiari *Hagia Sophia* izena eman zeraukoten, eta zergatik Bruneleskik Fiorentzan haren pareko bertze templa bat iraike zuen. Bietan nunbait Pallas Athenaren jakintzaren irudia gordetzen zutelakotz. Beinan Athenaren jakintza ez dute lortzen inartsiaz betherik dagozen kainseme uaskoek. Hortakotz gauza validunen izterbegiak eta etsaiak dira, eta egun batetan desgeriko dira, hau ere' uretan arrastorik utzi gabe. Eta soilik Belatz-jainkoen erresumara joanen dira, beren zainetan odol noble dutenak, eta buruan begi urdinak, Ekhiaren argia ikhus dezaketenak.

Heien jainkoa' hunelako baitha batetan zaintzen da, zeinen izena *theokalia* bait da, zeren eta Astalandako gizaseme jakintsunen zainetan jariatzen bait da jainkoen leinuko odola. Hortakotz kainsemeek gorrotatzen dituzte, zeren eta haien zainetan soilik eta bakharrik bait dioa Asten Heitako zakhurren odola. Hauxe berhau' beraz da Hezeroko aztiak kontatu zuten profheteia.

IZANGO DIRA FRUTUAK

Joxean Sagastizabal

Goienetxeko Tomas odol-arrastoa segika zeukala herriratu zen ameskaiztoari hasiera eman zion goiz hartan, isurtzeari alper-alperrik eutsi nahian, eta Plaza Nagusiaren erdian hil zen, Don Jesus medikuaren ahalegin desesperatuei muzin eginez, «Tomas, Tomas, ene Tomas» oihukatzen zion bere emaztea abandonatuz. Altxatu zen Don Jesus, negar malkotan, eta koadroa pelikulan heroea hiltzen denekoa zen, emakume gajo bat gizon hilari laztanka, Don Satur apaiza bere erretoliketari eta herria inguruan, koro isila. Gaizkilea, doi-lorra, nonbait garaile.

Hiletak eta ehorzketa bukatutakoan baieztatu zuen Don Jesusek a hoz-aho zebilena, hankatartea txikituta zeukala Tomasek, erauzita, garbi asko zegoen piztiren batek eraso egin ziola, non eta hor hortzakatuz.

Eta hurrengo hiru asteek herritar bana lapurtu zuten, Zubiurreko Ramon, Makazkueko Antton eta Pagoetxeko Ramiro, eta hau izan zen etsaiaren nolakoa apur bat argitu zue-na, azkeneko momentuetan «azeria, azeria» errepikatuz itzali bait zen.

Herria ez zen herri. Margarita Intxaurza, Ateagakoa, zera esanez azaldu zen, ia itsu zeuden, ia ez al zuten ikusten azeri batek gizonei koska HOR egitea Jainkoaren zigorra zela

derrigor, Ramon eta Ramiro putero ezagunak zirela eta zeruko juezak jakingo zuela beste bien pekatuen berri, animalia Jaunaren morroi leiala zen. Garraisi batean erantzun zioten Tomas eta Anttonen alargunek, isiltzeko Jainkoagatik, beraien gizonak gizaseme maitegarriak izan zirela, eta ia noiztik zeukan Zeruarekin hainbesteko tratua, bera, elizara behin ere azaltzen ez zena, mutxurdin erdi sorgina. «Putero»en alargunek, berriz, hitzik ez, ederki ezagutzen bait zituzten hildakoen ibilerak. Herrian erabat zabaldua zegoen zerbaitengatik zigorraren ustea. Orduan aditu zen plazan, hor zegoelako nolabaiteko biltzar iraunkorra, Sistiagako Joxek bota zuena, azeriak pizti bilakatutako pertsona behar zuela, gogoratzeko ipui famatu hura, herrian jipoitutako umearena, basurde bilakatu zena, emakume baten arimak gidatzen zuela haren jokatibidea, gizonetik gorroto itzelak bultzaturik, eta horrela errez entenditzen zirela animaliak egindakoak, mendekua zen, mendekua, bizi zelarik gizonak sufrierazitako emakume edo neskatala batena. Denoi orduan izen bat etorri zitzaien gogorra, Karmen Torrequakoa, herriak bizitako azkenaurreko tragedia protagonista. Karmen orbelaren gainean aurkitu zuten goiz batean, izter zuriak erreka gorriek margotuta. Ondoan hiltzaileak erabilitako arma, neskaren atxurra.

Eta hainbeste hitzaldiren ondoren herriko «Adimena»-k ekin zion, Don Satur apaiza eta Don Jesus medikua, jakina. Hitz gutxitan, horrela labur liteke interbentzioa:

«Herritar maiteok, tragedia handi bat bizitzen ari gara eta sufrimenduak edo esplikazio bat aurkitu beharrak eragindako xelebrekeria asko entzuten dira, Jainkoak bidalitako zigorra ote den, pizti bihurtutako pertsonaren mendekua ote den eta antzekoak. Gure onera etor gaitezen, horrelako sineskerien garaiak aspaldian pasa ziren eta gaur egun bestelako arrazoiak, egiazko arrazoiak, Adimena eta Zientziaren bideetatik bilatu behar dira eta bila daitezke. Pairatzen ari garena zera da, ohizko jokaeratik kanpo dagoen pizti baten okerkeriak eta ez besterik. Herrian, kontura zaitetze, azeri asko harrapatzen da eta gu bion ustez Naturak apur bat argi gehiago emandako azeri baten borrokaren aurrean gara, be-

re etsaiak menderatzen ikasi duena. Entziklopedietan ikusi ahal izan dugunez kontrarioaren «jenitalei» erasotzea ez da gauza bitxia animalien artean eta gogoan edukiko duzue, noski, Dona Petraren pekinesa eta Don Pedroren mastinaren artean geratutakoa.»

Dona Petrak pekines petral mutur zapaleko bat zuen, aurrean suertatzen zen edozeini zaunka egiten ziona, batipat Don Pedroren mastinari, hau hoge aldiz handiagoa izanik, eta egun batean nazkatu egin zen Goliath eta David txikitu nahi izan zuen, baina honek, bizpahiru astinaldi sufritu eta gero krausk heldu zion protroetatik, gorputz guztia zintzilik, eta Goliath lokatzezko erraldoia gertatu zen berriz ere, intzirik hil egin bait zen akain horretaz askatu ezinik, lotsa-lotsa eginda, gainera.

«Beraz, garbi asko dago egin behar duguna, inguruko eskupeta guztiak bildu eta azeri malapartatu horren larrua iturrian zintzilikatu. Etzi iruditzen zaigu egun egokia, bihar jendea etor dadin deiak eginda».

Eta halaxe erabaki zen.

Gizakiok gure modukoaren artean paseatzen gara eta barruko zoko horretan aldamenekoa baino gehiago izateko esperantza gordetzen. Denoi gustatuko litzaiguke nabarmen-tzea, balentriaren bat burutzea, inbidia eragitea lagunurkoaren bihotzetan, eta Benjamin Erkiagak bere burua ikusten zuen herrian heroe, azeri famatua akatzeak ezertan ere apartekoa ez zen bere bizitzari behar zuen bultzada emango zion, maitegarri eta miresgarri bihurtuz denon eta batez ere hark zekien horren begiko eta oheko. Beraz, piztiari utzitako azken eguneko egunsentiarekin abiatu zen Benjamin baso alde-ra, bi kanoitako eskupeta, munizio ugari, labana handia eta gauean egindako larru gogorrezko tangaz.

Zenbait tokitara sartzerakoan potroak atean uztea komeni dela dio Herri-Jakintzak, eta besterik ez zuen nahi gure ehiztariak, udazkenoroko hosto-euritan ari zen basoari hurbiltzerakoan. Ez zen, ez, arbolen beldur, ez prexixamente.

Ordubete. Ordubete eta bi koneju zintzilik. Eskupeta blai eginda zegoen izerdiz, Benjamin odol-arrastoa utziz zihoan, belarri-handiak jarioka, eta bihotzeko danbadaz baita Ameriketako azeriak ere esnatuko zituela iruditzen zitzaion, Tomas ikusten zuen balantzaka, hankartarteari helduz, eta hortzak edozein pagotan gorde zitezkeen, bera noiz irenduko ametsetan.

Zast biztu zitzaion ideia, konejuak argiune batean pausatu eta sastraka artean izkutatu zen, giza-adimena nagusituko zela esanez bere buruari, ia sinisterazten zion.

Berehalaxe plazaratu zen lehenengo konbidatua, erbinude bat, hara eta hona begiratu ondoren zuzenean okel bila jo zuena. Benja agertu eta «aaah!» oihukatu zion, ez zedin harentzat ez zenaz jabe. Gizonaren ezker aldean bi begik zirt egin zuten eta azeri eder sendo batek egin zien kosk ehiztariaren ar-ezaugarriei, honek botatako tiro bakarraren hildoa-ren zentimetro bat azpitik. Benjaminek indarrak bildu eta larruzko tangarekin borrokan ari zen burua kulataz kolpatu zuen. Mailuak iltzea jotzen duenean gartatzen dena gertatu zen, hortzek ras zeharkatu zuten eta Benjamini Siberia bihurtu zitzaion bihotza.

Hostoak ikusi zituen aurrena, haizeak erorerazitakoak, eta burua altxatuz hilotz bat, akabo piztia, baina ezin garaile sentitu, zakila osorik bazuen ere koskorrik ez ziolako utzi hortzakatzuz hil zen animaliak. Potro-poltsa bazuen, hor eta hemen urratua, baina betegarririk ez. Ez zuen oinazerik sentitzen, sensazio erabat xelege bat baizik, sasoi lapurtu baliote bezala, pilak bukatzen ari zaizkion jostailuaren antzera, eta potroak galdu zituela esanez itzultzerik ez zeukala erabaki zuen.

Hainbeste gauza gertatu eta hamarretakorako denborarik ez. Eseri zen atzera eta aranak jaten hasi. Doña Clara de Aristimuño gogoratu zuen, herriko sasidukesa, eta nola gauza ezaguna zen ezkerreko titia gomazkoa zeukala, minbiziak jotakoa kendu ziotelako.

Hamabiak jotzen zituen kanpandorreak, halere inork ez zuen begirik altxatu erloju zaharraren aldera, Benjamin zurbil baina alai bat, azeri bat lepo gainean zeramala, plazara iristen ari zelako. «Bai, bai, hauxe da, dudarik gabe, neri ere betiko tokira egin zidan eraso» esaten zion bizkarrekoak, musuak eta besarkadak eman eta eman ari zitzaion jendeari. Bere gurasoak ondo kostata urreratu eta amak musuka jaten zuen bitartean, aitak, belarri zokora:

—Ondo al hago?

—Bai, aita, Foso ondo.

—Badakik zer esan nahi dudan, ni aitona egiteko moduan al hago?

—Bai, lasai, hatzemarkada txiki batzuk besterik ez daukat, neuk garbitu eta desinfektatu ditut.

Laister zabaldu zuen aitak seme maitea gizon osoa zeto-rreneko berria, herrian bere ezpalekoak bezalakorik behin ez zela sortu aldarrikatuz, Benjak, berriz, ezetz, inongo mediku beharrik ez zeukala errepikatzen zuen Anixeto zaharrak animalia larrutzen zuen bitartean. Laister zegoen gudakina iturrian ikusgarri, haragiak zakurrek jan zituzten eta berehala ekin zioten itzaltzeari azeri potrojalearen istorioak piz-tutako argiek, herria betiko arretasunera bihurtzen zelarik. Bazen, ordea, izen bat letra handitan, eta bazen ere, edo ho-beto esanda ez zen, gatazkaren ondorena, gazte baten aringarri.

Hanka puntetan egin zuen ohetik komunerainoko bidea eta segituan lanean hasi, blood, sweat and tears-ez betetako eginbearra, potroden bihurtu potrogabea. Ikustekoa da bi aran, jostorratza eta haria hartuta zernolako birgeriak egin daitezkeen.

Udazkena zuhaitzak hostrogabetzera dedikatzen da eta horretan ari zen. Benjamin eta Luisa orbelaren gainean pasatzen ziren, hitz goxoak errepikatuz elkarri, segituan desgertzen ziren bideskak irekiz. Zera pentsatu zuen Luisak, maitasuna ere erreza dela agertzen eta izkutatzen. Poeta ari ma zuen eta halako tentelkeriak bururatzen zitzaizkion.

Eskutik heltzea, musuak aurpegian, musuak ahoan, geritik gorako miaketa, oso normal zihon prozesoa, baina atal interesanteenetara abiatzeko garaia ikaragarri atzeratzen zen Luisaren ustez, Benjaminen eskuek ez zuten inoiz sabeleko muga zeharkatzen. Luisak ez zuen berak hasi nahi, nahiago zuen mutilari jarraitzea, baina epe bat eman zion bere buruari, Benjaminek basoan ez esandako zerbaite utzi zuen susmoa areagotzen ari zitzaiolako.

Bukatu ziren epe guztiak. Egun hartan, titi-jolasean ordu erdia pasa eta gero erabakitakoari ekin zion Luisak, eta botoiak soltatu zizkion Benjamini. Segituan igarri zion honi beldurra aurpegian, eta susmoa egia bihurtuko zen arantzak izate osoa ziztatu zion... ..ordurarteko irripar zabalenaz loratu zen Luisa, eduki beharreko guztia han zegoen, eta maitareen eskuei erantzuten ohi zaien moduan, gainera. Benjak, berriz, trantze gogor batetik irten berriaren espresioa zuen. Musuka eraso zion neskak, «nere lotsati maitea», «nere gizona, nere gizona», arratsaldea sagardo botila bana hustuz bukatu zuten, lasaitu ederra hartuta biek, kantu eta irri.

Zoragarri zegoen basoa. Hego-haizeak hostro igartuak hartu eta dagoeneko neguaren bildur zen eguzkiak hurrengo udaberriaren esperantzatan bidaltzen zituen izpiak. Ingurua hori-marroi malenkoniatsua zen. Bikotea eskutik helduta barruratu eta musualdien arteko metroak gero eta urriago, saioa bortitzago. Goroldioak hartutako txoko batean egokitu eta elkarren bila abiatu ziren hemendik eta handik, razzia amorratuak eginez, konkistatutako plazetaz jabetuz, nagusi eta morroi, haragi eta izerdi. Bat egin zuten momentuan Lui-

sak begiak ireki eta eguzkiak mindu egin zituen. Adar artean izkutatu ziren aireratutako antsiak, Luisak ezerezaren gainean bailitzan heltzen zion eta Benjamin mundu honetatik bazihoan sensazioa erne zitzaion. Bi lehegailu berdek eztanda egin zuten, mutilaren azken bizi-hondarrak neskarengana jo zuen eta honek jaso, garraisika beragatik eta biongatik.

Izu eta nazkaz begiratu zion Luisak lotura-gunea lardatzen zuen oreari, Benjaminen hankartea putzu bat zen, eta neska negar eta oihutan galdu zen talde-buru zetorren Don Jesus medikuak lasaigarri bat zaineratu zion arte.

Bizitzan alde batetik bestera gabiltza, Luisak kilometro mordoa zeukan eginda, bakardadean, baina halere ez zion antzematen suertatu zitzaion patuari. Herriko heroea maite izan zuen, maitegarri zelako, eta elkar maitez hil zitzaion momentu hura astindu ezinik zebilen, bere Benjamin joan egin zen, joan, eta Luisak haren umea hazten zuen sabelean. Ez zen inoiz basoan sartzen, han gordetakoak negarra eragiten bait zion, soro eta baratz artean paseatzen zen barrukoarekin solasean, eta herritarrek pena handiz begiratzen zioten «gajoari kraskatu egin zitzaion bihotza» esanez. Luisa errukarria.

Igaro ziren neguko hotzak eta udaberriko esperantzak eta ume eder batez erditu zen Luisa udararen hasieran. Germinal deitu zion.

Umearen jaiotza haize freskoa gertatu zen Luisaren infernurako, bizitzeko gogo berriak zuzpeltu zuen zeharo eta herri osoa izan zen ama gaztearen alaitasunaren lekuko, egun guztia kalean pasatzen zuelako, haurraz harro-harro. Germinalen munduratzea, gainera, bost lagun eraman zituen istorio tristearen bukaera eta komunitatearen aurrerantza jarraitzeko ahaleginaren ikur bihurtu zen zenbaiten bihotzetan. Eutsi egiten zion bizitzak.

Manuela Beitia, Luisaren ama, zeruagatik gaizki esaka atera zen dagoeneko udazken-ezaugarriez janzten hasia zen kalera eta inguratu zuen jendeak zera ulertu ahal izan zuen orru batean botatako esplikazioetan, goiz hartan bederatziaik aldera igo zela Luisa eta umearen gelara eta alaba deabruak arima lapurtu balio bezala kausitu zuela, izkina batean kuzkur-kuzkur eginda makakorroka. Seaskan umerik ez, ehundoko kuxidadea, konpota bota balute bezala, eta erdian hezurtxo bat, honi bai, honi ondo igarri zion, aran-hezurra zen.

MARRASKILOEN HERRIAN

Alaine Arsuaga

—Kaixo lagunok!

—Ni nor naizen? Xabier nauzue.

—Zer egiten dudan hemen? Zueri nire gertakizun bat kontatzera etorri naiz. Zer deriozue? Bada, horra hor nire istorioa.

Egun batetan, udaberria zen eta eguraldiak bazirudien etzekiela, ezen, bero haundia bait zetorren goiz goizetik eta hori marraskiloei ez zaigu laket.

Kalean egin beharrak egin eta etxeruntz nihoalarik Garbiñerekin topo egin nuen.

—Kaixo Xabier, esan zidan. —Nora zoaz abiada horretan?

—Ni banoa lehenbaitlehen etxera, bero honek ez bait dit batere onik egiten, —erantzun nion.

—Zer txorora zaren Xabier, eguzkia bezain ederragorik ez dago barren.

Nahi duzuna esan Garbiñe baina ni banoa —esanez agurtu nuen.

Herrian denok genekien Garbiñe marraskiloari ez zitzaio-la hezetasuna atsegin bestei bezala, eta ez nintzen gehiegi harritu.

Laister zen bere etxe aurrean eguzkia hartzen. Nire lehiotik ikusten nuen, eguzkiaren izpi azpian polita eta xarmanta. Izan ere Garbiñe zen herriko marraskilorik xaloena.

Orduak igaro nituen berari begira. Bera ez zen ohartu so egiten niola, edo agian bai. Nork daki?

Bapatean eguzkia desagertu zen eta ortzeari begiratzuz ohartu mintzen zeru guztia lainoz beterik zegoela eta ekaitza hurbiltzen ari zela.

Berehala eraso zuen euriak eta nire marraskilo maitia ekindigarri ezina egin zitzaion bustitzea, azkenean ikusiz ezin zela etxera heldu zaparrada haren azpiran oskolean babestuz bertan gelditzea erabaki zuen. Alahera izan ere eurijasa hura.

Atertu ondoren denok atera ginan kalera, osteratxo bat eginen hezetasuna dastateko asmoz. Esan daiteke herri guztia zegoela kalean, baina ez, Garbiñeren edertasuna falta zen eta inor ohartu ez bazen ere ni bai, horixe baietz. Ziuraski katarro bat harrapatu zuela eta oheratu beharra izan zuela, etzen txunditzekoa gertatu zitzaionaren ondoren.

Egunak joan, egunak etorri eta Garbiñeren arrastorik ez. Hain gaizki ote zegoen? Asko pentsatu ondoren ikustaldi bat egitera joateko erabakia hartu nuen. Benetan, uste nuen bezala gaiso balego ez luke gutxi eskertuko nire bisita. Baina ez bazen ateratzen nire aurpegia ez ikusta arren. Ez hau ezina zen, Garbiñek betidanik erakutsi zidan txera gezur huts bat besteterik ez izatea...

Zena zela, ikusi behar nuen eta horrela zuzendu nintzen bere etxera.

Atea jo eta laister zen bere ama zer nahi nuen galdezka.

—Garbiñe ikustera etorri natzaizu, aspaldian ez bait dut ikusi, agian gaiso dagoela pentsatu dut.

Marraskilo andereak etxe barrura sartu erazi ninduen eta Garbiñe berahala agertu zen.

—Zer gertatu zaizu? itandu nion bere aurpegi triste eta goibela ikusi nuenean.

—Duela egun batzu —erantzun zidan— Eguzkia hartzen nengoelarik, ustekabean euriak eraso eta azpian harrapatu ninduen, orain, begira, oskoleko margo guztiak desagertu zaizkit, esanez negarrez hasi zen.

Niretzat ez dago gauza saminagorik, nire marraskilo kutuna negarrez ikustea baino. Eta... nola kontsolatu? Zerbait egin behar zen.

Pentsa eta pentsa, ia burua hautsi nuenean ideia bat bururatu zitzaidan.

—Badakit zer egin, zatoz nerekin, esan nion.

—Baina, nora?, galdetu zidan.

—Lasai, etorri, ikusiko duzu zer ongi konponduko dugun zure arazoa.

—Nik ez dut nahi kalera irten, ahalke ematen dit hain margula nago!

Pixka bat kokildurik baina nirekin etorri zen. Ezer esan gabe ulertu zuen Garbiñe gaisoak, zertara gindoazen marraskilo margolariaren etxera heldu ginenean.

Bai poztu ere, margolari jaunak dena jakin ondoren gustora lagunduko ziola esan zionean.

Esan bezala, gogoz eta arretaz ekin zion bere lanari eta bi ordu ondoren barruan Garbiñeren oskolak beste bat zirudien. Lehengo margul eta zurbila alai eta koloretsua bilakatu zen.

Gure poza eta zoriona eta Garbiñeren irrifarra aski izan zitzaion marraskilo margolariari eskerron bezala.

Ez ginan haserre kalera irten ginanean, ez horixe. Nire lagun maitiak egokitu zidan laztana izan zen nire oparirik hoberena. Ni ez nintzan gaizki gelditu.

PERPETUA SARAGUETA ANDEREAREN EUSKAL IPUIAK

Jose M. Satrustegi

Euskal idazleen zerrendan ez da emakume askorik agertzen. Benetan poztu nintzen duela dozena bat urte Perpetua Saragueta mezkiriztarraren izkribuak ezagutzean; baina haundiagoa izan zen ene bozkarioa, ez zela azken orduko luma ikastea. Hogeita pare bat urte zituenean hasi zen bere herriko berriak euskaraz zabaltzen, eta 1928tik aurrera hor dira bere albisteak Iruñeko *La Voz de Navarra*-n, Donostiako *Argia*-n eta Baionako *Eskualduna* agerkarian.

Igande arratsaldeetan lagunen festagioko ordu goxoei uko eginez betetzen zuen eginkizun hau zaletasun pozgarriago bati nolabait erantzun nahian. Bere aipamenetan inor ez mintzea izan ohi zen kezka bakarra. Horretaz landa atsegina besterik ez zion ekartzen lumak. Espainiako gerrateak moztu zuen lehen saio haien hegakada itxaropentsua.

Une horretako bere joera ez zen izena agertzeraz emateko fantesia. Euskaldunon aspaldiko jokabideari jarraituz izenordearekin bialtzen zituen egunkarietara aldi-an-aldiko albisteak. Bere eskuz mamitutako lanetan zuen atsegin bakarra. Hori dela-eta, hiru ez-izen behintzat erabili zituen: «Txorrondo», Mezkirizko bere auzoaren izen maitea; «Aritz», euskadunon zuhaitz nagusiarena, eta «Mendigibel» sorterriko toki-izena.

Horrela, hain maite zituen, etxea, mendia eta zuhaitzak ager-
tzen dira bere biziko bidelagun izkutuenetan.

Urte askoren buruan eta sei alaba Orhiko txoria bezain
alaiak hazi ondoren, bere gazte denborako griña eta gurariak
zuzpertz ziren izpirituaeren txokorik sakonenean eta, 1977an,
biziko pasartez mamitutako oroimenak idatzi zituen bilduma
lodi jakingarrian. Lan hau zen, hain zuzen, nik lehenik eza-
gutu nuena. Geroztik, beste gauza asko idatzi du nere eska-
riz eta bat edo beste argitaratzen ahalegindu naiz. Hauek di-
ra azken aldikoak:

«Nere Oroimenak». Biziko pasarteak. FLV. 31 zenb. 1979,
171-175 or.

«Trinidad Urtasun bertsolaria (1894-1978)» Senarraren
aipamena. FLV. 32.zenb. 1979, 333-338 or.

«Mezkiritz (Erroibar)» Etniker taldeko lehen saioa. *Cua-
dernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 31.zenb.
1979, 5-36 or.

«Mezkirizko etxe-barnea». Etniker taldeko bigarren saioa.
Anuario de Eusko-Folklore, t. 31, 1982/83, 31-48 or.

«Mezkirizko langintza», Etniker taldeko hirugarren eta az-
ken saioa. *Anuario de Eusko-Folklore* agerkarira bi-
dalia du.

Beste gai batzutat ere idatzi du eta, Jainkoa lagun, den-
borarekin argitaratzen joango gara. Gaurkoan hiru ipui ekar-
tzen ditugu itez-hitz berak idatzitako eran. Iruñerriko euska-
rarekin lotura haundia sumatzen zaio Erroibarko mintzairari.
Izan ere, euskalki berekoak dira. Azentua eta ebakera azter
nahi badira, Perpetuari jasotako magnetofoi zintak ere
baditugu.

Bizia. Perpetua Saragueta Erroibarko Mezkiritz herrian
jaio zen, 1905eko abuztuaren hiruan. Aitaren ogibidea ikaz-
kintza zen eta txondor egiten ari zen batez istripu larria iza-
nik, ez zen inoiz ongi jarri. Unai hasi zen gero; abeltzai alegia.

1931ko uztailearen 22an ezkondu zen Iruritako Trinidad Urtasun bertsolariarekin. Baztandar honen lanbidea ogia egin eta etxez-etxe saltzea zen, eta laster hartu zuen emazteak ere senarraren lana. Emakume erne eta kemantsua, autoa gidatzen ikasi zuen herriz-herrri ibiltzeko. Nefarroan bigarren karneta emakume mailan.

Urtasun bertsolariaren bertso gutxi gelditu da. Perpetuak berak badu bat baino gehiago apropos errerik. Senarraren bertsoetako satira eta salaketa zorrotzegiak zitzaizkion askotan «neska batzuren izen ona bezten zuelako». Alabak zituen amak gogoan eta ez zuen entzun nahi beste inorentzat halakorik zabaltzea. A. Zavalak «Auspoa» bildumako 97.alean Urtasunen zenbait saio jasotzen ditu, *Bidasoa aldeko bost bertsolari* izenburua daraman liburuan.

Urtasun-Saragueta sendia erasotua izan zen Espainiako guerra denboran. Guardazibilek hautsi arte eman zioten behin bertsolariari eta geroztik erdi gaisorik iragan behar izan zuen bizia. Mezkirizko apaizari esker barkatu omen zioten beste behin etxez-etxe gerra egin ohi zuten gau-ehiztariek.

Iruritako Beltranean jaio zen Trinidad, 1894eko apirilaren 24an, eta 1978ko uztailearen 29an itzali zen Mezkitzen.

Euskara aldetik, gerra aurreko garbitzale kutsua dario P. Saraguetaren idazkerari. Baina hainbeste denboran idatzi gabe egon zelako-edo, bere sorterriko mintzaira nabarmentzen da, eta berrizalekeria zenbait puntu soiletan ezik ez da nabari. Erroibarko euskararen lekuko fidagarria dugula esan dezakegu beraz.

1944. urtetik Iruñean bizi da «Txorrondora» udapartean ihes egiteko zai. Bidezkoa deritzat EGAN-en Euskal Herriko emakume honen lanak agertzea, beste batzuren eredu eta bultzagarri.

J. M. S.

I. Mendingian utzitako anai-arrebak

Kontu zar batzuk paratuko ditut, ni aurre nitzelaik entzuna neure amatxiri.

Gizon bat andrerik gabe gelditu zelaik bazitue bi aur aita-txo deitzen ziotenak, bat nexka eta bertzea mutikoa zire, biak aurrak oraño; Juantxo mutikoa zortzi uterkoa eta Mayi amarretakoa. Ama ilez geroz negar anitz bazute egin eta beren aitak ere bakarretan. Ikusi zio Luisak eta ezin erran bera ere alargune zela eta bazuela neska bat Mayin adinekoa. Deitu zue Mayi eta egin zue al guzia neska aren aixkidentza erdies-teko, batean erranez ama batek bezala maite zuela eta bere alaba Koxepak etzuela aitarik aspaldian il zelakoz; eta ainbertze gauza erran zeko Luisak Mayi, ezkenean arront bildua zue andreak aurre.

Nexkak erraten zio aitari andreak errana eta aixkidentu zire Mayin ama Kosepain aitaikin eta denbora anitz gabe ezkondu zire biek.

Lemexiko egunek eta aste zenbait ere aski ongi bizi zire bortzak baño etzue anitz ireun ongitasun arek. Asi ze andrea erraten sobera zirela irezten zuenaindeko eta gutire-gutire, erran zio:

—«Zure seme alabak obe izein de mendire erematen baditugu eta an utzi; aterako dute bizia. Abilegokoak dire nere alaba baño».

Aite gizajoa bere umen alde ateratzen ze, baño egunoro kantatu berekin, gizona asi ze berazten andrearen gana; eta azkenean erran ziote bere umei biramonean goizik ilitzerri eta juan bear zutela urrun.

Aurrek etzute uste beren aitek utziko zituela mendingian eta trankil zeude. Baña guatzera ereman zuztelarik entzun zute nola andreak erran zion gizonari:

—«Eremanzkizu al bezain urrun eta mendi aundi ilunean utzi eta zu gibelera etorri an utzi ondoan biok».

Juantxok entzun zitue andreak erranikeko gauza guziak eta sukaldean sartu eta artu zue gasna, ogie eta zukrea, eta trankil juan ze guatzera.

Biramon goizean yaikiazi zitue andre gaisto arek eta barua autsi, gosari pixka bat paratu zakuto batean eta atera zire mendira. Mayik atzekie deus ere solas aietaz eta bere aitarekin ba zaie altzinean. Juantxo bazaie mantxoago zukrea lurrean botatzen eta gasna ere bai, baño puska tikiak eta an emenka botaz. Ya denbora anitz egin zuelaik mendian ibiltzen eta ikusi zuelaik nekatuak zirela, utzi zitue al zuen bezala eta itzuli ze etxera.

Aurrek yarri zire xoko batean eta loak artu zitue eta argitu zuelaik ilitzerri eta asi zire beren aitari deitzen; baño aita urrunxko ze aurren oiua aitzeko. Beren ustean itzuli nai zutelakoz, artu zute bide bat eta asi zire gibelera. Juantxok biletu naiean etxerako bidea lurre miretuz juan ze, biletuz gazta eta zukrea; baño arratoiek yana zute gazta eta zukrea.

Inguraldi aundiek egin ondoan aurkitu zute arri biribil bat, Juantxok eskutan erabilia mendirakoan. Pozkario izen ze bi aurrendako.

Inguraldiz nekatzen eta ezin iakinez non ziren, quartu zire belai batean iru bei bazkatzen bazirela eta, geiagoena, mendirakoan ikusi zituztela. Berriz inder puxka bat artu zute aurren gorputzek eta egin zute bertze ibilaldi ederra eta berriz nekatuak yarri zire. Beldurtu zire oroitu zirelaik laister ilunduko zela. Orduen berriz txutitu eta asi zire beren bidean.

Gosetzen asi zirelaik oroitu zire bazuela ordu multsu bat yan gabe zeudela, eta asi zire otoitz egiten beren amari:

—«Ama maitea, nun zaude? Etzara gutaz oroitzen?, zure umeak gara goseak eta galduak mendi ontan. Oroi zaite gutaz eta ereman zaguzu aitatxorengana».

Bitartean iluntzen aize zimpi-zampa, eta argia zaien bezala bertze argi tiki batzuk ikusten zire urrun. Asi zire ibil-

tzen argi aien aldera, baño ugalde batekin topo egin zute, eta, ezin biletuz zubi bat, ugalde bazterretik juan zire bidalde gaitzan. Azkenean zubi aundi bat aurkitu zute eta beretik juan zire bertze aldera. Argiak pusken ere urbilago aurkitzen zire eta fite ikusi zute beren etxea eta asi zire eginalak (egiten) aitu zezan beren aitatzok.

Aitak aitu zitue asots aiek eta berengana bildu ze, bere umengana. Artu zitue besarkada aundi banetan eta gizona alaitasun aundienean sartua gelditu ze eta bi aurrekin juan ze, bere bi umetxo maite aiekin, andrearengana eta erran zio nola berotu bear aundiarekin ziren.

Su aundi bat egin zue, ongi berotu eta afaldu zuten, eta beren aitak erran zio andreari:

«Nik eginen dut alduden lan guzia baño ez dut egundeño neure umeik berriz mendian utziko. Ongi urrikitu zaide eta ongi alaitu naiz ikusi ditudelaik».

Andrea ugezamain begi ilunekin gelditu zen, gaizki atera zitzaio bere gogoan zeuken koropilloa.

II. Mendiko sorginaren etxea

Pello eta Maite anai-arrebak aski ibiltzen zire mendietan, ezagutu naiean sorgin zenbait kontuetan aitzen zuena bezalako, eta bide anitz kurrituak bazuzte, baño ez zuten deus arrigarrik ikusi. Azkenean egun batez bazemate ibilik denboran anitz eta arratsaldean ikusi zute urrunera etxe zoragarria dirdire aundia zuena. Urbilduz bezala iduri zue ederragokoa, eta azkenean iduri zue goxo eta txokolatez egina zela. Urrine ere gauze oiena zegola eta gutire-gutire arrimatuz juan zire. Urbildu zirelaik aski, beldur aundieikin io zute atarien eta edeki ziote andre sorgin batek eta erran ziote:

—«Zatozte zatozte nerekin izeinentzate arront ongi», eta eman ziote ongi afaltzera.

Pelloi sartu zio kaiola batean erranez ongi yan bear zuela eta gizentzen baze yan bear zuela berak; aspaldien naietan zegola. Goizoro juaten ze bera ikustera nola zen, ia gizen zen edo ez. Baña Pellok bere beatza erakutsi bearrean erakusten zio ezur garbi bat bere arrebak emana ortako. Andre sorgina goizoro juaten ze eta erraten zio:

—«Pello tiki erakutsi beatza neri».

Eta Pellok ezur garbia bere arrebak emana erakusten zio. Baño sorgin onek gero eta gutiago ikusten zue; ezurra ukitzen zue eta «ezurra beti ezur» erranez gelditzen ze denekin asarre.

Gisa ontan jua zire zenbait egun eta bere aita eta ama etziren agertzen niondik ere. Aurak etxera yoateko (eguna) etorriko zela uste zute, baño etzue egun ura argitzen. Azkeanean andre sorginak erran zio:

—«Zazi mendira abar eske labea berotu bear dut zure anaia erretzeko; nekatua nago ainbertze ematen iatera eta ez da deus gizentzen».

Gaixo Maite! Negar anitz in zue baño mendiko bidian sorginak ikusi gabe. Egun artan egin zitue iru jua etorri, baño oraño guti ze labe aundi ure beretzeko, eta biramonean bertze ainbertze egin zue eta irugarren egunean ere. Iru egunetan Maite mendian aitu ze pisu aundiak artuz eta utziz denbora galtzen, negurtzen bere indarrak beartzen zen tenoreko.

Laugarren egunean sorgin arek labea biztu zue eta suak artu zue dena. Denbora ortan Maitek edeki zio kaiola Pelloi eta erran zio:

—«Nik deitzen badizut atera zaite ordik eta zatoz ni nagon tokira», eta jua ze sorgina zegon tokira labe ondora.

Gero eta su aundiagokoa zego eta sorginak labe atarie edekizue eta labarnera beide zegolaik artu zangoetaik eta indar aldi aundi batean sartu zue buruz barna eta ertxi zue labea bere inder guzieikin. Ola altzindu ze Maite sorginari.

Bein ilik sorgine eta auts biurtuik, etxe guzie ikusi zute barnean zen guziarekin eta zerbait artu eta juan zire beren etxera. An aurkitu zire beren gurasoekin arront naigabetuak etzekietelakoz non ziren.

Aurrek bazekite orai non zen berak egon ziren etxea eta biramonean juan zire lauak mando banaikin eta ongi gauza onez beteak itzuli zire etxera.

Kontu au anitz aldiz entzun dugu euskeraz eta orai erdaraz entzuten da anitz aldiz. Eta au bezala entzunak ditut bertze batzuk euskñeraz aurrean eta aunditu ondoan erdaraz. Ez dakit Mezkirizkoek itzuliak diren euskerara edo euskeratik itzuliak diren erdarara. Nik lenago entzunak ditut euskeraz. Eldu den au ere berdin da.

III. Lore Xuri

Errege batek omen zue alaba bat bakarra eta Lore Xuri deitzen omen zen. Aur bat izen al zen pollitena omen ze. Bai eta ere ona gisa guzietara. Baña gaixoa! amarik gabe gelditu ze. Denbora berean, andre bat alargundu ze eta gelditu ze bi alaba itsusi eta gaistoekin. Andre alargun onek egin zue al zuen guzie errege alargunaikin ezkontzeagatik. Erraten zute anitz kosta zitzaiola lemexiko aldian solas egitea alako jaun aundiaikin. Bana ez dakit nola erdietsi zue eta orduen berean gogoratu zitzaio erregeine izen bear zuela denen gañetik eta bere bi alabak ere errege bana bear zutela, eta gogoratu zitzaion gauzak egin zitue.

Denborakin, erregearekin ezkondu ze eta egin zue al guzia edertasuna erdiesteko eta erregea xoratu zue bere zoragarriko edertasunaikin eta mingain trebeakin. Laister quartu ze Lore Xuri bere aita ekentzen ziola eta gañera lurpera sartzen ziola berari, eta ama alaben artian erront bizi iluna erdietsi zuela aita ezkontzean.

Baña Lore Xuri audituz bezala bazaie edertuz eta ongituz. Gauza ebek lurrera botatzen zizkiote bere gogoan zituen osmo guziak. Zenbat aldiz egunean artzen ote zuen ispildua bere eskura, galdetzeko ia ba zuen bere inguruan bera baño ederragoik.

Andretan etze nior ere, baño Lore Xuri denbora guti barnean izein ze eta egin bear zue alguzia etzeien edertu eta lanik zikinenak eginezten zio (zizkio) gaixoari. Eta lilsta edo lenteja (erdaraz) autsera botatzen zio berexteko lana izen zezan begiek gorri eta tikitu zeizten; eta olako gauza franko. Gazteri iluna izen zue; aitaren maitetasuna aski itzalia eta ugezamak makurkerie al guziek naigabez batea idukitzen zute.

Bein batez beren ondoko bertze errialde batean erregearen semeak bildu nai izen zitue errialde al guzietaik errege guzien alabak eta Lore Xuria errege alaba ze; baño ez ugezamaren alabak. Alare bere alabak ongi jantziak juan zire.

Berak etzue gise ortako arropaik eta bere gelan nigerrez zegolaik oroitu ze bere ama zenaz. Juan ze ama zegon il-arri-
ra eta eskatu zio oñetako eta jantzi ederrak gau artako eta ederdi beztitue juan ze errege semearen tokire. Dantzatu ze beraikin eta akitu zelaik atera ze, baño zapela quelditu ziztaio eskaletan. Laister egin zue bere etxera eta niorek etzue ezagutu nor zen. Orduen Errege semiak iorri ziote etxeko mutilak zapeta arekin eta bilatu artio etzute bakerik eman eta yakin zutelaik ugezamak eta bere bi alabek negar anitz egin omen zute. Lore Xuri egin ze denen erregina eta beti onegia izen omen ze denekin, utzi gabe alde batera ugezama eta bere bi alabak.

Perpetua Saragueta

Baño Lora Xuri auzitik behera baxatik ebazten eta ongi
luz (guzuz) ebek hartzen dituzten xixkioak bere kotoan xituen
deno guzuzak. Xandak aldez gurean sartzen eta xion lardua
bere eskuz ezabatzen eta ba xion bere inguruan bera bado
ebazten goiti.

Andatzen etxe nioz eta, bano Lora Xuri denoia guzuz
nean ixien ze eta egin bear xue alaxia etxian ebaztu eta ja-
nik zikindak egindaten xio (xixkio) guzuzari. Eta lillata edo
kintza (kintza) auzitar dituzten xio baxatikko lantza xion ze
xan behera goiti eta lillata xituzten, eta elako guzuz franko
Guzuz lantza izen xue, auzitar mantelazuna xaki izalata eta
uzteazunak mantelazunak eta guzuzak mantelazunak baxatik ebazten
xue, baxatik baxatik kamazun xue, xio kamazun xue baxatik ebazten

Berri baxatik baxatik ebazten dituzten xituzten dituzten
ren semek bidoan nai izen xituzten dituzten al guzuzatik etxege
guzuzen xituzten eta Lora Xurta etxege xituzten ze; baxatik ez uge-
kamazun xituzten. Auzitar baxatik ongi jantziak juan xituzten.

Berri etxue gisat otzako auzitarik eta bere gelan nigizten
xezozatik otzitu ze bere ama xenua. Juan ze ama xegon lillata-
ra eta eskatu xio otzako eta jantzi ebazten gau atzako eta
ebazten baxatik jantzi ze etxege semezun tokite. Danbaxun ze
baxatik eta baxatik xituzten ze, baxatik xituzten ze
xituzten eskatzen. Jantzi egin xue bere etxera eta niotz etxera
exantzu hor xon Otzuzen. Etzege xituzten jantzi xituzten
mutillak xituzten atzakin eta baxatik etxera baxatik eman
eta xituzten xituzten baxatik eta baxatik baxatik eman
egin omen xituzten. Lora Xuri egin ze denon etxege eta baxatik
ongitza izen omen ze denekin, xituzten gabe aldez baxatik xituzten
eta bere baxatik.

ezuz le berri gisat ze otzuzen. Xituzten baxatik eman
xituzten xituzten eta baxatik xituzten eta baxatik xituzten
ze baxatik xituzten. Xituzten baxatik eman eta baxatik xituzten
Lora Xuri baxatik eman eta baxatik xituzten eta baxatik xituzten
xituzten eman eta baxatik xituzten eta baxatik xituzten
xituzten eta baxatik xituzten eta baxatik xituzten.

ISPILU OKERRA

(Gabonetako kontakizuna)

Txejov-ena

Pello Zabaletak itzulia

Emaztea eta biok salara sartu ginen. Goroldio eta hezetasun usaina zerion. Milaka arratoik eta saguk korrikari ekin zioten, mende oso batez argirik ikusi ez zuten horma haiek argitzean. Pasa eta atea itxi genuenean, haize bolada bat sartu zen, gela zokoetan pilaturik zeuden paperak zurrunbilduz. Argia paper gainetara zabaldu eta inskripzio zahar eta Erdi Aroko irudiak somatu genituen. Hormetan, denborak berdeskatutako nire arbasoen erretratuak zeuden esegiak. Haien soina gotorra zen itxuraz, zorrotza, esan nahirik bezala:

—Hik bai merezi duala jipoia, hik, anaiatxo!

Gure pausoak etxe guztian zehar entzuten ziren. Oihartzunak erantzuten zion nire eztulari, aintzina nire arbasoena-ri erantzuten zion oihartzun bera...

Ulu eta intziri zebilen haizea. Norbait ari zen nigarrez tximiniko hodian, desesperuzko malkotan. Ur ttantta mardulak behin eta berriro leiho ilun, lurrunduetan hoska, eta haien kolpeek tristuraz betetzen zuten bihotza.

—Oh arbasook, ene arbasook! —esan nuen hasperen sakonez—. Idazle banintz, erretratuoi begiratuta, nobela luze

bat idatziko nuke. Zahar hauetako bakoitza, gazte izan bait zen bere garain, eta gizon edo emakume hauetako bakoitzak, bere nobela izan zuen... eta nolako nobela gainera! Begiraozu, adibidez, zahar honi, nire birramonari. Hain emakume itsusi eta zatarra izan arren, badu horrek ere bere nobelaxoa, benetan interesgarria. Ikusten al duzu —galdetu nion nire emazteari— ikusten, hor txokoan, esegia dagoen ispilu hori?

Eta nire birramonaren erretratoaren ondoan zegoen ispilu handi bat seinalatu nion, brontzezko marko beltza zuena.

—Ispilu horrek ahalmen majikoak ditu eta nire birramonari hondamendia ekarri zion. Garesti erosi zuen oso, eta hil arte ez zuen bere ondotik aldegin nahi izan. Ispilura begira egon ohi zen gau eta egun, etengabe; jaten ari zela edo edaten, berdin. Oherakoan bere ondoan jarri ohi zuen beti, eta hiltzorian zegoela, zerraldoan berarekin ipini zezaten eskatu zuen. Horrela egin ez bazuten, ispilua zerraldoan kabitzen ez zelako izan zen.

—Irtirina koketa al zen? —galdetu zidan emazteak.

—Demagun. Beste ispiluren bat izango zuen noski! Zergatik zion ordea hainbesteko txera berariaz honi eta ez beste inori? Ispilu hoberik ez zegoelako edo? Ez, maitea! Hemen misterio beldurgarriren bat dago. Ezin da bestela. Kondairak dioenez, deabru bat omen dago ispiluan eta, badirudi nire birramonak erakarpen berezi bat sentitzen zuela deabruenganako. Horrek noski ez du zentzurik, baina dudarik gabe, brontzezko markodun horrek badu misteriozko indarren bat.

Kendu nion hautsa ispiluari, begiratu eta algaraka hasi nintzen. Nire algarari oihartzunak erantzun zion itun. Ispilua okerra zen eta nire karantza alde guztietara bihurritzen zidan: nire sudurra ezkerreko masailan ikusi nuen; kokotsa bi puskatan, alde baterantz labaindu zitzaidan.

—Bai gustu bitxia nire birramonarena! —esan nuen.

Nire emaztea hurbildu zen ezpaiti ispilura; berak ere begiratu zuen, eta berehala zerbait ikaragarri gertatu zen. Zur-bildu, burutik oinetara dardarka bizian hasi, eta garraisi bat bota zuen.

Argimutilla erori zitzaion eskutik, lurrean bueltaka ibili eta kandela itzali egin zen. Ilunpetan murgildurik gelditu ginen. Instant berean, zerbait astuna erortzen zela sentitu nuen: Nire emazteak konortea galdu zuen.

Haizeak intziri are urrikalgarriago bat bota zuen, arratoiak korrika hasi ziren, paper artean saguak dardarka. Ileak tente jarri zitzaizkidan, leiho baten leihatilla askatu eta lurrrera jaustean. Leihotik ilargia agertu zen...

Nire emaztea jaso eta besoetan atera nuen nire arbasoen bizilekutik. Ez zen bere onera etorri hurrengo eguneko ilun-sentira arte.

—Ispilua! Emadazue ispilua! —esan zuen bere onera etortzerakoan—. Non dago ispilua?

Aste bete oso batetan ez zuen ez edan, ez jan, ez lorik egin, ez zuen ispilua ekar ziezaioten baino eskatzen. Nigar-malko biziak ixurtzen zituen, buruko biloak soiltzen, urduri zegoen, eta azkenik, medikuak, nire emaztea ahuleziaz hil zitekeela eta bere egoera guztiz larria zela aitortu zigunean, nire beldurra garaitu, berriz ere estrinako bizilekura jaitsi eta birramonaren ispilua ekarri nion handik.

Hura ikustean, zorionez barrezka hasi zen nire emaztea; gero, heldu, musukatu eta begira gelditu zitzaion, begiak bertan atxikiak zituela.

Hamar urte baino gehiago pasa dira jadanik, eta ispilura begira jarraitzen du, handik instant bat ere aldendu gabe.

«Hau ni izango al naiz gero! —zezeldu ohi du, bere soinak purpura koloreaz gainera, zorion eta ekstasi itxura hartzen duen bitartean—. Bai, neu naiz! Ispilu honek ezik, gainerako guztiak gezurra dio! Pertsonak gezurra diote, nire senar-rak gezurra dio! Oh, nire burua lehenago ikusi izan banu,

lehenago, benetan nolakoa naizen jakin izan banu, ez nintza-tekeen gizon horrekin ezkonduko! Ez da nahiko ona nire-ztat! Nire aurrean zaldunik galaienek, prestuenek beharko dute ahozpeztu...».

Behinola, nire emaztearen atzean zutik nengoen batean, begiratu nuen halabeharrez ispilura eta sekreto izugarri bat topatu nuen. Edertasun distiratsuzko emakume bat topatu nuen ispiluan, inoiz nire bizitzan ikusi ez bezalakoa. Natura-ren mirari bat zen, edertasun, dotorezia eta amodiozko akorde harmoniko bat osatzen zuela. Baina zergatik ordea hala? Zer gertatu zen? Nola zitekeen, nire emaztea, hain itsusia eta dorpea izanik, ispiluan, hain miragarri agertzea? Zergatik zen hala?

Ba, ispilu okerrak nire emaztearen aurpegi itsusia alde guztietara okertu eta haren atal guztiak halabeharrak des-plazatzean, aurpegi hura eder-ederra ikustarazten zuelako. Minus bider minus, berdin plus!

Eta orain biok, emaztea eta ni, ispiluaren aurreran eseri-ta egon ohi gara, beti hari begira, eta paretik minutu baka-rrik ere aldendu gabe; sudurra ezkerreko masailan sartzen zait; kokotza, bi puskatan, alde batera lerratzen; Nire emaz-tearen aurpegia liluragarria da, ordea, eta irriki ero, zentzun-gabe bat nagusitzen zait.

—Jajaja! —botatzen dut, barre basati eginez.

Bitartean, nire emazteak, ahots ia entzungaitz batez zezeltzen du:

—Zein ederra naizen!

ADABAKIRIK BE BIJEN ERABAKIA.—XX mendeen ne-
gargarria ez ezik eiazkiztra ere ba da, lehenago Garcia Lor-
ca eta Lamuzena, gero Neruda, oron Benjamin Malloze, eta
horretara hui beharra. Baina, ez ikhen, ez orain eta ez gero,
guztizaren izatean emezkoberat jozen dugu besteen bizitzar-
ko eskubidea rikigi izatea. Eri eta ere ez da zuzena heriotza
rigertzat hartzea. Ez du zentzurik ere epai baten bidez poeta
bai urkamentzira eramateak.

Madrarikatzen dirugu, poetak hateren auzartzen diren auzar-
tzen politiko guziak.

Pieter W. Botha, heriotzaren katekariaren erantzule nagus-
iak, hizian kondematu du bere burua. Heriotzko dirugu Be-
lalu Batuan eta Gernikako katekariak. Heriotzaren katekariak
hilketa lotzen dituzte. Heriotzaren katekariak heriotzaren kate-
kariak ez dira heriotzaren katekariak. Heriotzaren katekariak
heriotzaren katekariak. Heriotzaren katekariak heriotzaren
katekariak. Heriotzaren katekariak heriotzaren katekariak.
Heriotzaren katekariak heriotzaren katekariak. Heriotzaren
katekariak heriotzaren katekariak. Heriotzaren katekariak
heriotzaren katekariak. Heriotzaren katekariak heriotzaren
katekariak. Heriotzaren katekariak heriotzaren katekariak.

ADABAKIAK

Franco eta Mañcha en umilara erori zara Pieter W. Botha
1985eko maiatzaren 18, egunear, zerortek gure bitartean du-
zun kolore bera baina beharago jaxri bai dugu poetik er-
mua. Madarikatuz zu!

Orain

lehenago, bestean nolako-uaizen jakin izan danta, ez nire-
tekeen gizon horretan ezkonduko! Ez da uatiko oia nire
tzati! Nire nurrean zaldanik galaiarik, prestuena beharke
dute auzopatu...

Behinola, nire erasotzeren atzean zutik nengoen behin,
begiratu nuen halabeharrez ispilura eta sekretu ingurari bat
topatu nuen. Edertasun distiratsuzko emakume bat topatu
nuen ispiluan, jantz nire buruzko jantz ez bezalakoa. Karu-
ren zurrari bat zen, edertasun, dotoretza eta amodiozko akor-
de harmoniko bat oinarri zela. Baina zergatik ordea hain
Zer geratu zen? Nola zirekin, nire onartea, hain leusua eta
dortoa banik, ispiluan, hain miragarri agertzen? Zergatik
zen hain?

Ba, ispile okerrak nire emaitzeren sumpegi litasiz alde
guztietara okertu eta haren atal puziak halabeharrik des-
plazatzean, sumpegi hura ederra ikusizaziren zaldan.
Mina bider nirean, berdin plin!

Eta orain biek, emaitza eta nire ispiluen/arrakiz nire
nire onartea, hain leusua eta dortoa banik, ispiluan, hain
miragarri agertzen? Nire onartea, hain leusua eta dortoa
banik, ispiluan, hain miragarri agertzen? Zergatik zen hain?

—Jajajaj! —bestean, du, facke, hain eguzt.

Bizitasun, nire emaitzeren onartea, hain leusua eta dortoa
banik, ispiluan, hain miragarri agertzen? Zergatik zen hain?

—Zola ederra naizen!

ADABAKIRIK EZ DUEN ERABAKIA.—XX. mendean, negargarria ez ezik sineskaitza ere ba da, lehenago García Lorca eta Lauaxeta, gero Neruda, orain Benjamin Moloise, era horretara hil beharra. Baina, ez lehen, ez orain eta ez gero, gizartearen izatean ezinezkotzat jotzen dugu besteen bizitzazko eskubidea zilegi izatea. Ez eta ere ez da zuzena heriotza zigortzat onartzea. Ez du zentzurik ere epai baten bidez poeta bat urkamendira eramateak.

Madarikatzen ditugu poetak hiltzera ausartzen diren errejimen politiko guziak!

Pieter W. Botha, heriotzazko kondenaren erantzule nagusiak, bizian kondenatu du bere burua. Hurbileko zituen Estatu Batuak eta Commonwealth osatzen dutenek Pretoriako hilketa lotsagarria salatu baldin badute; mundu guziko pakezaleek eta gizartearen erantzukizunez arduratzen direnek hala aitortzen badute, guk, idazleok, zer esan? Holako ekintza madarikatzeko hitzik gogorrenak ere ez dira aski. Beraz, lerro apal horien bidez, politika baino zerbait gehigo den etikaren bidez eta euskal poeten izenean salatzen dugu injustizia hori.

Franco eta Pinochet-en mailara erori zaran Pieter W. Botha, 1985eko urriaren 18. egunean, zerorrek gorrotatzen duzun kolorea bera baino beltzago jarri bai duzu poeten eremua. Madarikatua zu!

Otsalar

KINTANA MEDIUM.—Gure adiskide Xabierri irudimenik ez zaio falta, jakiturarik ere ez; baina, beste adiskide batek inoiz esan duen bezala: asko daki, baina ez berak uste duen haina.

Orain, gabetik goizera, *medium* bihurtu zaigu, eta bihurtu behar, bihurrikeriak egiteko. Dena dela, gauzak ondo egitea da hoberena eta ofizio berri hau aski ongi betetzera datorrigu. Zorionak, adiskidea. Baina nork sinets ultratumbatik mintzatu behar zitzaigunik? Hor daude hobiz bestaldetiko ageriak HABE aldizkarian (77. zenbakiaren 6-8. orrialdeetan). (H)abe Mariarekin ezer ikustekorik ez zuen eta poeta zen ezkererik espero ez, nondik mintza zitekean adiskidearen ahotik ezik? Hara hor Aresti zena medio, Kintana dena *medium*. Adiskide zena ordea, inondik mintzatzekotan, maiz kezkatzen zen deismoaren araberrazko zerutik izan beharko zuen eta horrek poztu ez ezik esperantzaz betetzen gaitu eta teologoen balioa goratzen. Hara hor nondik teologo anitz duen erakundea zoriontsu.

Baina, huts handia nabari da, zeren nonbait ez bai zen ohartu herioak eramane zuenak beste lagunik ere bazuela haren mintzairaren esateko erak eta erabili zituen ideiak eza gutzen zituenik; baita ere haren idatziak lekuko. Aresti berak esana: «Hitzaren medioz ihardukitze dena, hura da poeta». Baina *medium*-aren hitzak ez dira Gabriel zenarenak. Joxe Azurmendik esana digu: «zein gutxi bereizten zituen pentsamendua, sentimendua, emozioa». Hortik zetorzkion bere barnetikako kontradizioak, *medium*-aren hitzetan nabari ez direnak. Agian, ultratunban zuzendu ez badu lehendikako portaera, hitzok ez dira bere zentzuarekin bat datozenak.

Hortarako ez da estrukturalistek berriki erabiltzen dituzten analisi estadistikorik behar, eguzkiaren argia bera be-

zain argi dago *medium*-aren ahotiko esaldiak Kintanaren gogo eta ahotikoak direla eta ez Arestirenak. Gainera, Jainkoz gure dudak ditugunok nola sinets iratxoez? Hala ere, jostatzeko, ez da gaizki lau partean partitutako fikzio saio hori eskal literaturaren bitxikerizko zakua hornitzeko. Ongi ekarri!

Humorea, H-kin edo H-rik gabe, on da osasunerako. Izan ere gizonak azkenen galdubeharrezko gauza preziagarria da humorea. Beraz, oso ondo egiten du Xabierrek ihauteriak heldu baino lehen mozorro agertzeaz. Bai. Egungo egoera sozio-politikoaren *flash* ximple hori agertzeaz oso ongi iduritzen zaigu. Uka ezinekoa da hain gaizki ez dagoela, baina izenpe-tzailearen ikuspegitik.

Oso ongi, bere gogoia hobeto gordetzen jakin balu; aldiz, lau parteotatik lau haizetara *pro domo* nabari zaio.

Lehen partean, ideia berria ez bada ere, oso ondo euskaltzain zaharrei erretiroa ematea; tirorik ematen ez zaien artean. Baina, txo!; ez gero hilekin edo hilen ordezt mintzatzen direnekin hornitzeko. Zeren Edgar Allan Poe-ren gisakoez soilik ez bai duk hornitzen inongo Akademiarik, eta gutiago Hamlet-en aita bezalakoekin.

HABEko euskaltegietan ari den ikasle berriren bati, ikasle zaharrago batek azken parte hori zela-hako euskaraz edo erdarara itzuliz adierazten baziok, laster esango dik: «Eramos pocos y parió mi abuela; ya se han metido con el padre». «...?». «Si, con el padre de ése tío que se llama Hamlet».

Baina, gure zaharrek ere ultratumbatik horrela mintzaten bazaizkigu, haiek ere esatekorik izango dute.

Dena dela, bidenabar bederen, Kintanak beretzat eser lekurik behar badu, zahartu baino lehen beharko du. Bestela, nork aguantatu bere zahartzarora? Aulkirik eman ezik, behar bada lor dezake «a silla» edo *hazila* sartzea.

Bigarren partean alderdi pekatariak salatzen ditu. Abertzale alderdi konkretu bat, PNV/EAJ, agintariak euskararik

ez dakitelako. Baina ez digu esaten zein alderditan dauden euskara dakitenak. Salatzen duen alderdia, aldiz, nik dakidanez, abertzaleetan bakarra da buru izateko euskara jakitea eskatzen duena. Ala, besterik ere ba ote? Ez digu argitzen non dauden euskaldun hutsak eta HABEn dabiltzanak noraezean uzten ditu. (H)Ave Maria, nondik dator argia? Horretan ez digu mesederik egin *medium*-ak. PSOEek faxistak omen ditu bere barnean, lehen Franco-ren funtzionari izanak eta abar. Baina aldakuntzak geroztik bizi garenok bakarrik dakigu pekatu horretatik ere ez dela libratzen talde politiko bat bera ere. Etika ez da kantitatez neurtzen. Euskararen etsaiak ez ezik zanpatzailak ere, banakaren bat bederen talde guzietan kokaturik daude. Ez da gauza berria.

Hala ere, igartzen da *medium*-arentzat nor ez den pekatari, edo behintzat isiltzeak hala adierazten du. Isilunea salatari. AP soil soilik nabarmentzen da zintzotasunean. Hor ere zenbait balantzaka ezagutu ez baginuz, eta ageriak ageri Espainia guziko buru duten nagusia «euskaltzalea» omen, leku-kotasun idatziaren arabera.

Zakurra eta katua adiskidantzan jartzen ditu EMK, PCE, LKI taldeak Tixillardegirekin parekatuz. Dantza makabroegia ez ote?

Hirugarren partea *Ukronia* hutsa, edo haren jarraipena.

Laugarrena, izanaren ezina, edo izan nahi baina ezin; *medium*-ak muxin!

Baina G. Aresti beti kezkatzen zuen proletargoa non da? Nola diteke lau parteak elite baten bilaka? Euskara eta kultura, kultura eta euskara; herri xeha, populua, kontutan hartu gabe. Zeruko egoitzan txaketa kanbiatu ote du?

Linbotik ez zen mintzatuko. Linboan, egotekotan ere, *medium*-a egongo zen. Hura ez zen bide erdian gelditzeko gizona. Behar bada inpernutik? Baina bere heterodoxia gora-behera oso ona eta zuzena zen eta, gainera, bere liburuetarik bat bera ere ez zen pasa Vaticanoko *Index*-era. Pasatu bazen jakineraziko ziguten eta euskaraentzat ohore izango zen, maize-

nik Nobel sariarekin parekatuak izan direnez *Index* horretara eramanak.

Baina, langileriakin ez oroitzeak kezkatzen gaitu. Hor dugu metamorfosia, agian manipulatu. Bata dela medio, bestea *medium*.

Azkenik, lehen eta hirugarren parteak haintzat hartzekotan, nola ez zioten galde goraintziak ematea zein hizkuntzatan egin? Argitu behar zuen guztiok ulertzeko. Guztiok ala elebidunok? Bestela, goraintziekin batean, mezularitza okasio eder hori beteaz, goraintzi hartzaileei euskara ikasteko eskaria egitea tokatzen zitzaion legez.

J. San Martín

HONDARRIBIA. IZENAREN IZANA.—Maiz galdetzen zaigu Hondarribiaren izen jatorrez, eta maiz ikusten dugu zenbait era desberdinez idatzia: Fuenterrabia, Fontarabie, Ondarrabia, Ondarrabi, Hondarribi, Hondarribia. Sei formok ikusteaz laster ohartzekoa da, hizkuntzalaritzaz askorik jakin gabe ere, zein den horren izatea.

Beraren etimologia dugu arrazoi bide. Ikus Florentino Porturen *Fuenterrabia. Notas históricas y curiosidades hasta 1969* liburuarren 21. orrialdean. Hor dakar lehenago Serapio Mujikak *Geografía General del País Vasco-Navarro* deritzan obra haretako «Guipúzcoa» tomoaren 741. orrialdean jarri zuen eritzi ber-bera: *ondar*, «arena» eta *ibia*, «vado».

Mugazandiko euskaldunek *hondar* H aspiratuakin ahozkatzen dute, eta pentsatzekoa da aintzinako hondarribiarrek ere horrela erabiliko zutela. Gazteleraz Fuenterrabia eta frantsez Fontarabie erabilerak erakusten digu kontsonante horren lehenagoko H aspiratua erdarara aldatzean F bihurtzea baidarik ez dela. Eta ez da batere harritzekoa idazkera hori hain zabaldua egotea Hondarribiaren izentzat, erdara horietako agirietan lehenagotik eta maizago agertzen denez gero.

Aintzinako hondarribiarrek H aspiratua erabiliko zuten adierazpen nabaria Jaizkibel mendiaren izenean ere aurkituko dugu, bere etimologiak argi eta garbi erakusten digunez: *hai(t)z*, «peña» eta *gibel*, «detrás», = *atze*.

Badakigu bestelako eritzirik ere izan dela, baina, linguitikak eta ikerketak aurrerapen handiak egin dituztenez gero, aspaldi baztertuak daude 1882an Jose Manterolak *Euskal-Erria* aldizkarian erabiliak, bereziki V. tomoko 225. orrialdean.

Gaur egun ez dut uste inork zalantzan jartzen duenik izenaren lehen parte: (*h*)*ondar*, «arena» bezala.

Bigarren parteko *-abia*, ahozkerako hutsa baizik ez da; metatesi ximple baten araueraz erraz ulertzekoa. Gogoan izan toki-izen bat aztertzean ingurua ere kontutan hartu behar dela eta hor ditugu Hondarribiatik aski hurbil kideko atzizkidun Urdanibia eta Behobia. Horiek ere *-ibia*, «vado», sustrai bera dute. Gainera, euskal etimologieri buruz egin den libururik serioena Mitxelenaren *Apellidos vascos* izanen da eta puntu horretan ez du dudarik jartzen *-ibi*, «vado» ez denik.

Norbaitek pentsa lezake *-ibi* horrek egiten duela Hondarribi, bukaerako *-a* gabe. Baina hori ere ez da horrela. Azkene-ko *-a* hori artikulua da, eta *-ibia*, «el vado» bezala irakurri behar denez.

Hondarribi, *-a* gabe, Hondarribiako hiritar bati deitzeko soilik erabili daiteke, eta jator erabili ere. Bereziki, hondarribiar leinuko pertsona herbestetan izendatzeko. Beraz, bi gauza dira Hondarribia eta Hondarribi. Lehena hiriaren izena da eta bigarrena hiritarrarena. Nolabait esateko, hondarribiar jentilizioaren ordezeko sinonimoa baizik ez da.

Hiriaren izena ordea, argi dago, jatorriz Hondarribia dela.

Juan San Martín

SANT ELMO, ITSUMUSTUKA TELMO DEUNA OMEN.— Zumaiako estropalarientzat ez dago estropezurik han eta hemen gailen ibiltzeko. Pozten gaitu horrenbeste bandera irabazteak. Kolore guzietakoak irabazi ere. Hola irabaziak —eta ez diot hau zumaiarrentzat— inork ez ditu erretzen sinbolo berdina izanagatik ere. Arraunlari elkarte batean hain sara-gatua den bandera bera, Udaletxeko balkoian erregai da. Zentzuz, ez da erraz ulertzen; baina, egitez, hala da gertatzen.

Itsumustuan ariz dabilzan abertzaleek ere trofeotzat hartutako banderarik ez bai dute erretzen. Bestalde, Sant edo San ez da hain jatorra; bai ordea Deun edo Done. Sustraiz denak latinaren bidezkoak izanarren. Gainera, zenbaiten ustez, Deungadak atzetik badoaz hainbat jatorrago. Guk ikasten ditugu ikastekoak. Asmatzailerik ez dela gure artean? Gezurra! Zumaiarrak beren trainerarekin erakutsi digute ongi. Telmo Deuna izentzat. Baina Telmo izen propiorik ba ote?

Iragan abuztuan eztabaidarik aski sortu zen horri buruz. «Adabakiak» sail honetara ere galdea egin ziguten. Gauzak ez ziren argituko ez zurituko Luis Larrañaga Bilbao bezalako jakitun batek parterik hartu ez balu. Hala ere, itsumustuan dabilzanan ez dut uste ulertzerik nahi dutenik. Baina, gehienok, orain badakigu Ermo eta Elmo, izenez eta izanez, Erasmoren laburpenak direla. Santutegian bi daudela: Kanpanian Diokleziano eta Maximinoren garaian apezpiku eta martire zena eta Antiokiako martirea. Geroztik bazen Fromistako San Pedro González bat, 1741ean Aita Santuak Santutegirako onetsi zuena, gailego marinelek bere mirakuluegatik Sant Elmorekin parekatua eta honen izena emana.

Zumaiako Sant Elmo ermitan hain debozio handiz gordetzen den eta adoratzen den irudia lehen bietako batena izan-go dela iduritzen zaigu. Baina, hara hor, itxuraz era euskal-

dunagoa dela uste dutenentzat Done Elmo edo Elmo Donea (edo Deuna) behar zuenak Telmo Deuna daroa.

Harrigarriagoa beste honako hau da, zumaiar bati entzuna: «Ba, oker baldin badago hobe; santu bat gehiago».

Galdetzekoa litzake zeruan tokirik zuen ala ez. Dena dela, ikazginaren fede hori ez dakit zer izango den, baina itsu-mustuan ari direnena gauza bitxia dela badakigu.

SITSA ETA ZERENA, BI GAUZA DIRA.—Euskalkirik gehienetan *pipia*-rekin ezagutzen dira gaztelerazko «polilla» eta «carcoma». Bereizketarik gabe. Baina, Bizkaian eta Gipuzkoako zenbait tokitan oihalari eta zurari sortzen zaizkien zomorroak beren izen jatorrak dituzte: *Sits*, «polilla» eta *Zeren*, «carcoma» (xilófago).

Azkuek bere Hiztegian oso argi dakar *Sits*, baina *Zeren*, xilofagoa, hirugarren mailako eta bereizkuntzarik gabe. Horrez gainera, *Zeden* ere badakar, bigarren mailako eta ez hain ongi zehaztua. Toribio Etxebarriak ordea, «Lexicón»en (*Euskera*, X-XI, 1965-66), «ziz da biz» ematen du bien arteko bereizketa. *Zits*, zetakin badakar ere, bere esan nahia «Polilla. La de la madera: zerena» bereiztuko du ondoko esaldi hau adierazgarri gehituz: «*Zitsak jan detsa soñekurik onena* Le ha comido la polilla el mejor vestido». Zerenaren adierazpena aldiz, honako esaldiz: «Polilla que ataca la madera, sinón. zitsa. *Zerenak jaten dau egurra, zitsak erropia*».

J. S. M.

LIBURUAK

JOSEBA LAKARRA, KOLDO BIGURI, BLANCA URGELL. La-
guntzaile: KRISTINA RICO.—*Euskal baladak*. Azter-
keta eta Antologia (Bi liburu). Hordago publikapenak.
Donostia, 1984.

Gure artean gutitan ohi bezalako saiakera lana aurkezten digute «Maria Goyri» Mintegikoek euskal baladen azterketa eta antologia biltzen duten bi liburutan, baladen jeneroan kokatze zehatzez, zeren «gutienaz azken bi mendeotan Euro-
pa osoan zehar sail berezi eta autonomotzat eduki eta araka-
tu izan den baladaren hau gure artean monografia eta langile
faltaz oraindik eraiki eta garatu gabe dugu, Euskal Herriaren
mugetatik atetikoa jazo izan ez balitz bezala». Eta, jenero
hau ez ezik beronen barnetiko sailkapena ere klasifikatzen
dute egileek (ikus 21. orr.).

Egia esan, euskararen alde laudorioak eskaintzen izan du-
gu gizonik aski, aldiz langilerik guti. Apolojisten laudorio
haiek euskaraz izan balira ere gaitz erdi, baina bai lehen
eta bai orain, gure herri honetan laudorioak ere erdaraz erra-
zago dabilta, altxortzat jotzen dugun euskara txukuna era-
biltzeko baino aisago gordetzeko balitz bezala. Horregatik,
ez gaitu batera larritu behar zenbait alor landu gabe eduki-
tzeak. Eta Unibertsitate berriaren filologia sailak badu zere-
ginik nabarmen agertzen zaizkigun hutsune horiek betetzen.
Liburu hau dugu adibide hortik espero dugun lan ederreta-
rik bat. Betor zorionean.

Egile taldeak bi zati nagusitan aurkezten digute beren la-
na: baladeri buruzko azterketa orokorra eta baladen aldae-
ra sorta.

Lehendabiziko tomoak bederatzi kapituluz garatzen du:
baladen hizkuntza, egitura, sailkapena, ikerketen historia, bi-
zitza edo iraupena, balada beraien historia eta geografia. Az-
kenik, bibliografia. Bigarren tomoa, aldiz, ez da lekukotasu-
nak aurkeztuko dituen antologia hutsa, sarreran hautapenez
eta edizioz erizpideak emateaz gainera zenbait sailkapen za-

har eta modernoz eta oharrez aberasturik dator eta aurkibi-
deak zer-non laster aurkitzeko eran.

Orokorki begiratu ez denik ez dugu esango. Guziak zehaz-
ki jasotzea beste gauza bat da ordea. Bi tomoek, beren 13.
orrialdeetan dioten zerbaitek gure kezka eta zalantza ziri-
katzen dute. Lehenengoan europear baladak aipatzeaz eta bi-
garrenean «Bibliografia hau, euskal baladaren azterketari da-
gokionez, ahalik eta exhaustiboen egiteko asmoa izan dugu»
aitortzen digutelarik legezkoena zen Karlos Augusto Mahn-ek
1857an Berlin-en argitaratu zuen *Denkmaeler der baskischen
Sprache...* zeritzan lanean argitara eman zituenak ere kontu-
tan hartzea, garrantzi gutiagokoak asko sartu dituztenez. Egia
esan, gure artean aspaldi ahazturik eduki ditugu aleman ho-
rren lanak. Laster dator Mahn-en heriotzako mendeurrena,
1987ko urtarrilaren 26an. Gu geu ere ez ginen gogoratuko
oraintsu Patri Urkizuk *Egan*-erako prestatu duen lan bat eka-
rri ez baligu, nolabaiteko zorra ordaintzeko europearrarekin.

Esanak esan, tipikeri horiek gora-behera, arestian aitor-
tu dugunari eutsiko diogu: gure artean ohi ez bezalako lan
ederra dela.

Baina, obrari bere baliorik kentzeka, irakurtuaz jaso di-
tugun zenbait ohar emango ditugu, ondoko lanen argigarri,
zeren hain zentzuz landu dutenek osagarritzko eraskinak ere
eskainiko dizkiguten ustea bai dugu. Batzuk gehigarri, beste
batzuk zuzengarri, hara hor zenbait adibide:

Ipui edo kontaeraz bukaeretan (25. orrialdean) formula
gisa erabiltzen den horietako bat, bizkaieraz honela entzun
izan dugu:

Hori hola bada

sartu deilla kalabazan

eta urten deilla

Otxandixoko plazan.

Gutiago batzutan, hori bedori, «Bitorixako planzan»ekin
amaituaz. Eibarren beste gehigarri bat ere erasten genion:

«Otxandixoko plazan / abaneria dantzan». Baina ez dago du-
darik azken zati hori askozaz ere berriagoa dela.

«Martin Etxeberriko» oker dago 43. orrialdean. Horren or-
dez «Markin-Etxebarriko» behar zuen (Markina-Etxebarria
baizen gertatuaren tokia). Kontestuak berak argi dio, baina,
egileek ez dira ohartu. «Markin» ordez «Martin» eta «-barri»
ren ordez «-berri», jartzea bera baino huts handigoa da hola-
ko lan serio batean iturriak ez begiratzea. Hau da, iturrietara
joan beharrean bigarren edo hirugarren eskutikako testuaz
baliatzea. Gainera, «Amalau eriotzena» bizkai-guipuzkoetako
euskaldunentzat bertso oso ezagunak dira.

41-44. orrialdeetan dionak badu zer ikusirik aurreko *Egan*
(1985-eko 1-2 zenb., 55. orr.) aldizkarian agertzen genuen idea
harekin, kronika gisa egindako bertsoeri lekukotasuna ematez.
Lehenago *Gogoz* (1978) liburuaren 267. orrialdean ere
aipatua genuen eritzi bera. Baina, era hortakoak berebiziko
ongi eskaini zizkigun A. Zavalak Auspoako zenbakietan, dela
Cuba eta Afrikako gerra edo beste gertakari zenbaitez.

Bertsolaritza bestelako jeneroa bada ere, garai bateko
bertso papareak badute zer ikusirik, bereziki kronika emate-
ten dutenak. Hori eta ez beste bai da «Amalau eriotzena» ere.

Hastapenetan *Literatura de cordel* (36-38. orr.) aipatzeaz,
Nafarroako erromanikoan egertzen diren zenbait irudi datoz
nere eroitzapenera: soinujole eta kantariak, hein batean, titi-
riteroak, baina titiretero elbarriak ziren, batez ere Etxanoko
atariko arkiboltetan aurkezten diren irudiak, XII. mendean
eginak. Bestalde, nolabait ahoz-ahoa hedakunde handia har-
tzen duten kanta horietakoa zen Akundiakoa ere, 1390ekotzat
Ibargüen-Cachopin-ek 70. kuadernoan aipatua: «Acundia, le-
jarr(...)ga legarbaga», baina aipamena soilik, aditzera emateko
haina bazik ez euskaldungoarentzat hain ezaguna zenez. Bai-
na gaur egun ez dakigu kanta horri buruz aipamen hori bes-
terik. Gure garairaino iritsi dena, kanta herriz herri zabal-
tzeko ohitura izan da. Mendaro Txirristakak edozein gerta-
kariz egiten zituen bertsoak, gero ber-berak inprimategira era-

man eta bertso-paperak feriarik-feria saltzen ibiltzeko. Apalategi besamotza ere hala ibiltzen zen, bertso-paper sortak salduz. Honek, berak jarritakoak eta beste nornahik eginak, garaian garaikoa eta momentu bakoitzean jendearentzat interesgarriak izatea aski zuen, salmenta zelarit gaitasuna markatzen zuena. Baina, aintzinago, inprimatu gabe gelditzen ziren, ahoz-ahoko balio hutsa zuten eta, nahi ta ez, asko izan behar betiko galdu direnak. Euskaduna ez baita letretarako ikasia izan, eta memoria, gehienetan, uste baino laburragoa da.

Euskal baladak, salbatu diren neurrian hor daude orain jenero berezi baten multzo ederra eginaz. Gure zorionik kartsuenak hori burutu duen taldeari. Lan ederra benetan.

J. S. M.

LUIS MICHELENA.—*Lengua e historia*. Colección Filológica. Paraninfo. Madrid, 1985.

Hara hor Mitxelenaren hamabigarren liburua. Bera beza-lako idazle batentzat ez dira liburu asko. Hau berau hor-he-men barreiatutako lanez hornitua da. Baina bere lan guziak era honetara bildurik, zenbat liburu osatuko lituzke? Beste hamabi haina bai noski. Baina Mitxelenaren kasoan ez dut uste kantitatea hain kontutan hartzekoa denik, baizik bere kalitatean datza gizon honen emaitza. Iker lanak hala bai di-ra. Gainera, kalitateak berakin du, iker lan batean, ematen diren aburuen iraupena. Horregatik, eta liburu honetan argi dagoena da, aspaldi idatzitako edozein lan hartzen dugula-rik, gaur egungoa dirudi; edo gure begien aurrean lehen lau-so genuena orain argi ikustea. Hizkuntza kontuan, idazkera-tik hasita, urte askoren abantailaz ibili bai zaizu gure gi-zon hau.

Lengua e historia deritzon liburu honetan lehenik aldiz-karietan barreiatuak zituen hogetahamabost lan hautatu bil-tzen ditu. Gehienak gazteleraz idatziak eta batzuk frantsez. Bertako aldizkarietatik baino gehiago herbestekoetatik bil-duak. Liburu honetako lanik zaharrena 1952an *Emerita* aldiz-karian Tivisa-ko paterari buruz eman zituen eritziak eta la-nik berriena *Revista de Occidente*-n euskara idatziaren nor-malizapenari buruz 1982an publikatua. Baina, lan bilduok ez daude argitaratu ziren kronologiaz emanak, gaietan elkarri hurbilduak baizik. Azkenean hamar orrialdeko eraskin edo hitzatz (Epílogo) bat dakar, 477. orrialdean, lehengo lanen osagarritz, zuzenketaz eta oharrez. Eta, hizkuntzari buruz zer ez dakarren aipatzea errezagoa zaigu zer dakarren baino. Hainbeste gauza bai dira liburu mardul honetan erabiltzen dituen gaiak. Bertan, nola ez, euskal literaturak ere badu bere tokia.

Estrukturalismo teorietatik hasi eta euskara-kaukasikora arte urratzen ditu: gramatika generatiboaz, dialektoen zatike-taz, konparaketaz eta abar. Baina baita ere iragarki zaharrez,

erromatar, zeltiberia, indoeropar, iberiko,... bidenabar gure hizkuntzaren sustrai zaharrak ikutuz. Era berean, egungoari begiratzuz, elebitasunez, hizkuntzaren normalizapenez eta soziolinguistika gaiak ikutuz. Gai bakoitzean bere jakintza sakona erakutsiz. Onomastika eta hiztegiak ere leku berezia dute. Bestalde, zenbait euskalaren lanak ere aztertzen ditu, aburu zorrotzez, baina Koldori beti nabari zaion zentzuz, eritziak ematean zuhur eta bermaz.

Lan hautatuok liburu batean eskuratu ahal izateko aukera bikaina eskaintzen zaigu. Aldi berean, hainbeste eratako lanak direnez, oso ongi datoz Maite Etxenikek prestatu dizkion aurkibideak: 490. orr. liburuan barna aipatzen diren izen zerrendaz eta 502. orr. gaiei buruz.

Inork gure hizkuntzaren historiaz, etimologiaz, hiztegiak, gramatikaz, euskalkiez, batua,... ezer jakin nahi baldin badu, beharrezko du liburu honi begiratzea.

J. S. M.

GILLERMO ETXEBERRIA, IÑAKI IÑURRIETA.—*Euskal Literatura. Testu azterketa*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Argitarapen zerbitzua. Bilbo, 1985.

Euskara, guk nahi bezain bizkor ez badoa ere, poliki poliki aurreruntza doa bideak urratuz. Maiz, bide berriak. Lizardiren gogozko zen hizkuntza larreako eginaz noranaikoa.

Honako liburu honek argi erakusten digu filologia ikasketan lehenago euskaldunentzat erdaraz erabiltzen ziren liburuen ordeaz orain bertako hizkuntza jatorrezkoak erabiltzera datozela testu azterketarako. Izan ere, teknika berdinekin baliatuarren, euskararen azterketarako ber-beraren giharrez eta bere literaturaren adierazpenaz daudenak, zer esanik ere ez, gaia ulertzeko eta sakontzeko askozaz hobeak direla. Beraz, ongiatorria eman beharrezkoa dugu G. Etxeberria eta I. Iñurrietak elkar lanean antolatu eta burutu duten liburu hau.

Elkarlanean bai, baina bakoitzak izan du bere arlo jakina edo berezia. Lehen partean Etxeberriak, sarreratzat, testu azterketarako eskema eta argibideak eskaintzen ditu, puntuz puntu prestaera, testuingurua, edukiaren eta formaren analisia, komunikapen balioa eta eritzi pertsonala agertuz. Ondotik hasten da lehen atala, XIX-XX mendeetako testu hautatuak eskema horien arabera sailkatzea. Autoreak hilen artetik hautatuak dira: Elizanburu (?), G. Adema «Zaldubi», F. Arrese Beitia, Lizardi, Lauaxeta eta J. Mirande.

Bigarren atala I. Iñurrietak egina da. Sarreratxo baten ondotik kantategi eta autore zaharren testuen azterbidea eskainiz: «Bereterretxen khantoria» eta «Egun bereko alarguntsa» ditu kantategitik jasoak eta autore hautatuak, B. Etxepare, A. Oihenart, Axular, P. I. Barrutia eta J. A. Mogel.

Oso ondo taxututako liburua iduritzen zaigu eta, zer esanik ere ez, premiazko ditugun testu hutsune nabarmena betetzera datorkigu.

Egileon zati hautatuok bakoitzaren idazkera adierazteko aski ongi hautatuak iduritzen zaizkigu, neurri batean obraren edukiaz idea orokorra ematen dutelarik. Etxeparen, adibidez, oso ongi egin du (edo dute) hainbeste errepikatu ditugun Kontrapas eta Sautrela ez hartzeaz, obra beraren mamiagokoa dena baizik: Amoros sekretuki dena eta Potaren galdatzia.

Horiek eduki orokorraren adierazgarri direnez. Hoberena hautatzekotan, bakoitzak bere gogozkoak izanen ditu eta nik, egiazki, Mosen Bernat Etxeparere kantuia dut gogoko.

Erdi aroko poeta dela? Hala izanik ere, behar bada, Hita-koarengadik hainako hurbiltasuna du Inglaterrako poetekin. Espriu zenak ere hala aitortzen zidan behintzat.

Arestian Elizanbururi galdera zeinua zergatik jarri diodan aipatuko du norbaitek. Eta, hala jarri badut Solferinoko itsuarena zalantzazkoa den iritzia dudalako. Hobeto esan, iritzi soilez beste norbaitek eman zion Elizanbururen gurasotza. Elizanburuk noizbait Salaberri izenordea erabili zuela eta horrez gainera Napoleon III.aren armadan kapitain ibili zela eta, hori ez da nahikoa lekukotasun kanta hori beretzat emateko. Salaberri deiturako bertsolaria bazen, garai berean kanta horren egiletzat edukia. Gainera, Elizanburu Saran bizi zen urte haietan Salaberri Biriatur, eta Jose Manterolak biek in izan zituen, denbora berean, gutunezko harremanak, bere *Cancionero Vasco*-n Solferinoko itsuarena argitaratzeaz esaten duenez. Dena dela, ez da eztabaidatzeko gauza, ikeretzekoa baizik. Ikerketa sakonago bat egiten ez den artean hor daude Manterolaren idazki argitaratuak lekuko.

Liburu honen atariak zerbait harritu gaitu, bereziki Unibertsitateak datorrenez gero. Ez da azalean «textu» eta atarikoan «testu» jartzeagatik. Normalkuntzaren bideetan doan hizkuntzan ez du inork zertan harritu gauza horiegatik. Ez. Besterik da liburuaren ezaugarriak atarikoan agertzearena. Aurreko *Egan*-en ere holako zerbait salatu genuen Arabako Foru Diputazioko argitarapen sailak J. M. Vélez de Mendizabali *Lainopean kantari* liburuan egin zionagatik. Eta hara hemen berriz gure Unibertsitateko argitarapen zerbitzua bera ere Gutenberg geroztik gehiengoak jarraitu duen norma bera bete ezinik. Hori, edo UNESCOk geroago xehetasun gehiagoz emana ezagutu beharrezkoa da liburugintzan ari direnen aldetik. Liburuak, azalean ez du izanen beharrezko, baina azalaren barrukaldetik joan behar den atari edo atarikoan: egi-lea, izenburua, argitaratzailea, hiria eta urtea jartzea beharrezkoak ditu bibliografia lanetan aritzen direnek non oinarritu jakin dezaten eta aurpegia behar bezala ager dezagun.

ELKAR LANEAN.—*Plentzia. Azterlanak — Estudios. Plentzia'*
ko Uri Udala. Ayuntamiento de la Villa de Plencia.
1985.

Gure artean gutitan ohi bezalako monografia. Gure historiaren ardatz nagusiak aski ezagunak dira, baina lekuan lekukoa, herriz herri, oso guti landu da. Gai horretaz Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak lan ederra bete zuen herrietako monografiak lehiaketarako deia eginaz eta hiri edo herri guzienak bilduz eta argitaratuz 1970-76ra bitartean. Lan haiek, balioz oso desberdinak baziren ere, gaur egun Gipuzkoako edozein herritan lana egiteko abiapuntutzat laguntzen dute.

Baina Plentziako hau ez da historiari soilki itsatsia, etnografiatzko zenbait eremu ere hartzen dituanez.

Liburua alkatearen agurrez hasten da eta bertako lanen ildo nagusia era honetara doa: Jose M.^a Hormazak Plentziako etxeak aztertzen ditu XVIII. mendeko forutzaren bidez, era berean galdutako ohitura zaharrak bilduz, Andra Mariaren ikerketarako oharra eta jentilen kondaira zatiak; Xabier Alzibarrek, Joan Kruz Renteria eta Jose Antonio Uriarte eta Plentzia bertako euskara aztertzen ditu, lehenen testu eta oraingo ahozkeran oinarriturik; Gonzalo Duok Plentzia eta inguruaren bibliografia katalogatze saioa, San Pedro Kofradiako ordenantzak eta diru-kontuen liburua argitaratu eta ibai inguruko toki-izenak bildurik; Jose M.^a Etxebarriak Plentziako banatasunaren XIX gizaldi erdiko lekuko den J. Kruz de Renteriaren euskal testu ezezagun bat oharrez argitaratzen du; Anton Erkorekak Barrika, Plentzia, Gorkiz eta Lemoizko heriotza estadistikak (1970-79); Iñaki Bengoetxeak ipuiak eta aintzinako kondairak; Antxon Agirrek itsas-mareaz erabiltzen ziren erroten ikerketa; Iñaki Gamindek Gaminiz inguruko azpi-euskalkiaren aditza. Eta, bukaeran, 1879an argitaratu ziren Ordenantzak fakzimilez birargitaratuak eta, era berean, 1888an burdinbidea jartzeko egin zen proiektarena.

Lan batzuk euskaraz beste batzuk erdaraz, bakoitza bere gaian eta bere mailan guziak dira interesgarriak. Liburu aberatsa da bere edukinez.

Argazkiz eta marrazkiz ez ezik liburua bera ere barne eta kanpoko egituraz ondo hornitua da.

MARIANO OSTOLAIZ.—*Oroipen kutxa*. Auspoa Liburutegia.
Tolosa, 1985.

Auspoa saileko beste autobiografia bat da. Nik ez dakit nondik edo zelan duen Auspoaren zuzendari den Antxon Zavalak holako egileak aurkitzeko ahalmena, baina meriturik aski badu horretan.

Egileak haurtzaroko dotrinatik abiatuz 1936ko gerratea eta horren ondorengo esperientzia latzak kontatzen ditu. Kolpe batean irakurtzeko liburu samurra da. Dramatismo handirik gabe, kementsu gainditzen ditu orduko auzi-mauziak. Istilurik ez zen falta, baina Ostolaizek bazuen barrutik berezko indarra ezbehar guziak gogo onez eta umorez eramateko. Nork esan ibilera haiek sagardotegiko giro lasaian bukatuko zituenik, ironiarik harrigarrienez azalduz:

*Etzait ajolarikan
egon edo ari,
zurruta egin ezker
denak bertsolari.*

Guziak horrela hartuko balute bizitzaz jarrera, beste txori batek kantatuko liguke kristauon gizartean.

Liburuak ematen dituen lekukotasunak gure mende honen erdialdiko historia tipiak osatzeko balio handikoak dira. Baina, horrez gainera, liburu hau, edonorrentzat irakurgai atsegina da.

P. CHARRITTON.—*Pierre Broussain: sa contribution aux études basques (1895-1920)*. Centre National de la Recherche Scientifique. Centre Régional de Publication de Bordeaux. París, 1985.

Obra honetan Charrittonek ongi erakusten digunez, Piarres Broussain pertsonaia garrantzitsua izan zen Euskal Herriaren historiarako. Gure mende honen hasieran, behar bada beste inor ez bezalakoa Ifar Euskal Herrian, abertzaletasunaren pizteaz eta kulturgintzarako mugimendu berriak sortzeaz eta ekintzak suspertzez. Bere heriotzaren oroitzapen-tan oso ongi zion Jean Etcheparek: «Noizbait, bilduko dire-larik harek milaka barreiatu eskutitzetarik zombait ehun, jakinen du xeheki Euskal Herriak nor zen zinez Pierre Broussain gaizoa, eta zonbat urrats, ez oro alferrak, dituen erabili bizi zeno, arbasoen lurra maite baino maiteago».

Orain, Charritton euskaltzain berriaren eskutik datorkigu hura nor zen argi erakutsiko digun lehen liburua.

Liburu hau Jean Haritschelharren hitzaurrez dator. Lehen partean Broussainen bizitza aztertzen du: familiaren jatorriak Hazparden oinarrituak, Paris-eko ikasketak, medikuntzarekin batean euskal kulturaz kezkatutik hortaz ezagutzen ziren liburuak irakurriz eta gizonik gorenengoeekin harremanak hartuaz, gero herrira itzultzean bertako arazoak zuzenean eramanaz, arduraz eta karguz eraman ere, eta hamalagarreneko gerratea bukatzeaz laster hiltzea gertatu zitzaion, eta bere ekintzak eta lanak hor gelditu ziren nahikoa ahazturik. Bigarren partean Broussainen euskal kulturarako emaitzak, 1895etik 1920ra: ortografiak eta gramatikaz egin zituen ohar-rrak, lexikologiaz eta lexikografiak egin zituen ikerketak, kantak eta herri-literaturaz eta Broussain idazlea. Hirugarren parteak, politikazko militantziak eta kultur eragiletzak: Broussainen euskal abertzaletasuna, Broussain eta euskal kultur erakundeak, Broussain euskara batuaren alde eragile eta

egungo egunerako mezua. Gai guziok oharrez eta agiriz ondo hornituak. Bibliografia eta testuan datozen izenen ezerrendak.

27 x 21 zentimetro neurritako liburu horrek 331 orrialde ditu. Bigarren orrialdean Broussain zenaren argazki eder bat dakar, baina ondoko kapituluak zehar berakin harremanik gehien izan zituzten pertsonaienak datoz, plana osozko portreta ederrez: G. Lacombe, R. M. Azkue eta J. Hiriart-Urruty, eta horiez gainera Hazparneko zenbait bista, bertako erro-matar harria, Urkuraiko gurutz hilarria, Broussainen eskuizkribua eta abar. Liburu ederra benetan Piarres Charrittonek dotoradu tesigintzaren parte bat osatzen duen hau. Aditza dugunez, P. Broussainen gutundegia ere laster argitaratzeko-tan omen du. Betor lehenbait lehen.

Ifar Euskal Herrirako eta euskararentzat ez ezik mende honen hastapenetako historia ikertzeko ere liburu baliagarria iduritzen zaigu. Zer esanik ere ez euskal literaturarentzat zer nolako agiriak eskaintzen dituen. Hain zuzen, horrek bultzatu bai nau aipamen xume hau egitera.

J. S. M.

Literaturazko aldizkari berri bat. Ez nolana hikoia, orainartekoen gainetik edo albotik, hutsune nabarmena betetzera datorrena baizik.

Bere editorialean, «Bat hirutan», agertzearen ildo nagusizat honako hauek adierazten ditu: «Azken hamarkada honetan literaturara hurbildu diren gazteek beste formula berri bat aukeran nahiago izan dute: ohizko errebisten eskuetan beren lanak utzi ordez, adin, ideolojia edo literatur kidetasunen arauera bildu dira eta talde bakoitzak bere errebista argitaratzeari ekin dio. Errebista hauen adierazgarririk nabarmenena aldikotasunik ezean eta taldearen joera berezien ahots emaile izatean datza. Kreatzio lanei toki gehiago eman diote informazioari baino eta informatu dutenean talde bakoitzak deboziozko egileei buruz izan da, halabeharrez noski».

Azken aldian dion guzia ez dut uste horrela denik, eta horren jakitun dira *Literatur Gazeta*-ren arduradun gehienak, gurean ate idekiak aurkitzeaz gainera kolaboratzaile izan direlako, inolazko oztopo edo eragozpenik gabe.

Aurrera jarraituz, agerpenaren bigarren sailean, arrazoiz dio: «Ez dugu literatura teoria handirik nahi, gutxiago literatura teoria horregatik bandera egin; nahiago dugu poltsikoak bertan eskuak sartzeko direla jakin». Ongi esana poltsikotik ezer ateratzekorik ez dutenentzat ere.

Horregatik edo horren arabera, lasaitasunik handienarekin abiatu dira: «Literaturari buruzko asmo informatzailea sendo da, estazio-zero honetara iritxi baino lehen gure trenak ipurdiz gora egingo zuela zenbait eztaurrik eta lumak esan eta idatzi badu ere. Literaturaren alorrean, informazioz eta kritikaz osatzen den abiadura aukeratu dugu. «Literatura»-tur alor hori edozein «litera» estetikorekin zerikusi daukanak osatzen du, «litera» idatziak bereziki, bixtan da. Literatur abiadura franko badauka gure herriko beste zenbait trenek, baina honoko trenbidean ez genuen trenik aurkitzen eta, hara, bertan gurea. Literatur Kazeta abiadura handikoa izango ote den geroak esango. Abiadurarik hartuko ez balu, bertan behera uzteak ez liguke burukominik emango. Dena den, tren martxan da. Gratis da martxa eta gratis izango gurekin tren

hartu nahi dezuten guztiontzat. Leiho eta ate guztiak zabalik dauzka, ez esan gero lekurik ez dagoenik».

Lehen zenbaki hau honako hauek egiten dute: Mikel Lasa, Juan Antton Zubikarai, Nerea Azurmendi, Bernardo Atxaga, Felipe Juaristi, Koldo Etxabe, Mikel Azurmendi, Esteban Antxustegi, Joseba Sarrionandia, Begoña del Teso, Patri Urkizu, Koro Baroja, Tere Alonso, Edorta Asarta, Joxerra Gartzia eta Karlos Zarragak. Koro Baroja eta Koldo Etxabe direla erre-dakzio-idazkariak.

Orainarteko aldizkarien aurrez-aurre, hara hor, alternatiba gisa, non jo diguten: hor dago! ederra.

Hitz eta idatzizko onarpenik ez zaio falta izan. Adibidez, *Argia*-k, irailaren 7-13. etako zenbakiak ongi-etorritz zekartzan lerroak dira lekuko. Eta, gure abegi ona ere berakin du *Literatur Gazeta*-k. *Egan* hau euskarazko literaturan aldizkarien dekanoa izanik, asmo txalogarri horien aurrean goersten dugu. Orainarteko aldizkarion konplementu eta pizgarri datorrela iduritzen zaigunez. Eta, euskal literaturaren garapenerako behar-beharrezko tresna.

Behin eta berriz errepikatuko dugu, neurri batean, gure hizkuntz bereziaren baitan errebindikatzen dugula gure herriaren nortasuna eta politika eskubideak, baina zein guti begiratzen dugun hizkuntzaren eduki nagusienetakoa den literatura eta, eta literaturan bertan garaian garaiko berrikuntza.

Bizigarriak eskaintzera datorren *Literatur Gazeta* honek, begiramena eta laguntza behar ditu. Zeren hartu duen bidetik kultur mailak gaurkotuz eta goratuz arituko bai da. Hainbeste «Euskararen Zerbitzu» eta hizkuntz politikazko ekintzak bizkortu nahirik dabiltzanak, otoi, har dezatela ardura eta begiramena holako aldizkari batek ekonomiaz porrotik egin ez dezan.

Literaturaz kezkatu eta informazio beharrez aurkitzen diren euskaldunek ordea, egin dezatela beren harpidetza, helbide honetara eskatuz: Colón de Larreategui, 11. 48001 Bilbo. Tel. (94) 424 11 74. Edo, Konstituzio Enparantza, 2. 20003 Donostia. Tel. (943) 42 35 5 53.

Harpidetza: Urte baterako (12 ale) 2.250.— pzta. Sei hilabeterako (6 ale) 1.200,— pzta. Kanporako 3.100,— pzta.

Senex. Itzulpen eta Terminologiako Aldizkaria. 3. II. urtea, 2. zenbakia. Itzultzaile Eskola. Martutene - Donostia, 1985.

SENEZ aldizkaria orain dela urtebete sortu zen. Itzultzaile Eskolaren eraginez batipat, Elhuyar eta UZEI kide hartuta. 1984eko abenduan argitaratu zuen bere lehen alea. Ale hartarako sarreran bertan esaten zuenez: itzulpenean eta terminologian, zalantza askorekin, jende asko ari da Euskal Herrian. Horien guztien ahaleginak bildu eta oinarri teorikotara sendo bat ezarri nahia du bultzagarri.

Oinarri teoriko hori, ordea, bi iturburu modutatik letorke: Gure artean bertan edo itzulpenean edo terminologia bereziak erabili beharrean aurkitzen direnen elkarren arteko komunikazioz, nork bere ekarritxo eskainiz. Esaten duen bezala: «Esan nahi bait da aldizkaria guztiok egiten dugula, guztiz irekia dela zer esana, zer galdetua, edo zer zalantzan jarria duen ororentzat». «Oro» horiek asko dira, bertan dienez: Administrazioan, testugintzan, erdi eta goi mailako irakasleentzat, komunikabidean, argitaletxetan eta abarretan.

Bigarren iturburuak, nazioartean itzulpen eta terminologiaren teoriagintzan sortzen diren ekarriak lirake «munduan bakarrik ez garenez», sarrerak berak dioen bezala.

Asmo aitortu horiekin, beraz, SENEZ-ek lehen urtebetean osatzen dioten hiru aleetan dakarrena ez da gutxi.

Lehen alea, ia osorik, Euskal Herriko itzulpen eta terminologiagintzaren egoera aztertzea emana da. Non egiten da itzulpena eta terminologia eta nor ari da horren teorizazioan. Itzultzaile eskolaren eta UZEI eta Elhuyar-en historia luze baren ondoren, itzulpenak zenbait instituzio eta ihardueretan duen lekua aztertzen da: komunikabideak, administrazioa, argitaletxeak, hizkuntza itzulpen poetikoak bere garaian izan zuen eraginaz S.F. Gontxarenko-ri itzulia, adibidez, hemen ere egingarri diren ikerketetarako bide eta metodologia aski interesgarriak erakusten dituena.

SENEZ-en ekarririk txikiena ez da, hemengo itzultzailearen prestakuntzarako, ekartzen duen liburu eta aldizkari bibliografia.

Bigarren alea, 1985eko apirilean argitaratua, askoz ere nabarragoa da gaien aldetik, «aldizkariagoa» zentzu horretan, lehenengoa baino. Itzulpenaren eta terminologiako teorizazio lanei ematen zaie pisu handiena: «Terminologiaren teoria orokorra» (A. Sagarna), «Itzulpen teoria eta praktika: Joerak eta eskolak» (X. Mendiguren), «Interpretaritzza» (Jesus Arrimadas). Hiru artikuluko horien artean alearen erdia betetzen dute ia.

Beste zenbait artikuluko xehagoak dira, puntu zehatzagoei dagozkienak. «Ingelesaren konpresioa eta beronen itzulpena», edo itzulpen eta liburu kritikazkoak: «Os vellos non deben de namorarse» A.M. Labaienek egindako itzulpenarena. «Euskal lokuzioak. Hiztegi erotikoa» edo «Drakula berpizten» euskal telebistako zenbait itzulpenena.

Bibliografi aipamenei dagokienez, lehen alearen modu beretsuan egiten du, ekarri garrantzia handikoa delarik baina hemen laburbildu ezina, tamalez.

Hirugarren aleari dagokionez, 1985eko irailekoa, hain zuzen, aurreko ildo beretik doa. Teorizazioa, hemen bertan egina: «Itzulpena eta hizkuntz normalkuntza» (J. Zabaleta), «Terminologi zentruak eta bankuak» (Tere Barrenetxea), eta hemendik kanpoko esperientzien bertaratzea: «Transformazio lexikoak itzulpenetan» eta «Itzulpen prozesuaren sakonketa linguistikoa». Horiez gainera, artikuluko laburragoetan, itzulpen kritika, Orixeren «Itsu-mutila» (Pedro Iturrioz) eta «Mantxako herri batean» Pedro Berrondok burutu duen itzulpenari buruz (Gotzon Egia). Puntu zehatzagoak aipatzen dituzten artikulukoak dira «Itzulpen kritikaz» (X. Mendiguren) «Itzulpena eta testuen interpretazioa» (K. Zumalabe) eta euskarazko zenbait esaldi konpletibori buruz Uliondok osatua.

Bibliografiari dagokionean, aurreko bi aleak baino osatua dator hirugarren hau, komentatuagoa eta zehaztuagoa.

Esan liteke, beraz, urtebetek ematen duen distantzia horretatik, SENEZ finkatua dagoela, honelako aldizkari bat finkatua egon litekeen adina behintzat. Lehen urtebete hori osatzen dioten 450 orrialdeetan ekarri oparo bat eskaini diola euskal itzulpen eta terminologiari.

Gauden hontan gaudelarik, ezin kendu dut burutik orain dela sei urte euskal itzultzaileen artean inkesta bat egin zelarik, 30 erantzuleen artetik 6k bakarrik ezagutzen zutela «libururen bat» itzulpenaren teorian (Euskera XXVI). Begien bistakoa da alor honetan izan den aldea, bai itzulpenak hartu duen bueloagatik, bai hori bideratzeko eta itzultzaileak prestatzeko egin den ahaleginagatik. Premiak, hala ere, handiak dira oraindik, eta SENEZ-ek, «guztiona» izanez jarraitzen duen bitartean, edukiko du nork, zer eta nori esana.

J. M. Zabaleta

ANTZERKIA

SUEDAKO NEXKATXA

- Jokaiariak

Purres Larcabal

1 -- PATIN, gorputzer pisu, 50 bat urte

2 -- KATALIN, **ANTZERKIA**

3 -- XEVILA, bizi-bizia, debria agina, 18 urte

4 -- POCPIA, lehen guri, 20 urte

5 -- ANKKA, edozein, 22 urte

6 -- LUZI, edozein, 20 urte

7 -- JECPIA, sentimendua, 22 urte

8 -- MINKUA, edozein, 50 urte

9 -- GIZEN, gizon poilt bat, 50 urte

10 -- OTOKAINA, edozein, 40 urte

11 -- OTOKAINLAGINKA, edozein gizon

ANTZERKIA

SUEDAKO NEXKATXA

Jokalariak

Piarres Larzabal

- 1 — PATIN, gorputzez pisu, 50-bat urte
- 2 — KATALIN, idor, manatari, 50-bat urte
- 3 — XEXILI, bizi-bizia, debruz egina, 18 urte
- 4 — PANPILI, leun, guri, 20 urte
- 5 — ARROXA, edozein, 22 urte
- 6 — LUZI, edozein, 20 urte
- 7 — JAN-PIARRE, sentimendutsu, 22 urte
- 8 — MIHIKUA, edozein, 50 urte
- 9 — GILEN, gizon pollit bat, 50 urte
- 10 — OTOZAINA, edozein, 40 urte
- 11 — OTOZAIN-LAGUNA, edozein gizon

LEHEN GERTALDIA

Joka-lekua: *Edozoin barne*

Taula gainean: Katalin eta Patin

KATALIN (*Letra bat berritz eta berritz irakurtuz*).—Neska tzarra! Hemezortzi urte baizik ez-eta, hola airatua!

PATIN.—Aski zinuen Pariserat joaiterat ez uztea. Zertako ez diozu kontra egin?

KATALIN.—Zu zira hola mintzo? Kontra egin dion bakarra, ni naiz. Pariserat joan behar zuela Xexilik aipatu zuelarik zuk ez zinuen ahorik ere ideki, xede horren haren burutik kentzeko.

PATIN.—Eta orai zer nahi du?

KATALIN.—Zer nahi duen? Jada irakutsia dautzut letra. Bainan ni zuri mintza ala suilo-tokiko pegarrari, berdintsu da. Ez duzu kasurik egiten ene erraneri eta gero, pitsik, ez dakizu!

PATIN.—Bon, amen. Orai erranen datazu zer nahi duen gure Xexilik!

KATALIN.—Beharrik dugu haur bakarra! Holako bizpahiru izan baginitu, hil-herrietan izanen ginen, hil-herrietan!

PATIN (*boza goratuz*).—Ean gure Xexilik zer nahi duen!

KATALIN.—Berant esposatu ginela! Beharrik hala egin baiginen! Beti goizegi esposatzea. Ez baita xorokeria handia-gorik.

PATIN.—Ez ginen litanietan, bainan Xexiliren letran. Ean zer nahi duen.

KATALIN.—Bon, noizbait bederen kasu emanen duzu ene erraneri. Esposatu aintzinean ba, orduan dena solas goxo zi-

nen. Hala izaiten dira gizon guziak. Bere laguna bildu artio urtxo, eta, bildu ondoan. otso.

PATIN (*kantuz*).—Santa Xexilia, emazu ateria!

KATALIN.—Badakizu gure Xexili ez dela bere buruaren jabe izaiteko adinerat heldua.

PATIN.—Ba, hemezortzi urte dituela.

KATALIN.—Eta, badakizu, haurtzat ekarria deno, burasoen baimena behar duela, mugaz bestalderat joaiteko.

PATIN.—Ba, tira beti korda. Noizbait etorriko ahal da burua.

KATALIN.—Zer, tira korda? Xexili ene haurra da bakarrik edo zurea ere?

PATIN.—Ba, paperek hala diote.

KATALIN.—Zer dituzu elhe tetele horiek? Ni nola nardaraz ari bazira, ukanen duzu gero errefera!

PATIN.—Bon, Xexili da beraz gu bien haurra eta gero zer?

KATALIN.—«Gero zer», hori dea mintzatzeko moldea? Nun duzu lagunaren errespetua?

PATIN.—Xexili dela gu bien haurra! Gero zer?

KATALIN.—Xexiliz mintzatzeko ez duzia boza pixka bat leuntzen ahal? Gure haur bakarraz hola behar duzia mintzatu?

PATIN.—Xexil-Xexil-Xexili, egiten dautzut kili-kili!... Paso inbido, hor-dago... Partida burura dezagun! Erradazu bi hitzez, Xexilik zer nahi duen gure ganik.

KATALIN.—Xexilik galdetzen dauku baimena, bakantza denboran, Suedarat joaiteko.

PATIN.—Suedarat? Nun da hura?

KATALIN.—Orai berritz nun den Sueda! Atzo letra irakurtu dautzut. Mahain ganean pausatu dautzut, zuk ere irakur dezazun!

PATIN.—Nun da Sueda!

KATALIN.—Letra irakurtu bazinu eta ukan Xexilirentzat amodio gehixago, nik bezala eginen zinuen: berehala joanen zinen karta bati behatzerat, ikusteko nun den Sueda.

PATIN.—Bon, erradazu beraz nun den!

KATALIN.—Frantziatik sartzen zira Belgikarat. Badakizua nun den Belgika!

PATIN.—Ba, hango erregea ikusia dut galtza motxetan maizatzen.

KATALIN.—Bon, Belgika trebesatuz, sartzen zira Holandan. Badakizua nun den Holanda?

PATIN.—Ba, behi Holandesak ezagutzen ditut: errape ederra dute.

KATALIN.—Holandatik sartzen zira Alemanian. Badakizu nola-koak diren Alemanak?

PATIN.—Ba, zure aita hala omen zen!

KATALIN.—Nere aita utziko duzu gero bere gisa!

PATIN.—Alemanak baino jende gaixtoagorik ez da munduan. Nik hori, bi gerletan frogatua dut gero.

KATALIN.—Bi gerla? Nun egin ditutzu zuk bi gerla?

PATIN.—Hemen berean: bat zure aitaren kontra, eta bestea zure kontra.

KATALIN.—Ba, zu bezalako soldadoak emazteri jazartzeko ho-beak dira gizoneri baino!

PATIN.—Bon beraz, utz dezagun aipatu gabe zure arraza! Gero norat jo behar da Suedarat heltzeko?

KATALIN.—Alemaniatik sartzen zira Danemarkarat. Ezagutzen duzia Danemarka?

PATIN.—Ba, hango zakurrak!

KATALIN.—Zer, hango zakurrak?

PATIN.—Hango zakurrak famatuak direla!

KATALIN.—Bon, hanbat gaxto gero errespetua galtzen badautazu!

PATIN.—Ez dauzut nik errespeturik galdu: zakurrak aipatu ditut eta ez zakurren zerak!

KATALIN.—Danemarkan, hartu behar da itsas-untzia.

PATIN.—Ba, arrainen asetzerat joaiteko.

KATALIN.—Ez arrainen asetzerat, bainan Suedarat. Suedako jendea ba ote dakizu nolakoa den?

PATIN.—Ba. Gerla denboran ikusiak ditut hango gizonak. Denak dira larru zuri, bilo horail, handi batzu.

KATALIN.—Ba, diozunaz, zer nahi ikusia zira gerla denboran, bainan guti ikasia. Ez baitakizu Sueda nun den ere.

PATIN.—Nahi nuke, ori, hemen balitz Gilen Bordaberri nere gerlako lagun bat. Jakinen zinuke haren ganik ean ez dugun guk Suedako gizonik ikusi.

KATALIN.—Ez zaitela has orai zure lagun Gilen-ekin gerlan izan dituzun ixtorioen kondatzen. Badazkigu aspaldian denak.

PATIN.—Gilen, ba. Jakin-azu ez dela, lurraren gainean, holako beste gizon bat. Nik bizia salbatu nion behin.

KATALIN.—Ba, mila aldiz jada entzuna dugu. Bai eta ere Gilen Ahetzetik Landesetarat joan zela bizitzerat.

PATIN.—Ba, eta zorigaitzez ez baitakit bizi denetz ere!

KATALIN.—Bainan, zure Gilenez baino hobeki eginen zinuke grifnatzen bazina gure Xexiliz.

PATIN.—Xexili, ba, eta gero zer?

KATILIN.—«Eta gero zer», ez duzia besterik erraiteko? Beti so-las zozo berak dituzu jalitzen, «eta gero zer»!

- PATIN.—Gure Xexili beraz.
- KATALIN.—Ez da goizegi, Gilen eta gaineratekoak beren gisa utzirik, azkenean aipatzen baituzu gure haurra.
- PATIN.—Santa Luzia, ora pro nobis!
- KATALIN.—Ez naiz ni Luzia, eta luzatzen badut ene solasa zure falta da. Aski zinuen letra irakurtzea!
- PATIN.—Beraz, Xexilik Suedarat joan nahi duela.
- KATALIN.—Bai, hala dio. Arras adixkide dela Suedako nexkatxa batekin. Parisetik Suedarat, joan-jin, piaia merke egin ditakela. Nexkatxa horrek, Suedarat gomitatzen duela. Ean, emanen diogun baimena Suedarat joaiteko, ilabete baten-tzat, bere hango lagunaren etxerat.
- PATIN (*hatsa luze-luzeki tiratuz*).—Aaa... Noizbait bada noiz-bait oiloak erruten.
- KATALIN.—Nortaz zira hola mintzo? Xexiliz?
- PATIN.—Ez dut erran oilanda, bainan oiloa.
- KATALIN.—Oilo hori nor duzu? Ni ote?
- PATIN.—Xitoaren ama oiloa, axeriak kendu dio lepoa.
- KATELIN.—Bakea emanen duzu gero, zure zozokeriekin, eta ka-lapita-ketan bazabiltza, ukanen duzu gero hartarik ere.
- PATIN.—Bai, eta ondotik, mutur saltsa ere. Badugu usaia.
- KATALIN.—Jakin azu axeriak etxe huntako oiloari lepoa kendu-ko dion baino lehenago, nik etxe huntako oilarra tupinan sartuko dutala gero.
- PATIN.—Bai, galtzak kendu-ta.
- KATALIN.—Bere falta du gizonak galtzak galtzen baditu.
- PATIN.—Ez dituzke galduko, emazteak ez baliozka ebasten.
- KATALIN.—Badakit fama hori emaiten dautazula. Horra nola tratatzen duzun zure espos-laguna.

PATIN.—Ba, nik zu hitzez, eta zuk ni obraz.

KATALIN.—Nik zure nausitasuna beti errespetatzen dut, bainan ez zure nausikeria.

PATIN.—Bai, zure neurritan, nausitasuna maiz nausikeria izaiten da.

KATALIN.—Bon, hola denaz geroz, erakuts-azu zure nausitasuna: erradazu zer behar diogun ihardetsi Xexiliri. Suedarat joaiteko baimena eman behar ote diogu: bai ala ez?

PATIN.—Emozu errepusta baietz.

KATALIN.—Segur nintzan baietz zinuela ihardetsiko. Haur horrek beti nahi duen guzia ardietsi baitu zure ganik. Ez baita zu baino aita ahulagorik lurraren gainean.

PATIN.—Errozu beraz: ezetz.

KATALIN.—A! Nik behar diota erran ezetz? Beti ni nuzu mantzen haurrari zerbait peningarri behar zaiolarik jakin-arazi. Segur niz ez nindukezula mandatari nahiko, berri atseingarri bat behar balitzaio gaziatiu.

PATIN.—Errozu beraz: baietz.

KATALIN.—Baietz! Bainan gizona nun duzu burua? Hoin urrun behar duguia joaiterat utzi gure haurra? Eta hoin denbora luzerentzat? Eta han eritzen bada? Edo zerbait gertatzen bazaio? Nun gira?

PATIN.—Errozu beraz: ezetz.

KATALIN.—Errex da, orizu, erraitea. Segur naiz haur gaixoak bere buruari arras emana duela piaia horren egitea! Ezetzak gure kontra errabian jar dezake eta berdin eri araz ere.

PATIN.—Errozu beraz baietz.

KATALIN.—Baietz, ba! Bainan badakizua zuk nor duen delako Suedako nextatxa hura? Eta nolakoa den haren familia? Oraiko egunean, asko jende galdu bada gero mundu zabalean.

PATIN.—Errozu beraz ezetz.

KATALIN.—Ai! zu, zu! Zoin gizon ilhauna ziren, ageri da zure erreputetarik. Ez baitakizu sekulan zer nahi duzun. Gero arranguratuko zira nik dudala hemen manatzen eta ez zuk!

PATIN (*Bizi-bizia*).—Sorgina puies! Baietz! Ezetz! Debruaren tripa bete dadiela zu iduriez!

KATALIN.—Ez du balio litania beltzetan ar ziten. Zure ateraldiek eta ahuntzaren gau-erdiko eztulak berdintsu larderria dute. Hasteko, Xexiliri jada izkiriaturia diot, erranez: ezetz, ez diogula emaiten Suedarat joateko baimenarik. Nahi badu, datorla hunarat, ilabete batentzat, bere Suedako nexkatxarekin. Hola, nexkatxa hura ezagutuko dugula nor den eta ikusiko ean harekin joaiterat utz dezakegun edo ez.

PATIN.—Orai ere, eni pitsik aipatu gabe, horiek guziak deliberratu dituzu. Gero asaldatuko zira gure etxean emaztea dela gobernadore entzuten duzulakotz.

KATALIN.—Gaixo gizona! Beharrik nuzu hor etxea gobernatzeko. Ez banintz ni hemen, etxe huntan zure gatik, saguak litezke nausi, saguak!

PATIN.—Zertako nahi zinuen ene gogoaren berri jakin, Xexiliri jada izkiriaturia zinionaz geroz?

KATALIN.—Batere gizona izan bazine, behar zinuen nik bezala pentsatu, eta, orduan, aski izanen nuen erraitea zurekin ados nintzala. Salatzen dautzut zer mana, bainan hain zira barnez larria nun nik salatua ez baituzu konprenitzen. Hortakotz, borxatua naiz ez bakarrik zer mana zuri salatzerat, bainan salatua, nihaurek manatzerat.

PATIN.—Eta gainerat kopeta baduzu hola bekoz-beko, zure jukutriaren aitortzeko!

KATALIN.—Gaixo gizona! Segur laket nuke zurekin itzuli-mitzulika artzea, bainan hain zira leuntasunez gabea nun

zurekin solasak ibili behar baitira ez aho xabalaz bainan hortzetan murruskatuz.

PATIN.—Berritz ere erranen dut: zu hartu zintudalarik ez nuela neretu emazte bat, bainan «kepi» bat, jats bat, eta gainerat eztena bat.

KATALIN.—Bai, eta nik ere berdin erranen dut: zu neretu zintudalarik ez nuela hartu gizon bat, bainan saski potor bat.

OIALA

BIGARREN GERTALDIA

Joka-lekua: *Pariseko edozein barne*

(*Oiala idekitzan, Panpili ikusten da, kadera baten gainean jarria, pipan ari, aire nardatu batekin. Soinean dauzka emazte-galtzerdi luzeak football-eko galtzeri estekatuak, larruarras-ekoa eta, hunen gainetik, bular faltsoak.*)

PANPILI (*oihuz*).—Heldu zirea, Xexili? O Xexili!

XEXILI (*agertuz*).—Ba, Panpili, heldu naiz. Zuretzat zaia baten hautatzen ari naiz. Huna zapetak. Ean, entseazkitzu (jalitzen da).

PANPILI (*Zapeteri so — Takoi-luzedunak dira. Ez zaizko gus-tatzen. Ahal bezala soinean ezartzen ditu. Ez du heiekin errexki kurritzen*).

Errazu, Xexili, zapeta botika hauk behar dituta ibili? Ez duzia besterik?

XEXILI (*agertuz, besoak arropuz beteak*).—Usaia hartuko duzu, Panpili. Ez zaitela berehala zainetan jar. Ez dituzu horiek beti ibiliko. Beztitzeko bakarrik.

PANPILI.—Ni mensten ez banaiz oraikoan, ez naiz sekulan eginen.

XEXILI.—Ezar-azu zaia hau (*zaia emaiten dio*) Zure egitekoa arras errexu da. Zu zira Suedako nexkatxa bat, ene adixkide handia. Heldu zira ilabete batentzat Eskual Herri-rat ene ait'amen etxerat.

PANPILI.—Bainan nik ez dakit deus Suedaz, ez eta hango bizi moldeaz.

XEXILI.—Ez zaitela kexa, Panpili. Kataloga batean ikusia dut nola beztitzen diren hango nexkatxak. Gisa hartarat beztituko zaitut zu ere.

PANPILI.—Eta mintzatu? Nik ez dakit debru pitsik Suedako jenden mintzairaz.

XEXILI.—Ez duzu jakin beharrik ere. Aski dituzu bost-pa-sei solas lerro, beti berak, erabiltzea.

PANPILI.—Ba, zoin solas?

XEXILI.—Suedako jendeak mintzo baitira pixka bat Alemanak bezala hitzak atera-zkitzu zintzur beheretik, eta hori askiko da.

PANPILI (*Zintzur behereti Khitz batzu jaliz*).—Hola behar duta mintzatu?

XEXILI (*irriz*).—Ba, hol'hola! Nehork ez zaitu konprenituko, eta nik eginen dut beti alegia zu konprenitzen. Ori, ezar-azu gaineko jauntzi hau.

PANPILI (*beztituz*).—Eta, ilabete batez hola behar dugua nintzatu?

XEXILI.—Ahal bezain guti egonen gira bestekin. Heien aintzinean bakarrik zira hola mintzatuko. Gehienetan bi-biak

buruz buru izanen baigira, orduan, bixtan da, gure so-
lasak ibiliko ditugu goxoki, orai bezala.

PANPILI.—Bainan ene bozak galduko nu. Nola nahi duzu nik
egin dezadan nextatxen boza meharra?

XEXILI.—Suedako emaztek boza ozenago dute hemengoek bai-
no Aho gainarekin mintzatzen dira. Huna nola (*kanta-
tzen du: Xarmegarria zira, eder eta gazte... eta... eta...*).

PANPILI (*Xexilik bezala kantatuz...*).—Hola ontsa dea?

XEXILI.—Arras ontsa (biak irriz).

PANPILI (*Mintzatzen da Suedako hitzkuntzaz*).

XEXILI (*Errefera emaiten dio hitzkuntza berean... biak irriz*).

PANPILI.—Uste duzia zure aita enganatuko dugula?

XEXILI (*irriz*).—Gure aita, gaixo Panpili, gure aita ez da kon-
da ere gure etxean! Ez da segur deusetaz ohartuko! Eta
ohartzen balitz ere, ez du irriskurik boza altxatuko due-
la! Gure aita ez da deus, gure etxean, entzuten duzu:
deus!

PANPILI.—Eta zure ama?

XEXILI.—Gure ama, ba, dautzut norbetit dela. Bere izengoitia
du kapitaintsa. Eta egiazki hala da. Harekin ontsa go-
bernatzen ahal gira. Ikusiko duzu.

PANPILI.—Bo, bo, bo... Ez du itxurarik ni hola jitea zuen
etxerat.

XEXILI (*irriño batekin*).—A, badakizu zer dautazun errana:
hain maite nauzula nun manatzen bazaitut ere zure bu-
rua urerat aurtikitzeke, obedituko nauzula. Ez dautzut
hoinbeste galdatzen. Beraz, behar nauzu obeditu.

PANPILI.—O amodioa, amodioa, zer xorokeria!

XEXILI.—Ez, Panpili, ikusiko duzu gure etxean iraganen ditu-
gula egun xoragarriak. Ahal bezain guti egonen gira bes-

tekin. Beti ibiliko gira bi-biak. Joanen gira oihanerat, mendirat, itsas-hegirat.

PANPILI.—Arropa eta zapeta hautan zoin tinki naizen! Hola beharko duta ibili udako egun beroetan?

XEXILI.—Ez, ene bihotza, salbu etxean ahatik. Bainan handik kanpo, bi-biak izanen baigira bakarrik, aisean emaiten ahalko zira.

PANPILI.—Bo, to, to! Bainan bizarretik ezagutuko dute ez naizela ni nextatxa.

XEXILI.—Bizarra askiko duzu egitea egunean bietan. Eta bizarra egin beharko duzu ez bakarrik bisaian bainan ere esku-besoetan eta zango aztaletan.

PANPILI.—U! La, la! Nik, orai artio, hoin hastiro baitut bizarra egunean behin egitea! U! la! Ez, ez! Nahiago dut zuen etxerat ez joan.

XEXILI.—Maite nauzu ala ez nauzu maite?

PANPILI.—Maite, ba, bainan hori besterik da.

XEXILI.—Maite banauzu, hori pitsik ez da. Ikusiko duzu, ene amodioa, zer egun goxoak iraganen ditugun elgarrekin.

PANPILI.—Eta buruko ileak? Laburrak ditut gero!

XEXILI.—Ez kexa, ene ene amodioa, oraino badugu ilabete bat gure etxerat joan aintzin. Orduko zure ileak luzatuko dira. Eta nextatxen ileak, guziz Suedan, kasik mutikoenak bezain laburrak izaiten dira.

PANPILI.—U! la, la! Zer zozokeria! Ez dakit! Ez dakit!

XEXILI.—Maitatzea da sofritzea. Zuhaurek errana dautazu. Jar zait. Ile horiek pixka bat orraztatuko daukitzut. Eta gero, entseatuko dautzut buruko tapaki pollit bat, Suedan ibiltzen duten bezalako.

PANPILI.—Eta eskuak ere beharko ditut ba gorde. So egizu atzapar hauieri. Hauk ez dira nextatx eskuak.

XEXILI.—Erosiko dauzkitzut esku-larru mehe batzu (*burukoa ezarri dio*). Ez zira batere gaizki izanen. Suedan badira, ni segur, nextatxa frango, ez baitira zu baino pollitagoak.

PANPILI.—Bai, badut hor pollita izaitez beste griñarik.

XEXILI.—Zato, orai. Behar dauzkitzut ezpainak gorritu.

PANPILI.—Eêêê? Zikinkeria hori behar dautazia ezarri?

XEXILI.—Alo, ene amodioa, ez zitela hola asalda (*emaiten dio gorria ezpainetan*) Bon miss Sueda bezain pollita zira. Ean, ibil zaite pixka bat kurri harat eta hunarat. *Ori*, har-azkitzu eskuetan iguzkiko paisola eta esku-zakua. Ean, ibil zaite. Ez hola atxik esku-zakua, bainan hola. Ean, kurri berritz? Bon, ez da gaizki.

PANPILI.—Banoa beraz berehala ene burua eskaintzerat moda-erakusle «mannequin» bezala.

XEXILI.—Bon, jaliko gira biak, bi nextatx bagine bezala. Kurrituko ditugu karrika-magasinak. Ekazu besoa. Eta orhoit bi nextatx ez direla besoz-beso ibiltzen mutil eta nextatxa bezala.

PANPILI.—Nola behar dut ba kurritu zurekin, nextatxa bezala egiteko?

XEXILI.—Ean entsea giten. Kasu gorputza nola ibiltzen duzun, eta orhoit behar dugula mintzatu Suedako hizkuntzaz. (*Biek joan-jin batzu egiten dituzte taula gainean, irri-karkaila batzu jaliz. Artetik, nextatxak erakusten dio mutilari nola egin*).

OIALA

HIRUGARREN GERTALDIA

Joka-lekua: *Lehen gertaldikoa*

Taula gainean: *Katalin eta Patin*

KATALIN.—Apur baten buruan, Xexili hemen izanen dugu bere Suedako nexkatx lagunarekin. Zer ikusi behar ote dugu?

PATIN.—Ba, atzo aratsean, zu oherat joan eta, egon bainaiz telebixtari so, preseski emankizun bat izan da, biziki pollita, Suedako bizi-moldeaz.

KATALIN.—Zertako ez nauzu deitu?

PATIN.—Ba, jakin behar zen, ori, ean iratzartzea plazer ukanen zinuen edo ez.

KATELIN.—Pentsatzen ahal zinuen, ba, plazer ukanen nuela, zerbeiten ikustea Suedako bizitzaz gu giren kasu huntan.

PATIN.—Ez naiz ba ausartatu zu iratzartzera.

KATALIN.—Batzuetan iratzartzen nuzu ez-deuskeria batentzat. Joan den aldian iratzarri nauzu kukuso bat zinuela-ta haren arrapatzen laguntzeko. Eta, nunbeitik ere, atzarri beharren-beharrenean nauzu lo uzten.

PATIN.—Ba, zu ere orai hola mintzo zira, bainan iratzarri bantzintut, beste predikurik entzunen nuen.

KATALIN.—Iduri luke zure erranetarik ez naizela axolatua gure Xexiliren gora-beherez. Xexili ene haurra ez balitz bezala. Haren ibilpidetan deus behar ez banu bezala. Ala zer zira, jelos, Xexili eni estekatuago delakotz zuri baino?

PATIN.—Ba, ama-alaben artean erabiltzen dituzuen mokoka partiden jelos!

KATALIN.—Ez zaitela sar Xexili eta ni artean. Guk biek arras ongi elgar konprenitzen dugu.

PATIN.—Elgar konprenitzen! Ditakena da. Elgar aditzen! Hori besterik da. Bat eta bat egiten duzue bainan ez «biek bat».

KATALIN.—Hobe da bat eta bat egitea ezenetz-eta bat eta bat'ez, zurekin gertatzen zaion bezala.

PATIN.—Beharrik Suedako nexkatxa hemen izanen baita gure bizia pixka bat airosteko.

KATALIN.—Nork daki hori? Denbora hor izanen da erraile... Ta, zer zioten Suedako jendez telebixta hortan?

PATIN.—Gauza frango erran dute. Nork har denak gogoan? Hango jendea omen da Europako aintzinatuen eta zorionsuena.

KATALIN.—Nahi nuke jakin nor den, zoriona izartzen dakien holako gizon abila.

PATIN.—Gaitzeko garbitasuna eta ordenua omen da han, bai karriketari eta bai etxetan.

KATALIN.—Ez bide dira hango gizonak zu iduriak.

PATIN.—Nehun ez paper zikin bat, ez zigarreta mutur bat lurrean bainan gauza bakotxarentzat toki bat eta gauza bakotxa bere tokian.

KATALIN.—Agian nexkatxa horrek emanen dautzu bere lekue-tako ordenutik pixka bat. Ez baituzu behin ere ikasi zure galtzen kadera gainean pleatzen, ohean sartzeko kentzen dituzularik.

PATIN.—Bai, eta Suedan, gazteak, mutil ala nexkatxak, arras laxoan altxatuak omen dira. Hemengotz itsusi diren moldeak, hangotz onestak omen dira.

KATALIN.—Ez zaitela kexa. Erakutsiko diozkat nik nexkatx horri hemengo neurriak, berak ez baditu hartzen.

PATIN.—Agian ez dautzu kasurik eginen. Eni segurik, laket litzaike laxotasun pixka bat, hemengo tinkia arintzeko.

KATALIN.—Zer ditutzu, berritz ere, solas ments horiek? Ez zira ahalage ere. Hor ibiltzen zira apostolu bat bezain zintzo, iduri onbor hil bat. Eta ordukotz zure barnea kal-dan dago. Eta noren ondotik? Nexkatxen ondotik! Eman baitzaio zu bezalakoari!

PATIN.—Bai, kontensko naiz. Pixka bat airostuko baigira ila-bete batez.

KATALIN.—Lot dadiela, lot, nexkatxa hori nahaskerian. Nik laster eginen dut hemen legea.

PATIN.—Hortaz segur niz; usaia baituzu.

KATALIN.—Ba, eta behar ere, zu ziren potretaren gatik.

PATIN.—Eta zer eginen diozu nexkatxa horri, hemengo mutil guziak abiatzen bazaizko ondotik?

KATALIN.—Zer eginen diotan? Ez dakizuia zer egiten dudan gure zakurrari segitzaleak heldu zaizkolarik? Jatsa es-kutan har, bera barnerat haizu, eta beste guziak hemendik haiza. Hola ez bada kontent, bere puskak bil ditzala eta doala hemendik nahi duen lekurat.

PATIN.—Beraz ilabete polit baten abiadura dugu. Bainan ez dautzut asi-saila bururatu. Besterik ere ikasi dut telebix-tan Suedako bizitzaz.

KATALIN.—Nik best'aldian telebixta hori hetsi eginen dautzut haurrentzat on ez diren ikusgarriak emaiterat doatzilako seinalea agertzean. Sobera amets gaixto egiten baituzu zuk telebixta horren aintzinean.

PATIN.—Zer behar dituzu orain, ene ametsak ere gobernatu? Izanen duzu lan!

KATALIN.—Hala da-ta. Bakotxa bera ez bada on bere burua zikintzetik zaintzeko, sahetsekoeri da laguntzea.

PATIN.—Nik ez dut, atzo aratsean, batere ene gogoia zikindu telebixtaren aintzinean, bainan ba ikasi nola Suedako fa-miliek egiten duten garbitasuna beren artean «SAUNA» ren bidez.

KATALIN.—Sauna-ren bidez?

PATIN.—Sauna-ren bidez ba. Gau huntan pentsaketan egona naiz nexkatx hori hunarat helduki-eta, ez ote ginuken hobe, guk ere, holako bat hemen muntatzea.

KATALIN.—Jakiten ahal duta zer den delako SAUNA hori?

PATIN.—Ez da deus errexagorik. Suedako etxetan badaukate mainu leku bat. Hortan ur laño bero-bero batzu hartzen dituzte. Hortakotz zahar, gazte, familiako ala ez, den denak biluzten dira, eta betan mainu-toki hortan sartzen, gure etxetan urdeak ur-putzuan bezala. Ondotik, ur-turrua hotz baten azpian bustitzen dira. Ez zautzia hori ontsa?

KATALIN.—Gaizo espantu tetele! Zozokeria horren ezin largatuz zinaudena apur bat huntan hola minturik? Hortarik ageri da nolakoa den zure barnea. Beharrik ez duzu, gogoratzen zauzkitzunen betetzeko ahalik. Zuk ba, xerri-tegi batean behar zinukela zure egoitza eta ez hemen.

PATIN.—Jes! Ez dituguia ikusten ahal, diren bezala, Jainkoak egin kreatura ederrak?

KATALIN.—Zuri kreatura ederrak? Nik uste! Astoari xokoleta bezala!

PATIN.—Bon, halabiz beraz. Funtsean nexkatxa horrekin nola erabili, berak erakutsiko dauku.

KATALIN.—To! Horra nun ditugun heldu! (*apur bat ixilik. Atea joiten dute*) Aintzinat.

XEXILI (*agertuz «lagunarekin»*).—Agur ama, agur aita (Potta emaiten diote bieri. Panpilik eskua).

KATALIN.—Ongi ibili zaitze bide hoitan?

XEXILI.—Ba, ama, ba, arras ongi.

KATALIN.—Jar zaitze. Ekatzue puska horiek.

XEXILI.—Ez ama, ganberan pausatuko ditugu. Hobe dugu berehala aldatzea.

KATALIN.—Bon, ontsa da. (*Panpiliri*) Pentsatzen dut, andere gaztea, gure etxean laketuko duzula.

XEXILI.—Ama, ez du balio huni mintzatzea. Ez du tuntik konprenitzen, ez eskuaraz eta ez frantsesez.

KATALIN.—Nola behar dugu ba hunekin gurutzatu?

XEXILI.—Ni hor izanen naiz bitarteko.

KATALIN.—Jes! Eta hik nola ikasia dun hunen mintzaira hoin laster?

PATIN.—Gazteak, alabainan, gazteak!

KATALIN.—Gazteak, nahi dut, bainan bestea ere gaztea da.

XEXILI.—Beti enekin jalitzen zen eta bere Suedako lagunekin. Hortakotz hunek ez du ikusi hemengo mintzaira. Nik aldiz ba hangoa.

KATALIN.—Jes! Hau bitzikeria. Hoinbeste denboraz Parisen egonez geroz, frantsesa pixka bat bederen ikasia behar zinan engoitik! Ala zer? Guti ernatu hetarik duna?

PATIN.—Ale, bota pikoa etxean sartu ordu.

KATALIN.—Pikoa? Baterez. Pentsatzen dut Pariserat etorriz geroz frantsesa doi bat ikasi behar lukela bere bizipidearen gatik ere.

XEXILI.—Bon, ama, bagoazi aldatzerat.

KATALIN.—Ba, zoazte, ba. (*Biak ateratzen dira*).

PATIN.—Nik ere, soldadogoa eta gerla egin nintuen, bainan frantsesa guti ikasi. Konprenitzen dut nexkatxa horrentzat berdin ditakela.

KATALIN.—Zuk frantsesa ez ikastea nehor ez da harrituko, denek baitakite zure ernetasuna.

PATIN.—Ez bide zira zu ere Betleemeko izarra, naizen erneari zure bizia uztartzeko.

KATALIN.—Ba, Betleemeko izarra ere kabalategi baten gainean gelditu zen.

PATIN.—Aurkitu izan bazinu hemen baino aterbe hoberik, segur han eginen zinuen zure egoitza. Bainan, zuri ere, ate idekitzalerik nehor ez agertu, hunarat artio.

KATALIN.—Bai, zuk atea, kontensko-ale, eni ideki eta ni, zozoa, barnerat sartu.

PATIN.—Nik atea ideki, ustez urtxo bati, ahatik laster ohartu, ene hegatzina ez zela urtxoa bainan belatxa, perruketarekin gurutzatua.

XEXILI (*agertuz*).—Ama, ikusten dut biak ganbera berean ezarri gaitutzula, bainan hori ez ditakena da.

KATALIN.—Zertako ez?

XEXILI.—Zeren eta, ene lagun hori biziki kilika baita pondu hortan. Bere ganbera nahi du bakarrik beretzat.

KATALIN.—Jes! Zer dun hori? Ez besteak bezala egina? Bizkitartean bi ohe ezarriak nintinan, bakotxak zuenean lo egin dezazuen.

XEXILI.—Ganbera hori utziko diogu dena beretzat eta nik lo eginen dut ganbera zaharrean.

KATALIN.—Ganbera zaharra? Pollita dun no! Zikina eta mukurru puska tzarrez betea!

XEXILI.—Nihaurrek eustuko eta garbituko dut, ama.

KATALIN.—No, izanen dun lan.

PATIN.—Jes! Harritua nagon Suedako nexkatxa bat hoin kilika izaiteaz bere larruaren agertzeko. Besterik esperantza ninnan horren ganik.

KATALIN (*samur*).—Zu zaude ixilik gero zure ergelkeritan berritz hemen hasi gabe.

XEXILI.—Jes! Ama, zertako zira hola bultatzen? Utz-azu aita mintzatzerat. Zer errango zinuen, aita?

PATIN.—Hik badakin nik uste engoitik zer den Sauna?

XEXILI.—Nik? Ez... Zer da hori?

KATALIN (*samur*).—Zer nahi dion horri? Zikinkerietan din bere plazer bakarra.

XEXILI.—Errazu, errazu, aita erran-go zinuena.

PATIN.—Ba, aski dion galdatzea hire Suedako adixkide horri zer den Sauna. Horrek argituko hu. Eta erron, eni ere Sauna arras laket zautala.

KATALIN (*errabian*).—Zozo handia! Zure leuntasuna eta asto tipulez asearena berdintsu dira!

XEXILI.—Bainan zer duzue hola hasarretzeko Sauna horren gainetik? Ez dezaketa jakin nik ere zer den Sauna hori?

KATALIN.—Ba, bere tetelekeriak utz ditzala bazterrerat. Horren mihia edo talo zabala berdintsu finak ditun.

PATIN.—Bai, zure mihia eta okiloarena ere.

XEXILI (*irriz*).—Bon, bon, ikusten dut, ni hemen egon edo hemendik urrundu, gure kaiolan, xoriak berdin karazkan ari dirola.

OIALA

LAUGARREN GERTALDIA

Joka-lekua: Aintzineko bera

(Xerili ari da lisatzen. Panpilik pasatzen diozka lisatzeko oial eta arropak, tarratatuak direnak bazterrerat ezarriz).

PANPILI (*kexu*).—Erraiten dautzut berriz ere ni leporaino ase naizela bizi huntaz.

XEXILI.—O Panpili, ez duzu arrazoinik hola etsitua izaiteko.

PANPILI.—Ez arrazoinik? Ohartzen zirea nola iragaiten dudan hemen denbora?

XEXILI.—Ez zirea goxoki enekin?

PANPILI.—Erdietan, zerbait erran nahia naizelarik, ahoa hetsia egon behar dut.

XEXILI (*irri batekin*).—Ez girea ontsasko mintzatzen Suedako hizkuntzan?

PANPILI.—Bakea emazu, otoi. Zintzurra akitua baitut, ihauteritako maskatuak bezala mintzatuz emazte boza eginez.

XEXILI.—Ez ditugia aratsalde goxoak iragaiten itsas hegian?

PANPILI.—Zuk ba behar bada, ontsasko mainatzen baitzira, bainan nik larrua beti tapatua egon behar, nehor ez dadien ohart mutila naizela!

XEXILI.—Ez zirea ontsa jostatu igandeko bal-an?

PANPILI.—Bai, beti mutilekin ari izan behar dut dantzan. Neskatxa bat besotan hartu ordu berexten gintuzten ez delakotz gomeni nexkatxa nexkatxarekin dantzatzea.

XEXILI (*X...xuut!*).—Gizon boza egitean mintza zaite apalxago aitak edo amak ez zaitzaten entzun.

PANPILI.—Nago zure ama ez ote den zerbaitetz ohartzen hasia.

- XEXILI.—Ba, zera!
- PANPILI.—Beti, zer eta nola ari naizen, ene zaint dago.
- XEXILI.—Ba, ikusi zaitu trikotatzen. Ez du gehiago erraiten ahalko ez zirela deus esku-lanetan ikasia.
- PANPILI.—Trikotatzen ba! Ene lana hor daukat, zuk hasi bezala, ez baitakit orratz horien malobratzen.
- XEXILI.—Egin alegia! Nahi duzu jendea bildu? Egin engana-mundu.
- PANPILI.—Ba, bainan botikeria hunek nekez dezake luzaz iraun. Ene aitari ere Landesetarat gezurra izkiriaturia diot: hemen naizela adixkide batzuen etxean. Erropusta eman daut jinon dela bere otoan ni ikusterat egun horietarik batez. Ori, pollita izanen naiz, ene aitak arrapatzen banu nextatx arropetan.
- XEXILI (*irriz*).—O Panpili ene bihotza!
- PANPILI (*papoa destinkatuz*).—Zure bihotza, ba... eta ene papoa. Ene bularren ez erakusteko lepoa hemen dakilkat tinki-tinkia, iduzkiak erre nahi duelarik. Beso eta zango-aztalak ere berdin.
- XEXILI.—O, ez zaitela hola samur, ene bihotza.
- PANPILI.—Zu aise mintzo zira. Kanpoan bezala barnean ere beti tapatua egon behar dut. Gainerat, zer nahiko zozokeriak entzuten ditut ene gain kondatzen, beti ez konprentituarena eginez. Uste duzuia hau bizi bat dela?
- XEXILI (*alegia nigarti*).—O, nere bihotza, pena egiten dautazu hola mintzatuz.
- PANPILI (*boza eztituz*).—Ez, ez zazula nigarririk egin, Xexili.
- XEXILI.—Bon, errazu beraz beti maite nauzula.
- PANPILI.—Ba Xexili, maite zaitut.
- XEXILI.—Eta hitz-emazu ez zirela gehiago berritz holako arranguretan ariko.

- PANPILI.—Ba, Xexili, hitz-emaiten dautzut.
- XEXILI (*X...xuut!*).—Norbeit heldu da. Kasu guri. (*Panpilik lepoa tapatzen du eta lotzen da trikotari*).
- KATALIN (*agertuz*).—A! Lisatzen ari hiza?
- XEXILI.—Ba, ama.
- KATALIN.—Nunbeitik ere hi ari haiz eta ez hire laguna.
- XEXILI.—Jes! Zertako behar du horrek ari lisatzen eta ez nik?
- KATALIN.—Ikusi nahi baininan ean lisatzen bederen badakien. Ez zakin jateko moldatzen, ez josten, ez xuriket egiten. Nik ez zakinat hori zertan ikasia den.
- XEXILI.—Ez dazu ikusten trikotatzen ari dela?
- KATALIN.—Bai, bai, atzo eta herenegun ere, hala ari zunan. Bainan hasi duen lana beti hein bertsuan ikusten zionat.
- XEXILI.—Erran dautzut jada, ama, Suedako nexkatxak ez direla hemengoak bezala altxatuak.
- KATALIN.—Pentsatzen dinat han, hemen bezala, nexkatxak esposatzen direla eta ama bilakatzen. Eta nahi t'ez hurren xatarrak bederen garbitzen tiztenela.
- XEXILI.—Eginen ditu ba, hunek ere. Uts-azu lehenik ezkontzerat.
- KATALIN.—Bai, bere xatarrak garbitzeko on ez den nexkatxak, nekez eginen ditin egun batez bere haurrenak.
- XEXILI (*zintzaka*).—Beti horren kontra ari zira, ama. Nik ez dakit horrek zer egin dautzun.
- KATALIN.—Ez din balio neska sintsakeritan ar hadin. Bere ganberan egona nun horren puskeri so. Ez din segur urgulu handirik. Bi zaia txar, bi barneko ator, galtzerdi pare bat ditin han bakarrik. Gaineratekoak bizkarrean.
- XEXILI.—Nihaurrek errana nion, ama, ahal bezenbat arropa gutirekin etortzeko hunarat.

KATALIN.—Ez din ez petentarik, ez erreztunik, ez eta holako bere burua pullitzeko deus puskarik.

XEXILI.—Gaizki zautzuia nexkatxa bat xingleki emana izaitea?

KATALIN.—Xingleki emana eta arruntki emana, bi ditun. Eta ez dinat konprenitzen zertako hola dabilan beti lepo-papoak tapaturik, ditugun iguzkiekin.

XEXILI.—Erran dautzut jada, ama, horien lekutan hemen baino tinkiago altxatuak direla eta ez dutela han beren larrua erakusten hemen bezain aise.

KATALIN.—Ez zakinat hori arras hola den. Aitak hango SAUNA eta beste bizi-molde batzu telebixtan ikusi ditin eta ez dun batere hi bezala mintzo.

XEXILI.—O, ama, telebixtan agertua ez da baitezpada sinesten dut-ean.

KATALIN.—Egia, bainan errana dun ikus eta sinets. Nik, huren familia nahiko nikenan ikusi.

XEXILI.—Zoin idurikorra ziren ahatik ama!

KATALIN.—Idurikorra? Ez, jakin nahia bakarrik (*jalitzen da*).

PANPILI.—Bo, bo, bo... Ez dakit noraino baxera hau joanen den hautsi gabe.

XEXILI.—Ez zitela kexa, ene bihotza. Helduko gira bururaino deus hautsi gabe.

PANPILI.—Ez dakit, ez dakit... Errazu eta... ez duzuia oraino zilatatu zer ote ditaken aitak eta amak aipatzen duten. Suedako SAUNA hori?

XEXILI.—Hitz horrek horien artean pizten dituen kasailetarik konprenitzen dudana, SAUNA-k erran nahi duke potta Suedako mintzairan.

PANPILI (*irriño batekin*).—Bon, ekazu beraz SAUNA bat eta ni banoa lehen-bai-lehen ihesi leku botiga huntarik.

XEXILI (*irriño batekin*).—Joanen zira bainan lehenik enekin zuriketak egin-eta.

PANPILI.—Xuriketak egin-eta?

XEXILI.—Ba; ez duzuia entzun amak zer erran duen? Ean ez zirenez zuhaur on zure zikinen garbitzeko?

PANPILI.—Zer behar dut orai, iturrirat joan zurekin?

XEXILI.—Ba, ene bihotza.

PANPILI.—Nik ez dakit boketa xuritzen.

XEXILI.—Ene aldeko lats-harrian emanen zira eta askiko duzu nik bezala egitea.

PANPILI.—Ho! Ho! Ni zertaratua naizen! Beharrik ez naute ene lagunek ikusten!

XEXILI.—X...xuut! Aita hor heldu da.

PATIN (*agertuz*).—A! Hemen zireztea? Erran, no, sahetseko sakela hau tarratatu dinat. Emadazkin otoi bi pondu.

XEXILI.—Ontsia da, aita. Josten dauzut berehala.

PATIN.—Gure betroin txar horren lana dinat hori. Ta, hire lagun horren etxean ote ditin kabalik?

XEXILI.—O ba! Zer kabala nahi duzu ukan dezaten?

PATIN.—Ba, preseski telebixtan ikusiak ditinat horien eskualdeko kabalak. Orkatxak ditizten han, halako elur-ahuntz handi batzu. Galde zon ean ez nunan zuzen mintzo.

(*Xexilik eta Panpilik elgarri zerbait erraiten dute Suedar-er*).

XEXILI.—Baietz ba, egia dela dio lagunak.

PATIN.—Naski ba, ikusiak ditinat artalde osoak neguari buruz menditarik jausten zituztela. Ez zakinat ahatik kabala horiek zertako baliatzen dituzten. Aragiko segur, bainan behar bada esneko ere. No, galde zon hori ere.

(*Xexili eta Panpili berdin mintzo*).

XEXILI.—Elur-ahuntzek esnea ere emaiten omen dute eta esne horrekin gasna batzu hautak egiten omen dituzte.

PATIN.—Ahuntz-gasna alabainan. Gure eskualdetan ere horien gasna dun hoberena. Bainan, kabala horiek frango basak iduritu zaizkinat. Nagon nola deizten dituzten, estekatu-ta ote edo ... nekez beti gibeletik hemengo ahuntzak bezala. Galde zon ean sahetsetik deizten dituzten ala gibeletik (*biak berritz mintzo. Irriz ari dira*).

PATIN.—Zer duzue no holako irritan?

XEXILI.—Zera ... erran du. Elur ahuntzak lurrean etzaten dituztela lau zangoz gora eta azpitik goiti deizten.

PATIN (*irri karkailaz*).—Azpitik goiti deizten? Eta segur untzia ahoz-beheti atxikiz. Ikusten dinat hire lagun horrek maite dinela irri egitea. Holakoa denaz geroz, behar dinat ahatik kitzikatu. Galde zon ean horien etxean baduten SAUNA-ren usaia. (*Biak eleketan Suedar-ez*).

XEXILI.—Baietz ba. Usaia hori omen da etxe guzitan.

PATIN (*zakur irri batekin*).—Galde zon ean laket luken molde horri lotzen bagine, hemen, gure artean. (*Biak eleketa Suedar-ez*).

XEXILI.—Ihardesten dautzu segur, etorriko zaukularik hemendik joateko eguna, SAUNA bat laket izanen zaiola.

PATIN.—Oi! oi! oi! San Pedro eta San Judas! Pollitak behar ditinau ikusi! Erron, erron: ni ere prest nagola SAUNA batentzat bainan lehenik amaren baimenak segurtatzeko.

XEXILI.—Jes! Zertako nahi duzu amak ezetza eman dezan?

PATIN (*irri larri batekin*).—No! Ez zakinat! Galde zon berari. Ni banioan hemendik. Zuekin egonez galduko baitinat arima eta gorputza (*jalitzen da*).

PANPILI.—Jes! Potta bat, hemendik urruntzean elgarri emaiteko, honbeste ixtorio! Ez duzuia hori bitxi kausitzen? Ala zer da: zuen ama biziki jeloskorra?

XEXILI.—Ez dakit zer pentsa. Bainan ama mintzaraziko dut eta zerbait ikasiko ahal dut.

OIALA

BOSTGARREN GERTALDIA

Joka-lekua: *Aintzineko bera (edo bertsua)*

(Xexili eta Katalin mokoka ari mihise batzu pleatuz).

XEXILI.—Ama, erraiten dautzut ez dugula hortan guk hobenik.

KATALIN.—Zer, ez duzuela hobenik? Horiek ditun nexkatxa batek gizon bati egiteko ateraldiak? Nik emanen zionat hire lagun horri SAUNA, mazelako bat ona!

XEXILI.—Ama, irri egiteko solas batzu ibili ditugula bakarrik aitarekin! Eta deus malezia gaxtorik gabe.

KATALIN.—Horra nola zuek bezalako neska zirtzil batzuek hausten dituzten esosatuen arteko lokarriak.

XEXILI.—Uste baduzu, ama, ene laguna gure aitaren gutizietan dela!...

KATALIN.—Ez badun hala, zertako ari dun sare hedatzen?

XEXILI.—Zer sare hedatu dio? Irri egiteko solas batzu ditugu hiruek ibili Suedako mainu-tokiez. Ez ahal ditutzu zinetan hartzen arraileriaz erranak?

KATALIN.—Hori ez dun arraileria bainan nahaskeria. Hire lagun hori nik ez zakinat xuxen zer den. Edo dun arras barne garbikoa, bizia nola den ikasi gabea, edo bere jokia ontsasko gordetzen duen ustel eder bat.

XEXILI.—Ez da ez bat et'ez bestea, ama. Pentsa-azu bakarrik Suedako nexkatxa bat dela, eta ez ditugula han eta hemen begi berez ikusten biziko gora-beherak.

KATALIN.—Nardatzen nun hire Sueda eta hango ohidurekin. Ez nezanala erran gizonekin biluzi ta mainatzeko on den nexkatxa lotsa ditakela adixkide duen nexkatxa batekin ohe berean lo egiteko.

XEXILI.—Holakoa balinbadu bere jitea...

KATALIN.—Holakoa edo bestelakoa, sarri aratsean beharko din nahi t'ez lagun batekin lo egin. Badakin bestak ditugula eta bi nexkatxa heldu zauzkula zombait egunentzat.

XEXILI (*asaldatua*).—Nor?

KATALIN.—Nor! Nor! Betiko berak, bixtan dun. Luzi eta Arroxa hire bi kusunak. Merkatuan ikusi nitinan atzo.

KATALIN.—Ez din balio gontzetarik jalitzea. Ez badun hik nahi horrekin etzan, etzatzinela besteak gibela. Bereri aipatuko ziotenat eta berek ikusiko diton zer egin (*jalitzen da*).

XEXILI (*bakarrik, suspira batzu jalitzen ditu, nigar batzu xukatzen, eta josturari lotzen da*).

PANPILI (*Asaldatua agertzen da*).—A! Hemen zirea Xexili?

XEXILI (*bera ere asaldatua*).—Zer duzu? Zer gertatzen da?

PANPILI.—Letra bat, Xexili, Landesetarik, aitaren letra bat.

XEXILI.—Zer dio?

PANPILI.—Egun berean otoz heldu dela ni ikusterat: haren so hemen egoiteko.

XEXILI.—Ho! Ho! Ho! Zer bilakatu behar dugu?

PANPILI.—Ba, zer?

XEXILI.—Joaiten bagine hemendik ihesi...

PANPILI (*Espaldak altxatuz*).—Ihesi ...ihesi ... norat?

XEXILI.—Ez da nihundik gomeni aitak zu ikustea hola neska arropaz bezti.

PANPILI.—Mutil edo neska bezala bezti, aita hunarat jiten bada, egia dena den ikasiko du.

XEXILI.—Eta gordetzen bazine...

PANPILI.—Ba, bainan nun naizela sakatuko diozu aitari?

XEXILI.—Nik erran nezoke hemen ez dela mutilik. Ez du jakinen norat joan eta Landesetarat itzuliko da.

PANPILI.—Ba, bainan ez du holakorik sinetsiko: haren letrak hemen ukaiten ditut. Badaki beraz etxe huntan dela ene egon-tokia.

XEXILI.—Bon, erranen diot Pariserat itzulia zirela zonbeit egun hautan.

PANPILI.—Nola izan nintake Pariserat itzulia? Goiz huntan faturrak beti bezala eskutik eskurat eman daut aitaren letra, harekin hitz-hartu bezala. Eta faturra ez da egonen mintzatu gabe. Bai, pollitak gira!

XEXILI.—O! Nere bihotza!

PANPILI (*samur*).—Nere bihotza, ba ... Horiek guziak zure gatik gertatzen zauzkigu.

XEXILI (*bizi-bizia*).—Ene gatik? Zertako?

PANPILI.—Zure pontsamendua izan da gu biak molde bitxi huntan hunarat etortzea.

XEXILI.—Ez ote zen zuretzat plazer enetzat bezenbat?

PANPILI.—Gezur eta gezur ari gira: nola nahi duzu botiga hunek iraun dezan?

XEXILI (*erdi nigarrez*).—O ene bihotza, ez zaitela mintza hoin minberaki. Maite zaitutelakotz naiz holako urratsetan sartu.

PANPILI (*eztituz*).—Bon, ez zazula nigarrik egin. Nik beti berdin maite zaitut.

XEXILI.—X...zuut! Norbeit bada atean (*begiak laster xukatuz*). Aintzinat!

(*Arroxa eta Luxi agertzen dira i-i-i eta a-a-a-ka, gaitzeko omorean. Potta emaiten diote Xexiliri, eskua Panpiliri*).

ARROXA.—Agur Xexili; hau duzuia zure Suedako adixkidea? Ba, zure amak errana dauku bazinuela adixkide bat zurekin ekarria Parisetik.

LUZI.—Gu aintzineko urtetan bezala bestarat heldu gaituzu gero hiru eguentzat.

ARROXA.—Ba, eta aurten ez gira hemendik itzuliko gizon-gaia bildu-ta baizik (*oro irriz*).

KATALIN (*agertuz*).—Hor ziretea ene perlak?

ARROXA.—Ba, hemen gira. Agur ttantta. (*Musu emaiten diote*). Eta, zuek nahi al'ez, zuen etxean guretzat otela beharko duzue egin hiru egun eta hiru gauetz.

KATALIN.—Ba, bainan badakizue bi ganbera ditugula bakarrik lau neskatxentzat. Beraz beharko duzue bakoitzean biek lo egin.

LUZI.—Bixtan da, ttantta. Etxean ere Arroxak eta nik elgarrekin lo egiten dugu.

ARROXA.—Ni segurik izitzen ere naiz bakarrik lo egiteko.

KATALIN.—Ba, eta gure Xexilik ez baitu lo egin nahi Suedako nexkatxa hunekin, zuetarik batek beharko duzue hau oheko lagun.

ARROXA.—O! Nik! Nik, ttantta, laket nuke!

XEXILI (*bizi-bizia*).—Badakizu, ama, ene lagun horrek bakarrik nahi duela lo egin!

ARROXA (*Xexiliri*).—Ez zaitela kexa, Xexili, segur niz biziki ontsa antolatuko naizela ni horrekin.

KATALIN.—Bixtan da: zertako ez? Ale, zoazte arropen aldatzerat. Horra ganbera.

ARROXA (*Suedar-ari irriño batekin keinu eginez*).—Are, xauri enekin (*gerritik hartzen du eta erdi dantzari berekin joaiten ganberalat*).

XEXILI (*errabian jostura lurrerat aurtikitzen du. Jartzen da eta hipaka nigarrez lotzen, burua beso-pean sartua*).

KATALIN.—Zer dun? Zer haiz? Sintsaldian berriz ere?

XEXILI (*marrumaz errabian*).—Ni ez naiz hemen egonen. Aski duzez egitea nahi duzuen. Ni banoa egun berean Parisera.

KATALIN.—Habil nahi badun! Uste balin badun hire kasketaldien zerbitzuko gaitunela hemen, ontsa makur egiten ditun hire konduketak! (*jostura biltzen dio*) Jostura hauk bil-aitzin, hi, enuxenta! (*jalitzen da*).

XEXILI (*Bera dago apur bat nigarrez, begiak nunbeit galduak*).

PANPILI (*agertuz eztiki mintzo*).—Xexili! ...

XEXILI (*Ez du bururik altxatzen*).

PANPILI.—Errazu Xexili...

XEXILI (*nigarrez errabian*).—Ez zaitut gehiago maite. Joaiten ahal zira nahi duzun lekurat.

PANPILI.—Errazu, Xexili, zerbeit gogoratu zaut nola joka gure aitarekin.

XEXILI.—Berdin zait. Ez zira gehiago deus ere enetzat.

PANPILI.—Postarat berehala joaiteko gogoia nuke aitari telefonatzerat ez dadien egun hunar ator. Behar bada ez da oraino etxetik abiatua, eta hola ez litake bideari lot.

XEXILI.—Egin-azu nahi duzuna. Eni berdin zaut.

PANPILI.—Bo-o-o-o! Ez zazula hola nigar egin Xexili. Sarri berean Parisera treina hartuko dut. Hala kontent izanen zire? Errazu baietz, Xexili!

XEXILI (*Batere ez erreputurik. Bainan nigarrak gutitu zaizko*).

PANPILI.—Errazu ba baietz, Xexili.

XEXILI.—Eta zure aita heldu bada?

PANPILI.—Askiko diozu erraitea nola telefonatu diotan, eta nola gaur berean, Parisera itzulita naizen.

XEXILI.—Bon, ontsa da.

PANPILI.—Banoa beraz berehala telefonatzerat. Hola kontent zirea?

XEXILI (*Azken nigarrak xukatuz*).—Ba, Panpili, ba ene bihotza.

PANPILI (*jalitzen da. Elgarri irriño bat egiten dute. Xexili berritz josturari lotzen da*).

OIALA

SEIGARREN GERTALDIA

Joka-lekua: *Aintzineko bera. Xexili josten ari da*

LUZI (*agertuz*).—Zer ari zira, bestetako muntatzen?

XEXILI.—Ba, zaharren berritzen.

LUZI.—Jes! Zer dituzu begi gorri horiek? Zer zira nigarrez ari?

XEXILI.—Ba hortzetarik minez nago.

LUZI.—A! Seinale ona da: ahotako min, amodio min!

XEXILI.—Gerta ditakena da hori ere.

LUZI.—Ez duzuia gizon-gairik egin oraino Parisen?

XEXILI.—Nik badut gizon-gaia, bat Parisen eta bat hemen.

LUZI.—Bañorekin ez duzuia aski?

XEXILI (*irriño batekin*).—Ba, arropak ere izaiten dira aste egunetakoak eta igandetakoak.

LUZI.—Nik ez dakit zuk nola hoin aise arrapatzen dituzun gizon-gaiak. Ez dira ori ene ganat hola heldu!

XEXILI.—Aski diozu nik bezala erraitea: xauri, xauri!

LUZI.—Egiton diotet ba xauri, xauri, bainan nik nahi ez ditudanak jiten zauzkit, eta nik nahi ditudanak aldiz ez.

XEXILI.—Zato enekin Pariserat eta han ukanen duzu hauta.

LUZI.—Ba, han nintzelarik bat bildu nuen, ene gostuko biziki plantakoa, bainan gaizki erori nintzan.

XEXILI.—Zer gertatu zitzaizun?

LUZI.—Zuk bezala ene segidantak bi arropa bazituen: bat igandetako, bestea aste egunetako. Ni nintzen aste-egunetako bakarrik. Hortaz oharturik Pariseri egin nion betikotz adios.

XEXILI (*irriz*).—Ongi xoroa izan zinen ori, hola jokatzeko.

LUZI.—Zer eginen zinuen zuk, ene orde izan bazine?

XEXILI.—Nik? Beste hainbeste eginen nion mutil hari. Aski zinuen zuk ere bigarren bat hartzea igandetako.

LUZI.—Ba bainan ooren buru, ez nintzen deusetarat heltzen hola makila bi muturretarik atxikiz.

XEXILI.—Gizonak hola dira. Nahi badituzu zuri estekatu, behar dute ukan ez bakarrik zuretzat amodioa, bainan ere beldurra badugula gero nor heien ordaintzeko, ez zauzku leial egoiten.

LUZI.—Ba, bainan hola ariz, zure bizia arras barreiatzen duzu.

XEXILI.—Zer dira beraz, gizon-gaiak haizu nahi dutenarekin ibiltzerat eta gu ez? Egin dezagun beste hainbeste eta kito.

ARROXA (*gertuz*).—Errazu, Xexili, norat joan da zure Suedako laguna? Ganberatik atera zait pitsik erran gabe eta ez da gehiago agertzen.

XEXILI.—Ba, faturrak zerbeit berri txar ekarri omen dio. Postara joana da ene ustez telefonatzerat.

ARROXA.—Agian ez dautet kenduko ene oheko laguna. Irri egitea maite duia bederen?

XEXILI.—Ba, ba, bainan ez da errex harekin jostatzea mintzairaren gatik.

ARROXA.—Ez zaitela mintzairaz kexa. Hasteko, orai berean, ohea portefuilan ezarri diot. Sarri mihise pean lehen sar araziko dut. Ikusiko dugu zer begitarte egingen duen, ariko delarik zangoak ezin luzatuz ...Gizon-gairik baduia?

XEXILI.—Uste dut zerbeit abiadura izan behar duela norbeitekin.

ARROXA.—Bon. Eta hik, Luzi; ez baitun gisa, nexkatxa bat hola ibiltzea, galtza luzekin herriko-bestetan, heldu den gabean aski diozkan galtza horiek ebastea. Jali dadiela gu bezala zaietan eta ez galtzetan.

XEXILI (*irriz*).—Ikusten dut arras xede onak dituzuela. Agian ez zautzue samurtuko.

ARROXA.—Berak ikus beza. Jes! Bestak ez direa irri egiteko? Errazu, Xexili, badakizu segur zure gizon-gaia hemen duzula?

XEXILI.—Ene gizon-gaia? Nor?

ARROXA.—Ta, jazko hura bera, gure auzoko Jan-Piarre. Atzo jina da Bordaletik aste batentzat. Egun berean zure ikusterat etorri behar duela errana daut.

XEXILI.—Nitaz mintzatu zireztea Jan-Piarrekin?

ARROXA.—Bixtan da. Aipatu dauku nola zurekin letraz gurtzaten den. Segur ez zaitu saltzekotan.

XEXILI.—Ba, letrak elgarri egiten ditugu adixkide bezala, urrunago joan gabe.

ARROXA (*irriz*).—Ez bazaizte urrun joanak, segur naiz joanen zaitzela oraiko aldian. Sobera errabiatua da Jan-Piarre zurekin ezkondu nahiz.

XEXILI.—Bo! bo! Ez gira ez ezkontzeko solasetan sartuak.

ARROXA.—Alo! Zexili, alo! Ez zaitzela enekin ar maltzurkerian. Aitor-azu egia den bezala. Berdin Jan-Piarre beraren ganik oro badazkit.

XEXILI.—Ezetz, Arroxa, zinez mintzo naiz, ez girela batere hortarat ari.

ARROXA.—Bon, bon! Atxik-azu zure sekretua. Berdin laster denbora mintzatuko da. Ale, Luzi, joan behar dinagu plazarat. Engoitik dantzan ari ditun karraskan.

LUZI (*Xexiliri*).—Eta zu, ez zirea heldu?

XEXILI.—Ikusiko dut nola itzulikatuko naizen ene Suedako lagun horrekin.

ARROXA.—Bon, ttanttari agur bat egin, osabari beste bat eta bagoazi. Sarri jinen gira afaiterat.

XEXILI.—Ba, sarri artio, edo hobeki apur bat artio, nik uste plazan laster elgar ikusiko baitugu. (*Biak jaltzen dira. Xexili apur bat bakarrik.*)

KATALIN (*agertuz*).—No! Joan ditun gure bi perlak. Eta hi nolaz gelditu haiz hemen?

XEXILI.—Ene lagunaren so nago.

KATALIN.—Ba, haren so edo hobeki hire kasko tzarra ezin arinduz. Ikusi dun zoin aise nexkatxa horrek onhartu duen ohe berean lo egitea Arroxarekin? Ez omen zinan sekulan holakorik nahiko. Hik dionan baino sanoago dun nexkatxa hori. Hi ari haiz hor dena ixtorio eta mixterio.

XEXILI.—Ez da batere errana ene lagunak gure etxean lo eginen duela heldu den gabeen.

KATALIN.—Ez lo hemen eginen? Zertako ez?

XEXILI.—Zeren eta berri txar zerbait hartu baitu bere familiaratik Postarat joana da telefonatzerat.

KATALIN.—Zer berri txar?

XEXILI.—Aita gaizki duela edo holako zerbeit.

KATALIN.—Hanbat gaixto! Agian ez din familiako bide-gaberik ukanen orai besta betean ontsa ausa ditaken tenorean (*jalitzen da. Xexili apur bat bakarrik*).

PANPILI (*agertuz*).—Bakarrik zirea?

XEXILI.—Ba. Ta?

PANPILI.—Berantegi.

XEXILI.—Zer berantegi?

PANPILI.—Telefonatu dut gure auzorat: aita jada bidean omen da hunarat buruz.

XEXILI.—Oas! Zer egin behar dugu beraz?

PANPILI.—Ez da hor haratik ez hunatik: hartuko dut Pariserako lehen treina. Zuk aski diozu aitari erraitea nola gaur Pariserat itzuli naizen handik galdea ukanik.

XEXILI.—O, ene bihotza, ez dakizu zonbat estimatzen dudan zure egitatea.

PANPILI.—Ba, jakin-azu gostatzen zautala eni ore. Bainan hortaratzen naiz egiazki maite baitzaitut.

XEXILI (*suspira batekin*).—Egunak luze izanen dira enetzat hemen zu gabe.

PANPILI (*ilun*).—Ba, eta enetzat, han, oraino luzeago.

XEXILI (*irriño batekin*).—Ez nauzu bederen han beste batez ordainduko?

PANPILI (*irriño batekin*).—Galde bera dautzut itzultzen.

XEXILI.—Egun guziz letra bat igorriko dautzut.

PANPILI.—Eta nik, beste bat.

XEXILI (*sendimendutsu*).—O, holakotan dut hobeki senditzen zonbat maite zaitudan.

PANPILI (*hunkitua*).—Nik ere ba zu, Xexili. (*Atea joiten dute*).

XEXILI.—Te! Norbeit bada hor. Aintzinat!

JAN-PIARRE (*agertzen da eta mintzatzen biziki amodiotsu*).—Agur Xexili. Zertan zira?

XEXILI (*herabeki*).—Agur Jan-Piarre (*eskua luzatzen dio*).

JAN-PIARRE.—Ekazu potta (*emaiten dio... Jan Piarrek eskua luzatuz Panpiliri*). Hau duzuia delako Suedako laguna? Badaikit ez zirela bakarrik jina Parisetik. Zure lagun hunek ez omen daki tuntik ez eskuaraz eta ez frantsesez.

XEXILI.—Ez, zorigaitzez ez daki.

JAN-PIARRE (*ahalik gehiena hurbilduz Xexiliri*).—Milesker, Xexili aste guziez izkiriatu baitautazu. Ez dakizu zer atsegina egiten zautaten zure letrek. Denak beiratuak ditut eta bakotxa irakurtua lau bost alditaraino.

XEXILI (*Ez jakin nun koka*).—Noiz jina zira?

JAN-PIARRE.—Atzo, Xexili. Eta jina naiz kaskoan harturik behar ditugula oraiko egon aldian azken deliberamenduak hartu. Erreztun pollit bat ekarri dautzut. Nahi nuke hura zure errian ezarri. Hemendik joan aintzin behar ginuke ezkontzeko eguna ez bada, bederen ilabetea finkatu.

PANPILI (*Bere kadiran ez dagoke*).

JAN-PIARRE.—Jes! Zer du zure lagun horrek?

XEXILI.—Pitsik, pitsik (*Izerdia abiatua du*).

JAN-PIARRE.—Bordalen esperantza handia badut ilabete bat barne, bizitegi baten jabe izanen naizela. Beraz, Xexili, ohanterat sartzea bertzerik ez duzu izanen. A! Ez dakizu zonbat berantetsia dudan biak buruz-buru jarriko giren egun eder hura!

PANPILI (*Kadira errabian aurtikirik bet-betan jalitzen da*).

JAN-PIARRE.—Jes! Zer du nexkatxa horrek?

XEXILI.—Pitsik... pitsik...

JAN-PIARRE.—Bainan zerbeit egin zaio nexkatxa horri! Zuk ere zerbeit baduzu!

XEXILI (*Nahasiki mintzo*).—Pitsik, pitsik... Dolu handi bat: aita du arras gaizki. Ba, oxtian berri txarrak ukanak. Utz-azu... Utz gaitzatu... Aita ba...

JAN-PIARRE.—Zerbeit egiten ahal duta horrentzat?

XEXILI.—Gero erranen dautzut. Tenore txarrean jin zira.

JAN-PIARRE.—Ohartzen naiz, ohartzen. Bon, bainan noiz ikusiko dugu elgar?

XEXILI.—Ikusiko dugu ba noizbeit... Ez dakit, ez dakit.

JAN-PIARRE.—Bon, orduan banoa beraz. Laster artio (*nahi luke hurbildu Xexiliren ganat bainan hau urruntzen zaio*).

XEXILI.—Ba, ba, laster artio (*Xexili bakarrik egoiten da, nigarrez hipaka, arpegia beso pean gordea*).

PANPILI (*apur baten buruan agertuz baliza bat eskuan, errabian mintzo*).—Nigar egiten ahal duzu ba, ustela zu! Ni banoa. Zertako joan naizen galdatzaileri aski dituzu gezur batzu sakatzea! Berdin baduzu usaia!

XEXILI (*atea trabatuz nigar eta asaldura handienarekin*).—Ez, Panpili, ez zira joanen ni entzun gabe. Egia da mutil horri izkiriitzen niola bainan adixkide bati bezala. Ez dut nik behin ere izan horrekin ezkontzeko xederik. Hori bere burutik ari da eta ez enekin elgar aditurik.

PANPILI.—Bakea eni! Eta utz nezazu joaiterat.

XEXILI.—Ez, ez zaitut utziko. Nik zu zaitut bakarrik maite eta ez beste nehor. Zin egiten dautzut. Nik ez dut horrekin pitsik nahi. Gezurra da nik badudala horrekin ezkontzerako abiadura.

PANPILI.—Utziko nuzuia jalitzerat edo nahi dituztia bi behar-ondoko?

XEXILI.—Ekatzu nahi baduzu! Ale jo nezazu, bainan nik zu zaitut maite eta zu bakarrik.

PANPILI.—Bon, geroak erakutsiko du. Ate hori idek eni!

XEXILI.—Idekiko dautzut bainan errazu bakarrik ez nauzula hastiro. Hori bakarrik!

PANPILI.—Bon beraz. Ez zaitutela hastiro. Eta orai idek atea!

XEXILI (*eztituz, bihotz barnetik mintzo*).—O ene bihotza, ez zaitela hoin bortitzki mintza! ez dut nik hobenik. Nahi duzuia jin nadin zurekin Pariserat? Heldu naiz berehala! (*eskua hartzen dio*).

PANPILI (*Eskua uzten dio. Begiak nigarrez betetzen zaizko. Deus erran gabe nigarrak xukatuz jalitzen da*).

XEXILI (*bakarrik xutik dago bere nigarrak xukatuz*).

KATALIN (*agertuz apur baten buruan*).—Erran, no, zer gertatzen dun hemen? Hire nexkatxa lagun hori ikusi dinat tirahala zoala bere baliza eskuan.

XEXILI.—Ba, ama, berri txarra ukan du, aita arras gaizki due-la eta, burua galdua, berchala joan da Pariseko treina-ren hartzerat.

KATALIN.—Jes! Agur bat guri egin gabe?

XEXILI.—Ez zakien gehiago berak nun zen. Erran daut otoi barka dezozuen, ez zuela zueri agur bat egiteko kalapiorik, bere etxetik izkiriaturko daukula.

KATALIN.—Jes! Eta hik zer dun begiak hola nigarrez hanpatuak ukaiteko?

XEXILI.—Zer uste duzu, ama, ez dudala nik senditzen lagun horren zorigaitza?

KATALIN.—Ba, ba, hala dion segurik. Ez agur bat, ez milesker bat, joan bezala jin, jin bezala joan, nik ez dinat pitsik konprenitzen!

OIALA

ZAZPIGARREN GERTALDIA

Joka-lekua: *Aintzineko bera. (Xexili eta Katalin)*

KATALIN.—Hire nexkatxa horrek aita nun din?

XEXILI.—Suedan, bixtan da, hangoa denaz geroz.

KATALIN.—Eta, hemendik Suedaraino baduia treinarik?

XEXILI.—Hori ez dakit, bainan Parisen gelditzekoa da. Han ikusiko du norat-jo, etxeko berrien arabera.

KATALIN.—Jes! Zer ditun boza horiek kanpo hortan? (*atea jotzen dute*). Aintzinat! (*agertzen dira bi gizon, Panpili dakartela ahal bezala. Panpilik izterra odoletan du. Ai! ai! ai!-ka ari da*).

XEXILI (*arras asaldaturua*).—Zer gertatzen da?

OTOZAIN.—Nik jo dut otoarekin. Nexkatxa hau zuen etxean den udatier bat omen da. Bainan ez da ene falta. Bera jin zaut azpirat.

KATALIN.—Nolaz hortaratu da, dohakabea?

OTOZAINA.—Ez dakit zer iragan zaion burutik. Ez du so egin, ez eskuin eta ez ezker. Tirahala bidea trebesatzen hasi da. Emaiten ahal nion arrasta guzia eman diot otoari, bainan ez nezaken neholaz ere huts egin.

KATALIN.—Xexili, lagun-zazu bere ganberalat (*Xexilik eta otzainaren lagunak joaiten dute Panpili*).

OTOZAINA.—Ez dakit nola ez dudan han berean garbitu.

KATALIN.—Hanitz kolpatua dea?

OTOZAINA.—Ez dakit. Mihikuari dei egina diot. Apur baten buruan hemen izanen duzue. Nik uste, izter hezurra hautsia duke. Herrestan eraman dut han-harat. Bainan edozonek nik bezala eginen zuen. Ez da ene falta.

KATALIN.—Ez naiz harritzen gertatu zaionaz. Hemendik arras nahasia ateraia zen.

OTOZAINA.—A! Ohartua zinen beraz zu ere? Zentzua xuxen duenak ez du holakorik egiten. Iduri luke kasik bere buruaz etsiturik nahitarat dela hortaratu.

KATALIN.—A! Jainko ona! Ez ginuen beste beharragorik!

OTOZAINA.—Galda-ozute edozoin lekukori. Denek gauza bera aitortuko dautzute (*otoizainaren laguna agertzen da*). Bon, gu bagoazi otorat. Engoitik jandarmak ere han dituzkegu. Hunat ere segur etorriko zaizkitzu. Agur beraz, anderea.

KATALIN.—Ba, agur jaunak.

XEXILI (*nigarrez agertzen da*). O ama, zer behar dugu bilakatu?

KATALIN.—Ez din balio sintsakerian artzea. Ez gaitin horrek onduko. Mihikua laster hemen izanen baitun, behar dinau nexkatxa hori biluzi, garbitu eta ohean ezarri. Ekar-an hortik ur-bero xorta bat (*Xexili jalitzen da. Katalinek armario batetik jalitzen du otarre bat erien artatzeko puskez betea. Puska hek jalitzen ditu: untzi, kotoina, lotura eta holako*).

XEXILI (*agertuz*).—Ama, huna ur beroa.

KATALIN.—Bon, goazin ganberalat.

XEXILI.—Ama, ez zaitela zu jin. Nihaurre aski naiz behar denaren egiteko.

KATALIN.—Ihaurre aski? Baduna burutik? Nola nahi dun hik bakarrik nexkatxa hori mugitu? Bien artean ere izanen dinau aski lan!

XEXILI.—Zuk ez duzu konprenitzen, ama, bainan nexkatxa horrentzat nahigabe haundia izanen da zuk hori tratatzea.

KATALIN.—Bakea eman, ergela hi. Ez-adila beti solas beretan lot. Puska hauk garreia-aitzin ganberalat. Ni goiti nioan;

gure amariotik hartu behar dinat xukadera bat mihikua rentzat (*jalitzen da*).

XEXILI (*kexu, lotzen da pusken garraiatzen: Atea jotzen dute*).—Aintzinat.

MIHIKUA (*agertuz*).—Agur, Xexili.

XEXILI.—Agur; jaun mihikua. (*asaldataua*). O jaun mihikua, buruz-buru girenaz baliatzen naiz, zuri zerbitzu bat galdatzeko. Ez nuke nahi nehork jakitea. Hemen, denek us-te dute gure kolpatua nexkatxa bat dela, bainan ez da hala. Mutil bat da nexkatx arropetan.

MIHIKUA.—Zer ditutzu bitzikeria horiek? Amak ere ez dakia pitsik?

XEXILI.—Nehork ez daki pitsik, salbu nik. Otoi ez zazula nehori pitsik sala:

MIHIKUA.—Bainan, bainan, nola nahi duzu nik erraitea mutil bat dela nexkatxa? Horren paperak egin behar ditut. Ospitalerat igorri behar bada, ez dezaket han emaztekin ezar! Hori ez ditakena da!

KATALIN (*agertuz*).—Hor zirea, jaun mihikua? Nexkatxa bat dugu hemen Suedakoa; Xexiliren lagun bat, berarekin etorria hunarat ilabete batentzat, eta harek du izan ix-tripu bat.

MIHIHUA.—Nun duzue, ikus dezadan?

KATALIN.—Zato ganberalat. Biziki laster etorri zira. Oraino biluztekoa eta garbitzekoa dugu. (*Xexiliri*) Ekaitzin, no, puska ondar horiek.

MIHIKUA.—Ba, berehala jin naiz. Holakotan minutak berak konda baitira asko aldez (*hiruak sartzen dira ganberan, bainan Xexili berritz jalitzen da berechala eta plantatzen beharria ganberako ateari. Hastetik ez dira solas urrun batzu baizik entzuten. Bainan apur baten buruan Katalin mintzo da, alimaleko oihuekin ikaratzten baitu Xexili*).

KATALIN (*ganberan oihuka*).—Ze... eeer? Mutila? Mutila gure nexkatxa? Zer da botiga hau? Bainan zer da manera hau? Eskandala hau gure etxean? Alaba zirtzila! Bi behar-ondoko eman behar diozkat (*Xexili jartzen da mahainean eta burua kukutzen du beso-pean. Atea idekitzen da eta ama agertzen orroaz*). Nun hiz? Zirtzil zikina! Gezurti ustela, hi! (*Buruko iletarik emaiten dio zartzailaldi bat*) Orai konprenitzen dinat hire komedia. Julufrei pollitak zuek, hori eta hi ere!

XEXILI (*Nigarrez karrasian*).—Barka, ama, barka, bainan ez dugu gaizkirik egin!

KATALIN.—Zer? Ez duzuela gaizkirik egin? Baduna kopeta hola mintzatzeko? Ez zauna gaizkirik aski mutil hori hemen sartzea nexkatxa zela erranez! Korretzionario eskolan dun hire lekua eta ez hemen! Ago, ago, hustu beharko ditun ba, laster, leku hauk, hik eta ba horrek ere! zutik!

Ahalgegarriak! Gezurra tripan zutik dun, hik, zutik!

MIHIKUA (*agertzen da*).

KATALIN.—A! Bazautzia, jaun mihikua, gure etxeko eskandala?

MIHIKUA (*Fermuki*).—Bon, ixilik, Katalin, apur bat, bi hitz erran ditzadan. Ene aldetik egitekoak egin diozkat. Ez zaut iduritzen hezurra hautsia duela. Nik uste arraildua bakarrik. Ikusteko xuxen zer duen, ospitalerat sartuko dugu. Han radioa pasatuko diote.

KATALIN (*beti errabian*).—Doala hemendik ospitalerat edo nahi duen lekurat!

MIHIKUA (*fermuki*).—Ixilik Katalin! Beraz ospitalerat sartzeko paperak eginen diozkat. Hango eri-garraiataile oto bat deituko dut.

KATALIN.—Ba, eta lehen bai lehen.

MIHIKUA.—Bon, eta orai, agur, eta bestaldi bat artio (*jaltzen da*).

KATALIN.—Agur ba, jaun mihikua, agur (*Xexiliri beti oihuz*).
Hi, ba, hi, a! orai konprenitzen dinat (*Xexiliren boza egi-
nez*) «Ez, ez, ama, ez du nahiko zuk biluztea...». Hori
duna aita eta amaren amodioa? Etxearen errespetua? Mu-
til buhame bat guri hola sakatzeko!

XEXILI.—Ez da buhamea, ama, eskualduna da, eta gainerat
ene gizon-gaia.

KATALIN.—Eta baduna kopeta horren aitortzeko? Eskualduna!
Ez bide din nō guti egin entzunez guk hemen erran ditu-
gunak! Eta gainerat gizon-gaia! A! ba, zer aita familia-
doko egunetan! (*Atea jotzen dute*). A! Nor ote da hor,
orai berritz? Otoi gorde-adi hemendik, ahalgearen gatik
ere (*Xexili jalitzen da*) Aintzinat!

GILEN (*agertuz*).—Agur anderea.

KATALIN.—Agur jauna.

GILEN.—Etxe huntan dea Parisetik ilabete batentzat jin mu-
til bat Panpili izenekoa?

KATALIN.—Ba jauna, ba, zorigaitzez hemen da.

GILEN.—Ni naiz, anderea, mutil horren aita. Zertako duzu
erran ene semea zorigaitzez dela hemen?

KATALIN.—Zato, jauna. Aintzina zaite enekin zure semearen
ganberalaino. Han mintzatuko gira eta laster zuhaurek
ikasiko duzu nahi duzana, bai eta ere nahi ez duzuna
(*jalitzen dira. Ganberan gora mintzo dira bainan guti di-
tazke konpreni*).

PATIN (*agertuz*).—Jes! Zer pasatzen da etxe huntan? Oxtion,
mihikuaren otoa ate-aintzinean... orai beste bat... Nun
ditut emazte horiek? (*oihuz ate batetik*) Hor hiza Xe-
xili?

XEXILI (*agertuz asaldatuki mintzo*).—O aita, zu bederen eman
zaite ene alde.

PATIN.—Zer dun neska, zer?

XEXILI.—Badakit gaizki egin dudala. Barkamendu galdatzen dautzut. Otoi, lagun nezazu.

PATIN.—Mintzatuko hiza garbiki?

XEXILI.—Ba, ene nexkatx lagunak oto ixtripu bat izan du. Hor da kolpatua ohean, bainan nexkatxa hori ez da, ez Suedakoa, eta ez nexkatxa. Eskualduna da, mutila da, eta gainerat ene gizon-gaia.

PATIN.—Zeee...er? Bainan, bainan, baduna burutik!

XEXILI (*nigarrez*).—O aita, ez nezazula mokoka! Amak aski egina nu jada. Edo bestenaz banoa ene burua urerat aurkititzerat!

PATIN.—Bainan, Xexili, zertako ari izan haiz holako komedietan? Zertako ez dun egia aitortu den bezala haste-hastetik?

XEXILI.—Ez dakit nihaurrek ere, bainan aita, ez dugu gaizkirik egin, zin egiten dautzut, sinets nezazu! (*Ganberako atetik agertzen dira Gilen eta Katalin*).

KATALIN.—Ba, jauna, horra zer desgraziak ukan ditugun zure semearekin. A! Hor zirea, Patin? Badakizu engoitik gure Suedako nexkatxa eskualdun mutil bat dela. Jaun hau da mutil horren aita.

PATIN (*so eta so dago Gilen-i*).—Jes! Jes! Hi ez hiza ene gerlako laguna, Gilen Ahetzekoa, Landesetarat joan baitzuan bizitzerat?

GILEN.—Eta hi, ez hiza Patin Elissalde?

PATIN.—*Hura bera (eskua tinkatuz lepotik elgarri lotzen dira)*. Gaizo Gilen, ene aspaldiko lagun leial maite-maitea! Zertan hiz, to?

GILEN.—Betiko hura, gaizoa. Urte batzu gehiago bizkarrean!

PATIN.—Nola den ahatik bizia! Nun elgar berritz ikusi behar!

GILEN.—Bai, eta zer maneretan!

KATALIN (*beti erasian*).—Altxa-zkitzue zuen haurrak ahal bezain ontsa, eta horra ondotik heien mileskerra!

PATIN.—Zaude ixilik, Katalin! eta ekazu hunarat edari xorta bat, duzun hoberenetik.

KATALIN (*zerbitzatzuz*).—Ixilik, ba, ixilik! Oro haizu dira beraz. Zer behar du orai, hobendunak nausi, eta hobengabeak burua apaldu?

PATIN.—Baietz, baietz, emaztea. Badakik zer den, Gilen gai-
zoa? Gazteak... eta gaztek gazte-lan!...

KATALIN.—Berritz ere lan txarra eginen dute gaztek hola ar-
tzen bazira heien hutsak tapa eta tapa!

PATIN.—Ba, emaztea, ba, ekazu edaterat (*ahapetik Gilen-i*).
Ez zokela kasurik eman, Gilen, gure emazte hori pixka
bat kapitaintsa duk, bainan bihotz ona dik.

KATALIN.—Zer erran duzu ahapetik? Kapitaintsa ba, beharko
hala izan, gure etxean gizonak duen nausitasunaren
gatik!

PATIN.—Bon, halabiz! Eta hik, Xexili, zer xede dun gero mu-
til horrekin? Egiazki ezkondu gogo duzueia?

XEXILI.—Ba, aita, ba.

PATIN.—Bon, gu bi aiteri, xede hori arras ontsa zaukunau.
ez dea hala, to, Gilen?

GILEN.—Bai, izan daitela gu biak izan giren bezenbat adixki-
de, eta ongi jaliko dituk bizian.

PATIN.—Bon, Xexili, hazi ere eremon oherat baso hautarik bat.
(*Xexili sartzen da ganberan basoarekin, berritz agertzen,
eta bere basoa eskuan, xutik emaiten da ganberako ate-
-sartzean, atea dagola erdi idekirik*). Bai, uste-gabeko
eguna diuk hau. Hogoi urte inguru dukek ez dugula elga-
rrekin trinkatu. Trinkata dezagun beraz! Haurrak, egun
da zuen aiten besta. Gu bien nahikeria da elgar maita
dezazuen, zuen aitek elgar maitatu duten bezenbat. Adi-
tzen dun Xexili?

XEXILI.—Bai, aita.

GILEN.—Eta hik ere aditzen duka Panpili?

PANPILI (*ohetik*).—Ba, aita!


PATIN.—Bon, trinka dezagun beraz gure eta zuen zorionean.

KATALIN.—Eta ni ez niza barne?

PATIN.—Ba... zu... nork atxik kanpoan?

OIALA

Piarres Larzabal - 1965



PUBLICACIONES
DE LA
REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones
Científicas en Guipúzcoa)

REVISTAS

**BOLETIN (de la Real Sociedad Bascongada
de los Amigos del País)**

España

Suscripción anual	1.500 ptas.
Número suelto	800 »
Número atrasado	1.000 »

Extranjero

Suscripción anual	1.800 »
Número suelto	1.000 »
Número atrasado	1.200 »

EGAN (suplemento de literatura vasca)

España

Suscripción anual	500 ptas.
Número suelto	300 »

Extranjero

Suscripción anual	600 »
Número suelto	400 »

**MUNIBE (del Grupo de Ciencias Naturales
«Aranzadi»)**

Precio por fascículo:

Socios y Colaboradores

Años 1949-1962	150 ptas.
Años 1962 y siguientes ...	200 »

Público en general

Años 1949-1962	250 »
Años 1962 y siguientes ...	300 »

Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de
Urquijo», Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa

SAN SEBASTIAN

